

ANTONIO ZAVALA

**EUSKAL JOKOAK
BERTSOTAN (I)**

ANTONIO ZAVALA

AUSPOA LIBURUTEGIA
(180)

Auspoa Liburutegia
(EDITORIAL AUSPOA)

Plaza Santa María, 2 - Tolosa, Gipuzkoa
Tel. (943) 671282

ANTONIO ZAVALA

**EUSKAL JOKOAK
BERTSOTAN
(I)**

Auspoa Liburutegia
1984

Azalean: Askizu. (A-Z'ren argazkia)

© Auspoa Liburutegia (Tolosa - Gipuzkoa)
Fotokonposatzalle: Cometip, Barañain, Iruñe
Inprimatzalle: Gráficas Lizarra, S.L., Estella (Navarra)

Depósito Legal: NA. 1.301-1984
ISBN 84-7158-124-8 (Obra completa)
ISBN 84-7158-125-6 (Vol. I)

ARKIBIDEA

Itzaurrea	11
KARGA-JASOTZAILLEAK	13
(1870) Bertso Berriak Askizu'n jarriak: «Bertso bi paratzeko artu det idia...»	15
(1917) Bertso Berriak mutil gazte indartsu bati jarriak: «Milla pasa ta bederatzireun amazpigarren urtian...»	21
Pultsolariak: «Julian Berengua, askok dakiguna...»	27
(1925) Bitor Zabala Itziar'tikan aspaldian zan ojuka...»	29
(1925) Bertso Berriak Arteak Aritzari jarriak: «Bitor Zabala Itziar'tikan berriz ere da ujuka...»	37
Bertso Berriyak Mutriku'ko Olatz'ko Pedro Maria Txurruka'ri jarriak: «Esan dirate bertso berriyak ondo para al banitza...»	45
(1928) Bertso Berriyak: Arteondo'ri jarriyak: «Gipuzkoa'ko Itziar ortan gizon bikañak badia...»	51

(1934) Bertso Berriyak karga jasotzeari jarriyak: «Milla ta bederatzi egun da oi ta amalauko urtian...»	59
Bertso berriyak: «Bertso berriyak jarzera nua asunto txiki bateri...»	65
AIZKOLARIAK	71
Bertso berriyak: «Bertso berri batzuek nai ditut paratu...»	73
(1903) «Azpeiti'ko erriko aizkora apustua...»	83
(1903) Bertso Berriak: «Milla bederatzi-reun da iruban...»	91
«Martzo illaren amazapiye nue siñalatutzero...»	97
(1924) Bertso Berriak Migel Aranburu'k jarriak: «Milla ta beatzireun egunekin ogei ta laugarren urtian...»	101
(1925) Bertso Berriak: Milla bederatzi egunekin oi ta bosgarren urtian...»	107
(1927) Bertso Berriak Naparro'ko erri batean jarriak: «Asi baño lenago guzia azaltzen...»	115
(1927) «Olerki auxe abestuko det oldozten asi naizenez...»	121
(1928) Bertso berriak aizkora-apustuari jarriak: «Aizkora-apustu bat jokatu da aurtan...»	125
Erronkak: «...izaten ditu kasketa izugarriyak...»	133
(1936) Bertso Berriyak Keixeta'ri jarriyak: «Urtiak milla bederatzi-reun da ogei ta amaseigarrena...»	139

(1966) Bertso Berriak: «Apustutxo bat jokatu zaigu Donostiya'ko partian...»	145
KORRIKALARIAK	151
(1928) «Bertso berriyak ateratzeko lenguan esan dirate...»	153
(1931) Bertso Berriyak: «Bertso berriyak jarri bialitut iñork nai badu ikasi...»	161
Bertso Berriyak: «Adiskide batzuek esanda dijuaz bertso berriyak	167
«Enkargu bat artu det bertsuak jartzeko...»	173

ITZAURREA

Liburu onek barruan zer dakarren, izenburuak garbi erakusten du. Orregatik, itzaurre luzerik ez degu gaur bear.

Euskalduna ain joko-zalea izanik, gai onetzaz bertso asko izango zirala, uste izatekoa zan noski. Ebanjelioaren itza betetzen da ontan ere: Biotzaren ugalmenetik, aoa mintzo.

Auspoa k, apostu-bertso asko ditu orain baiño leen argitara emanak. Oso bertsolari gutxi izan baita, orain artekoetan, jokoren bati edo besteri bertsoak jarri ez dizkionik. Bertso oiek, ordea, beren aitaren liburuan sartuak daude, edo sartuko ditugu.

Gaurko bilduma ontan, egillearen izenik gabeko saillak jaso ditugu; edo-ta, bertsolari ezaguna bada, oso egille urriaren frutu izan ziranak.

Baiñan liburu baterako geiegi izanik, bi ale edo tomotan banatu ditugu. Lenengoan,

aizkolari, karga-jasotzaille. ta korrikalarien bertsoak; eta bigarrengoan, palañkari, idi-probalari, segalari eta bozeo ta burrukarenak. Bozeo ta burruka euskal jokoak ez izan arren, euskal gizonak oietan ere probatu ta neurtu baitira, eta bertso-faltarik ere ez baitago.

Ala ere, Bidasoa'z beste aldekoak kanpoan utzi ditugu, gure ipar aldeko senideak gai ontaz bertso askorik ez badute ere.

Bi euskal-joko nagusi ere beste aldi baterako utzi ditugu: estropadak eta pelota. Oiek, ugariaren ugariz, bakoitzak liburu bana edo bina beteko baitu.

Euskal-jokoak ez dute beerakorik izan azken urte auetan. Orregatik, jokatu berriak diran apustuak ere izango dituzte bertsoak. Oiei ere ez dizkiegu liburu onen ateak zabaldu.

Izan ere, oiek ez dira bertso-paperetan azaldu, egunkari ta aldizkarietan baizik. Orregatik, bertsoak dira besteak bezelaxe, baiñan bertsolaritzaren aro berri batean sortuak.

Besterik gabe, bertsoen bidez gure guraso eta aitonen denborako euskal-jokoak oroitzuz, une atsegingarria igaro dezan opa diogu irakuleari.

KARGA-JASOTZAILLEAK

BERTSO BERRIAK ASKIZU'N JARRIAK

- 1/ Bertso bi paratzeko
artu det idia,
ipiñirik jendiak
alako bidia;
ez nuke nai markatu
erriko jendia,
zergatikan daguen
geiena pobria.

- 2/ Karga-jasotzalliak
daudela txit onak,
ala esaten dute
emengo gizonak;
Askizu'n izan dira
beintzat zer esanak,
oriekin egiten
ditugu zezenak.

3/ Irugarren bertsoa
nua kantatzera,
apostua nola egiñ
zuten esatera;
gizon biren kontra bat
zitzaien atera,
onelakorik iñon
pasatu ote da?

4/ San Jose eguna zan
señalamentian,
gizon oiek juan ziran
emendik pakian;
Getaria'ra juanda
taberna batian
apostua egin dute
berentzat kaltian.

5/ Karga zako arbiya
biar zala artu,
plazara ekarri ta
lenengo formatu;
Alikante zar orrek
an ere asmatu,
ontzako urria erraz
irabazi ta artu.

6/ Askizungo gizonak
zaizkigu indartu,
iñolaz ere plazan
etziran biartu;
bi gizonentzat karga
aundiya zan artu,
zazpi arrua zala
zuten deklaratu.

7/ Apostura galduta
illunez etxera,
gizon oiek juan ziran
andriak poztera;
gizon bat izanikan
sustantziya bera,
akuloz atera du
andriak atzera.

8/ Gero berriz neskakin
egiñik apostu,
beste egun batian
biar zan jokatu;
zazpi arrua karga
biar zuen artu,
irabaziko zana
jakiñik ziertu.

- 9/ Jokua izanikan
amarreko bana,
Taratuluk izan du
irabazi ona;
Askizu'ko mutillak
tontuak izana,
neska oiek badute
sekulako fama.
- 10/ Gero berriz egiñik
mutillak apostu,
San Markos eguna zan,
nik ala juzgatu;
amabost egunian
eun bider probatu,
au etzekiyenari
ziyoten pegatu.
- 11/ Askizu'n pasa dira
abek danak aurten,
txit gizon indarkuak
biar dute irten;
onenbeste jartzia
merezi bazuten,
orra amaika bertso
ikasi dezaten.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, D'Abbadie jaunaren bildumatik, Paris'ko Liburutegi Nazionalean.

Urterik eta egillearen izenik bertso-paperak ez du. Bañan goiko aldean eskuz onela idatzita dago: *1870*. Eta beeko aldean: *Asquizu-co Agustin Lazcano neurtitzlearenac. 1870, Arana*. Oiek, nik uste, onela ulertu bear dira:

Arana, Azkoiti'n jaio eta Loiola'n bizi zan Aita Jose Inazio Arana jesuita da.

Onek bertso-paperak bialtzen zizkion D'Abbadie jaunari. Au ere berak bialdua izango da, eta 1870 urtean, ain zuzen.

Bertsoen egillea, Askizu'ko Agustín Lazkano omen da. Tamalez, bertsolari orri buruz ez degu, orain arte beintzat, ezer ere ikasi.

(1917)
BERTSO BERRIAK
MUTIL GAZTE INDARTSU
BATI JARRIAK

- 1/ Milla pasa ta bederatzireun
amazazpigarren urtian,
bertso berriyak jartzera guaz
gazte jendien tartian;
abendubaren amaseian zan
igandeko egun batian,
komeriyá bat polita izan da
askorentzako kaltian,
ez gaude ondo pasadizu au
adierazi artian.

- 2/ Zarauz'ko erriyan jokatu degu
apustura bat bikaña,
juzgatzallia ere genduben
gizon leiala ta fiña;
guri jokua galerazitzen
egiñ zuben alegiña,
nunbait lenago konpontziyua
danak zaukaten egiña,
disimuluan pasako zan, ai,
tontuak izan bagiña.

- 3/ Lenago juzgatzallientzat,
 oraiñ mutillaren famak,
 pentsatutzen det zabalduzia
 oraindañokuak danak;
 bai omen ziran oin ankaperako
 lañ
 ez giñadela esanak,
 oiek zertako ibilli dira
 insultatutzen gizonak?
 Orrengatikan mintzatu dira
 pakian ondo zeudenak.
- 4/ Lenago biri jokatu ziyen,
 ori da arrigarriya,
 oraiñ neronek bakarrik neukan
 koraje izugarriya;
 amarna arroa izatekotan
 pisuba berdiñ jarriya,
 orrek zakuba artuko zula,
 neretzat berriz arriya,
 bañan alare ez dute egiñ
 berak nai zuten guziya.
- 5/ Plazara juanda laster asi zan
 «Kontrariyu oi zakuban»,
 aitzekirikan etzan orrentzat
 gelditu arren bajuban;
 publiko dana igarririkan
 tokatzen ez dan moduban,
 esaten zuten: «Oraingu ontan
 altxa biar dik graduban»,
 ixil-ixilik gelditu balitz
 askoz ere obe zuan.

- 6/ Bat galdu zuben Eibar'en ere,
lenbizikua Oriyo'n,
bi mutill gaztek alkar artuta
orri irabazi geniyon;
irugarrena berriz Zarautz'en
neronek jokatu niyon,
denbora juanda lastimagarri
baña damutu zitzayon,
leno ainbeste mokadu iñork
apenas emango diyon.
- 7/ Mutilla dago balientia,
sasoikua ta gaztia,
berak baliyo duen ainbeste
egon biar du kostia;
egiya esan, kontrariyua
mutill koskor bat bestia,
usteko zuten guri nolana
juanda irabazia,
zenbait persona beinguarekin
eskarmentatzen eztia.¹
- 8/ Sekulan ez diyo iñork aditu
beste desafiyorikan,
beñere etzula eskusatutzen
eguzkiyen azpirikan;²
etorri zeilla semerik bazan
amak egindakorikan,
orren mende egon biar gendula
etzeguela dudikan,
orla asi dan mutill gaztiak
ez du juiziyorikan.

¹ Bertso-paperak: *ezdira*.

² *Bearbada*, *azpikorikan* bearko luke emen.

- 9/ Bata bestia mendeatutzen
izan da franko alegiñ
aspaldi ontan ori egon da
txuleta jan da lo egiñ;
orren galerak erremeditzen
sozidadiak lan egiñ,
berak gogorik apenas duen,
albait besteri eragiñ,
obia zuten Amerika'ra
len egiñ balu aldegiñ.
- 10/ Plazara juanda ikusi degu
oi bere alegiñian,
laster jarri zan bestiak ainbat
lana egiñ eziñian;
esaten zuten nik neduzkala
fuerza gogorak zañian,
orrek apenas bestetan daukan
bakarrikan mingañian,
beste penarik ez dadukagu
geldituba berdiñian.
- 11/ Goizian berdiñ egin genduen,
gelditu ziran seriyo,
gero're izketan aritu giñan
kaso au zala meriyo;
bazkal onduan au esatera
juan giñaden propiyo,
ia apustur'au jokaturzia
nai al zutekien geyo,
baña atzera egin digute
ez dutelako baliyo.

- 12/ Arratsaldian bukatutzia
nai nun nere partetikan,
bestiak zenbat indar zedukan
ikusitziagatikan;
nik esan niyon txiki aldetik
etzala izango faltikan,
ill edo bizi juango nintzala,
etzitzaiala inportikan,
bigarren txandan plazaratzeko
etzuben korajerikan.
- 13/ Bezperatikan izan ziraden
burla ta despreziyuak:
juan baño leno ikasitzia
obe zala leziyuak;
jokatubak ere bai omen ziran
tolareko soziyuak,
apostu ori berdiñ utzi du
Jesusen bendiziyuak,
leku askotan jarriko ziran
bestela okasiyuak.
- 14/ Ordu laurden bana artuta
egiñ genduen pelia,
diferentzizko gauzak azaldu
ziran plazaren erdira;
orrena ogei ta amasei ontza
luze bazuben sikira,³
neriak berriz ogei ta bostetik
bera zedukan medida,
bakoitzak beren etxietara
umil etorriyak dira.

³ Bertso-paperak: *zikiera*.

- 15/ Gure txiki au eziya dago
aspalditikan lanian,
aindu biarrik ez dauka onek
plazara juaten danian;
ogei ta amarna bier jasota
gelditubak berdiñian,
presegi emanda galdu ziyoten
ogei ta amaikagarrenian,
bestia ere denboraz zuben
bere petxuben gañian.
- 16/ Aldrebes samar gebiltzan bañan
egin dira ajustiak,
zenbait personak sortutzen ditu
orrelakoxe nastiak;
berentzat adituko dute au
batak ezpada bestiak,
meritu aundiyak daduzka oraiñ
eskolan erakustiak,
orra amasei bertso atera
dibertitzeko gaztiak.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea,
Usurbil'ko Egiluze-txiki baserritik, Feliziano
Aizpurua'ren bitartez.

Apustu au Zarautz'en jokatu zan, 1917'ko
abenduarien 16'an. Bañan jolakarien izenik
ez da esaten.

PULTSOLARIAK

- 1/ Julian Berengua,
askok dakiguna,
pultsoan jokatzera
erbestera joana.

- 1/ Ari kendu zioten
joko ezaguna,
baña ez indarrez da
egokitasunaz.

- 3/ Geure defensoria
Jose Aldazabal,
ak ere errazoa
sustantziak eman.

- 4/ Obeto jasoteko
baleuko nai beza,
ori etzan gustatzen
Oleta'ko plazan.
- 5/ Jokue doblatuta
beste plaza baten,
axe konbenentzia
nai dezuten urten.
- 6/ Andiek emoteko
liberdi propiñe,
danak izan zituen
berdindu eziñe,
andia ona da baña
txikie obie.

Bertso auek, Gernika'ko Julio Bareño jaun-
na zanak bialdu zizkigun, 1958'ko azaroaren
24'an, makinaz idatzita, norbaiten aotik jaso-
ta.

Asieran, argibide au ematen zigun:

«Orain urte askotxu, Oleta, Amoroto al-
dian izan zan pultsolari-jokoaren bertsoak».

Laugarren laukoan *baleuko nai beza* ira-
kurtzen da. Ez det uste bizkaitarrez *beza* esa-
ten danik. Gaizki kopiatuta egongo da. Bear-
bada, *baleuko nai bezain* bearko luke.

(1925)
«BITOR ZABALA ITZIAR'TIKAN...»

- 1/ Bitor Zabala Itziar'tikan
aspaldian zan ojuka,
arri jasotzen Euskalerrian
iñork nai bazion joka;
Mutriku'tikan erantzun zion
Pedro Maria Txurruka.¹

- 2/ Okasiorik gabe indarrak
biar ditugu guk neurri,
modu onian biar diogu
adierazi alkarri,
noiz, nun da nola paperak egin
jendiak dezan irakurri».

¹ Bertso auek azaldu diran tokian, J.M. Etxaburu'ren kuaderno batean, *Txurruka* irakurtzen da, ta alaxe idatzi degu. Punturako ere ola bear du, naiz-ta gramatikak *Txurruka*'k eskatu.

- 3/ Papera egiñik jokatuteko
iruna milla pezeta,
geroztikan zer bizi-modua²
jan da eran da ondo aseta,
baña Eibarren erabagi da
alkarri zioten seta.
- 4/ Milla eta bederatzireun da
ogei ta bostgarren urtian,
igandia zan goguangerri
Martzuan amabostian,
eta eguerdiko amabietatik
ordu batak bitartian.
- 5/ Eibar'ko zezen-plazan erdian
jarri zioten arria,
ogei ta iru ontza luzian
amalau kuadru neurria,
amabost arru bere pisua,
ez al da izugarria?
- 6/ Mutrikuarran gisa Arteondo³
ez da mutilla errautsa,
denpora oietan iruntsi zuten
makiñatxo bat arrautza,
artia baño gogorragua
gertatua da aritza.

² J. M. Etxaburu'ren esku-idatzian: *geroztik*.

³ J.M. Etxaburu'ren esku-idatzian: *Artondo*.

- 7/ *León-castillo* eta arriya
jarri zioten eroso,
apostua zan ordu erdian
zeñek geiago gora jaso,
Pedro Mariak lendabiziko⁴
lanari biar eraso.
- 8/ Ta irriparrez eldu zion ta,
izanagaitikan gaitza,
amar minutuz amabi aldiz
jaso zuen kare-aitza,
eta jendeak txaloak joka,
«Bejaundeikela, Aritza!»
- 9/ Itziartarrak eldu zion ta
txit intentzio gogorrez,
bederatzi aldiz jaso, ez askok
uste zuten bezin errez,
dudarik gabe iruditzen zait
etzan iristen indarrez.
- 10/ Bigarren amar minutuetan,
guzietan azkarrena,
Pedro Maria Txurruka'k jaso
zuan bederatzigarrena,
kontra trabesak egindakuak
etzuten lasai barrena.

⁴ J.M. Etxaburu'ren kuadernoan: *Pedro María*.

- 11/ Itziartarrak bigarren aldiz
lau bider jaso ta utzi,
ogei ta bat eta amairu zeuden,
nekatu zan eta utzi,
dudarik gabe galduko zuala
egin zitzaion iritzi.
- 12/ Askok esan du tranpia zala
ta ni ezetzian nago,
orrelakorik ez aitutzia
askozaz nuke naiago,
gertatuko zan irabazliak
indarra iduki geiago.
- 13/ Gizalegian biar dan bezela
esku emanaz alkarri,
dudarik gabe esan zeikian
alkar ondo zuten neurri,
etxerakuan gorrotorikan
batere etzuten ekarri.
- 14/ Bitor Arteondo indartsua da
eta junturaz sendua,
Txurruka baño zarragua ta
laburra ta ariñagua,
desonragarri ez da geratzen
apostu ori galdua.

15/ Sasoi obena dauka Txurruka'k
da gizaseme bikaña,
junturatsua asi burutik
ta orporaño liraña,
indarra berriz zer esanik ez
Lastur'ko zezenak aña.

Bertso auek, Ondarroa'ko Jose Mari Etxaburu'k bere eskuz idatzitako kiaderno batetik ditugu. Berak, ziur asko, inprentaren batek argitaratutako bertso-paper batetik kopiatuko zituan.

Arteondo ta Aritza karga-jasotzalleeri buruz lau bertso-paper ditugu. Lau oietan lenengoa, auxe. Guk txeetasun batzuk eman-go ditugu, bertsoak uler ditezen, sail bakoitzaren ondotik. Argi geiago nai dutenak, onako bi liburu auetan arkituko dute: Rafael Aguirre: *Juegos y deportes vascos*, 1971; eta Jose Luis Iriarte: *Gure erri-joku nagusiak*, 1973.

Arteondok eta Aritzak, 1925'eko Martxoaren 15'an jokatu zuten alkarren aurka lenengo apustua, Eibar'ko plazan. Aritzak irabazi zuan. Bertso auek, joko orren goraberak kontatzen dizkigute.

Nor ote da egillea? Etxaburu'ren kuadernoan ez da ori esaten. Bañan iru puntuko bertsoak dira. Olako bertsoak, Mendaro Txi-

ristaka'k jartzen zituan. Aren joskera ere badu sail onek. Orregatik, egillea ura izateaz, gu beintzat ez giñake batere arrituko. Ain zuzen, ondoren aitatu degun aldaera batean, bertso aukeratuak Mendarotar batek paratuak ote diran esaten da.

* * *

Amabost bertso aukeratuak, Jose Ariztimuño Aitzol zanaren bilduman ere agertu dira, 1934'an Ondarroa'ko *Euskeltzale Bazkuna*'k bialduta.

Baña aldaketarik ez du.

* * *

Gernika'ko Julio Bareño jauna zanak, sail ontako amalau bertso bialdu zizkidan 1959.X.9'an, 12'garrena falta zualarik, aurretik oar au egiñez:

1925'garren urtian Eibar'ko zezen-plazan izan zan arri-jasotzearen Bertso Berriak, Mendarotar bertsolari batek ateriak. Alejandro Onaindia'k (73 urte) abestuten daustaz.»

Aldaketak: 1/4: iñork nai bazuan joka; 1/5: Mutriku'tikan etorri zaio; 2/1: Okasiorik bage indarrak; 2/2: biar baditugu neurri; 2/3: modu onian adierazo; 2/4: biar diogu alkarri; 2/5: noiz, nun da nola papera egin; 2/6: jentia dizan irakurri; 3/1: Papera egin jokatutzeko; 3/4: jan da edan ondo aseta; 3/5: baña Eibar'en erakutsi da; 4/2: ogeta bostgarren urtia; 4/3: igandea zan goguanga-rria; 4/4: Martxoan amabostia; 4/6: ordu bata bitartia; 6/1: Mutrikutarran gizon Artondo; 7/2: jarri zioten erazo; 7/4: zeñek geiagotan jaso; 8/5: eta jentia txaluak jo-ta; 9/4: uste zuten baizen errez; 9/6: etzala iristen

indarrez, 10/6: etzeuken lasai barrena; 11/1: Bigarrenian ltziartarrak; 11/3: falta; 13/1: Gizalegian biar dan legez; 13/6: bat ere etzuen alkarri; 14/2: eta juntura sendua; 14/4: labur eta ariñagua; 14/5: desondragarri ezta gelditzen; 14/6: postura ori galdua; 15/1: Sasoi oenna dauka Txurruka'k;

(1925)
BERTSO BERRIAK
ARTEAK ARITZARI JARRIAK

1/ Bitor Zabala Itziar'tikan
berriz ere da ujuka:
arri jasotzen Euskalerrian
iñork nai badio joka;
dudarikan ez det egiten
nik jo dedan arronka,
Motriko'tikan aterako'a
Pedro Maria Txurruka.

2/ Pedro Maria izena eta
nonbria berriz Aritza,
akaso orrek kulparik eztu,
gañerakuak dabilta,
askoz geiago dala esanik,
ori da lenengo itza,
neri fama kendu nairikan
alper-alperrik dabilta.

- 3/ Martxuaren amabostian
egin giñaden jokatu,
amabost arruako arria
zeñek geiago altxatu;
orrek lenbizi egindakua
nik ez nuan arrapatu,
ori orduan geiago zan da
ezin nezake ukatu.
- 4/ Egun artan ni gelditu nintzan
burua ondo makurtuta,
oiek alegre gelditu ziran
naikua diru artuta;
lastima zan ebillitzia
arrenbeste arrotuta,
itxaso dana korritu zuten
txalopan bander'artuta.
- 5/ Periodiko danetan ere
pentsatu zuten jartzia,
enteratuak gelditu ziran
España eta Frantzia;
geiagoko motibo gabe
moru orretan ebiltzia,
arritzekua etzan ba izan
egun artan nik galtzia.

- 6/ Seigarren bertsuan orrek
esaten duan itza:
gogorragua gertatu dala
artia baño aritza;
osto guziak danak juanda
gogorragua balitza,
artia beti ostuan dago,
ez bigunago balitza.
- 7/ Bakarrikan pena bat daukat:
aukera danak emana,
zortzi arruatik amaseira
aukeratutzen zuena;
askotan ola gelditu oi da
jokua galtzen duena,
zedorrek orain emango al dezu
nik zuri eman nizuna?
- 8/ Aukera ori ematen badu
nik eman nion bezela,
jokatutzeko pozikan nago,
ez det egingo atzera;
bestela bana aukera zagun
bi jokutan jokatzeraz,
orretan ere joango naiz ni
baldin konforme bazera.

- 9/ Berrogei urtera nua,
buru dana kalbotuta,
orduan erretiratzen naiz
zuri ori jokatuta;
eta bestela oraindañoko
marka danak tapatuta,
ekusirikan ofiziu
txarra dala au zartuta.
- 10/ Gaztetan ere txarra da eta
zartuta berriz doblia,
gauza aueri alde batera
uztia askoz obia;
orretarako berdindu nai det
guk dadukagun aldia,
lenago esandakuetan
baldin konforme badia.
- 11/ Eibar'ko plazan nagusi dago
orrek egindako marka,
sekulan ere ezetz egin nik,
ori da oien erronka;
joku ori irabazteko
esperantzia badauka,
nere faltarik ez da izango¹
iñork nai badu ba joka.

¹ Bertso-paperak: *ne*.

- 12/ Ez bakarrikan marka orretan
jokatutzeko prestatu,
zeñek geiago altxatu ere
nai nuke berriz probatu;
lenagoko pisuan bertan
ogei ta bi ontza altu,
libre kanterak ateratzeko,
gero nai deguna artu.
- 13/ Kantera libre izate ori
batere ezta misterio,
gero jokatzen zeñ komeni dan
ari elduko badio;
indarra sobre dadukanari
inportarik ezpaidio,
zurekin ori gertatutzen da,
jendiak alaxen dio.
- 14/ Aukera billa naizenikan ni
ez pentsatu ba artzeko,
ori baño askoz obia
beste bat da neretzako:
amaika arrua arria
gero plomoz osatzeko,
au da neri komeni zatena
beso motxakin artzeko.

15/ Aukera asko ematen ai naiz,
obe erretiratzia,
dudarikan ez det egiten
baten bateri eltzia;
esperantzetan egon arren ni
gertatu leike galtzia,
modu orretan bukatuko da
gure arteko saltsia.

16/ Orra amasei bertso berri
gezurrik gabe asmatu,
iñori fama kendutziarren
diranikan ez pentsatu;
motibo asko dauren medioz
egin nintuen tentatu,
pasadizuen amarretik bat
alare ez det kontatu.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea,
Azkoiti'ko Larraskanda baserritik jaso.

Aurreko bertso-sailla, Aritzaren alde ta
Arteondoren aurka moldatua zan. Onako au
alderantziz: Arteondoren alde ta Aritzaren
aurka, erantzuna ta ordaiñak eman naiean.

Arteondok, Aritzaren aurka galdu ondo-
ren, ondoezik zebillelako izan zala esan zuan.
Orregatik esango du, sail ontako bostgarren
bertsoan, egun artan galtzea arritzekoa etza-
la.

Arteondo, 1886 urtean jaioa zan; ta 1925'an, ogei ta emeretzi urte zituan. Orre-gatik da bederatzigarren bertsoaren asieran esaten dana.

Bertso auen bidez, desafioa egiten dio Arteondok Aritzari. Onek onartu ta berriz probatu ziran. Bigarren neurketa au ere, Eibar'en egin zuten, 1926'ko otsaillaren 7'an; eta Arteondok irabazi.

* * *

Bertso auek ez digute esaten beren aita nor zuten. Bañan. *Zubeltzu ta Saikola bertso-lariak* izeneko liburua (*Auspoa*, 93) prestatzen ari nintzala, bertso auetzaz ere galdetu nion Zubeltzu zanari.

Onela erantzun zidan:

-Bai; «beso motzakin artzeko». Ori go-goan daukat. Bertso auek nereak zirala uste zun jendeak. Bañan Itziar'ko Juan Joxe Erre-menteri'koarenak dira; Juan Joxe Garate, izen-apelliduak. Iñork sekulan bertsoan somatu etzunak jarri zitun bertso auek...

BERTSO BERRIYAK
MUTRIKU'KO OLATZ'KO
PEDRO MARIA TXURRUKA'RI
JARRIAK

- 1/ Esan dirate bertso berriyak
ondo para al banitza,
gazte batzuei lenguan eman
diyoet baiezko itza;
gizon indartsu izugarriya
dago Olatz'ko Aritza,
aldi batian ez dute ausiko,
alfer-alferrik dabilta.

- 2/ Pedro Maria Txurruka dago
karga jasotzen abilla,
arrokeririk beñere eztu,
beti izan da umilla;
paperetan jarrita ibilli
ziran kontrariyo billa,
iñork nai badu markak ontzera
nolanai etorri dedilla.

- 3/ Arteondo ta Agerre'k zuten
Markiña ortan jokatu,
amalau arruako arriyarekin
ederki ziran proatu;
ordu erdi banan emeretziña
jasota berdin geratu,
irabazi ez ta gastuba eginda
umill giñan etxeratu.
- 4/ Geroztik Markiña'n zegon oiek
ibillitako arriya,
karga orrekin Aritzak egin
zigun prueba berriya;
artu ta bere lepo onduan
aguro zuen jarriya,
egun ortan Txurruka'k egin du
marka ikaragarriya.
- 5/ Mutrikuarra indartsuba da
ta gañera garbosua,
amalau arruako arriya
orrentzako erosua;
ogei ta bost minutuban oitamar
bider espaldara jasua,
Markiña'ko plazan etzeguan
Aritza mutill gozua.

6/ Andikan laiste Mutriku'n bertan
prueba egiten asiya,
amasei arruako karaitz ederra,
zuen ezkiña biziya;
Aritzak jasota egun artan
jende askok ikusiya,
karga oieri orrek egiten
ziyen nai zuen guziya.

7/ Egualdi txarra izanagatik
lagun asko bildu zian,
Eibar'tik eta Bizkaia'tikan
gizon bikañak bazian;
plazan zeguan jende geiena
Aritza ikusteko pozian,
anaia aldamenian zeukan,
aita ta arreba atzian.

8/ Lenguak onak zirala zenbat
bider esaten genduan,
amak semiak egiten dituzte
leku askotan munduban;
orain onena Olatz'en dago
San Isidro inguruban,
beti bezela ikusten degu
gizon formalen moduban.

- 9/ Pasadizua bear bezela
garbi nai nuke itzegin,
iñorentzako gaizki esanda
askotan oi da utsegin;
nai zuena etortzeko oiek
lenago zuten otsegin,
Aritzari jokutzen orduban
etzan izango atsegin.
- 10/ Pedro Maria Motrikuarrak
prueba bikañak baditu,
ori famatu gabe isillik
nola niteke gelditu?
Au adituta jende guziya
egin liteke arritu:
ogei ta zazpi arrua bere
espaldara iza ditu.
- 11/ Mutrikuarra baño lenago
bazeuden ortan asiyak,
Ondarrua'ko premiyuetan
asko gera ikusiyak;
an ziran karga-jasotzalliak
zerbait lanian eziyak,
orduban ikaratu zituen
Aritzak beste guziyak.

12/ Iñorentzako kalterik eztu
gauz onak erakustiak,
bertso oek ikasiko ditu
batak ez bada bestiak;
Olatz beko indartsubarentzat
emen daude albistiak,
kanta ditzaten basarritar da
kaleko zar da gaztiak.

13/ Pedro Mari kontrariyorian
gabe zitzaigun arkitu,
orduban edozein etortzeko
paperetan ziyen deitu;
aspaldiyan arotzaren lanak
egiten digu segitu,
soliba edo poste koskorrak
iñoiz astindutzen ditu.

14/ Orren berriyak esan ditugu
iñork nai badu ikasi,
alegiña jarriyagatikan
guziyak ditu merezi;
ori berdindu duenikan ezta
emen oraindik ikusi,
or azaldu diranagatikan
Aritza nun-nai nagusi.

15/ Pruebak ikusitzeko batek
orra bertsuak atera,
onezaz gaizki pensatutako
kristaurik iñor ote da?
Lan au egiten ni ez naiz jardun
iñorentzako kaltera,
gusto duenak artu lezake
ikasitzeko papera.

Amabost bertso auek, Pedro Maria Txurruka *Aritza* goraltzearren jarriak, moldiztegi-izenik gabeko paperetan zabaldu ziran. Bañan Erreñeri'ko Makazaga'renean argitarara emango ziran, paper oietako ale bat bertan jaso baigendun.

Irugarren bertsoan, beste arrijasotzalle bat aitatzen da: Agerre. Itziar'koa omen zan, Arteondo bezela; eta biak kinto-lagunak.

(1928)
BERTSO BERRIYAK
ARTEONDO'RI JARRIYAK

- 1/ Gipuzkoa'ko Itziar ortan
gizon bikañak badia,
orko bati bertsuak jartzeko
oraiñ artu det idia;
Bitor Zabala'k karga jasotzen
dauka abillidadia,
nun billatu gentzake beste bat
ori dan baño obia?

- 2/ Nai dezuten guziyak aditu
oraingo nere esanak,
orren indartsubak gutxi dira
probintzi onetan izanak;
Arteondok aspaldi onetan
dauzka abillaren sonak,
Europa'n ere asko ez daude
modu ortako gizonak.

- 3/ Asi ezkerro esango ditut
Arteondoren berriyak,
orrek egindako apusturak
dira goguangarriyak;
ogei eta lau urte onetan
dantzatu ditu arriyak,
baita gañera plazetan egin
marka ikaragarriyak.
- 4/ Itziar'ko Zabala'k gugandik
merezi ditu graziiyak,
ogei ta zortzi apustura orrek
baditu irabaziiyak;
orren pruebak leku askotan
dauzkagu ikusiiyak,
oraindañoko marka guziyak
izango ditu ausiiyak.
- 5/ Orri irabazi naian egin
dute makiña bat saio,
baña alare Arteondori
inportarikan etzaio;
plazara juaten danian orrek
lana egiten du iaio,
nunbait bere amarengandikan
orretarako zan jaio.

- 6/ Galdubagatik orrek juanda
gero markak ditu ondu,
orrelako lanetan Zabala
ezta ibiltzen berandu;
aspaldiko urtietan zenbat
apustura eraman du?
Aurrera ere, soziyo ona,
Arteondori lagundu.
- 7/ Ogei minutuban bizkarrera
amairu tonelada iyo,
ai, Arteondo Itziar'kua,
ez dezu gutxi baliyo;
aurrera ere gazte askori
orrek jokutzen badiyo,
arri orrekin lanikan asko
oraindik emango diyo.
- 8/ Donostiya'ko plaza aundiyan
pruebetan ziñan jarri,
egun artan zurekin jendia
arritu zan izugarri;
zure parekorik an etzala
laiste ziyoten igarri,
andik ere premiyo ederra
etxera zuen ekarri.

- 9/ Au esanagatik ez dezala
jendiak artu gaizkiyan,
gizon indartsu bikañak oraiñ
daude paraje guztiyan;
ez dakiyenak jakin dezala
esango det nik itz biyan:
orrelakuak gutxi dirade
eguzkiyaren azpiyan.
- 10/ Madalenetan Errenteriya'n
pruebetan ziñan asi,
au nola zan jende guziyari
nai diyot adierazi;
amasei arruako arriya
etzendun altxa itxusi,
premiyua ta diariyua
danak dituzu merezi.
- 11/ Aspaldiko urtietan egin
dituzu marka bikañak,
arriya erraz ibiltzen dute
zure indarra ta mañak;
Arteondok oraiñ ez dauzka
edozeiñ moduzko zañak,
orregatikan egiten ditu
izugarrizko azañak.

12/ Emezortzi urteko ori zan
apusturetan asiya,
geroztikan amaika plazetan
daukagu ikusiya;
arri jasotzen bere denboran
ez da izan itxusiya,
zenbat bider txaloka jarri du
plazako jende guziya?

13/ Zortzi arruako arriyakin
itziartarra abitu,
Eibar'ko plazan egun orretan
gusto emanak baditu;
eun da ogei ta amaika bider
altxa artian segitu,
ogei minutuetan lan oiek
Arteondok egin ditu.

14/ Irurogeitik gora jasotzen
Markiña degu ikusi,
itziartarra bi saiuetan
geldituba da nagusi;
bigarrenguan Urkidi etzan
arriya iyotzen asi,
jokua eta trabesak ditu
Arteondok irabazi.

15/ Zabala Itziar'kuarentzat
orra bertsuak atera,
adiskidia, galdetzen dizut:
gezurrik jarri ote da?
Lan au egiten ez naiz ni jardun
iñorentzako kaltera,
gusto duenak ikasitzeko
artu dezala papera.

Arteondoren gorazarrez moldatutako bertso auek, *Elustondo-Zarauz* moldiztegian argitaratu ziran paperetan, eta ale bat, Elgoibar'en jaio ta Zarautz'en bizitako Lorentzo Zulaika'ren eskutik jaso genduan.

Egillearen izenik ez da iñon esaten. Urterik ere ez da ageri.

Bañan 13 eta 14'garren bertsoak diotenez, apustua jokatu ta irabazia du Arteondok, Eibar'ko plazan, «zortzi arruako arriyakin», Markiña'ko Urkidi'ren aurka.

Apustu ori, Jose Luis Iriarte'k bere *Gure erri-joku nagusiak* liburuan dionez, 1928'ko Iraila'ren 23'an jokatu zan.

Urte artakoak, beraz, ziur aski, bertso auek.

Irakurlea oartuko zanez, sail onen azken bertsoa eta aurreko saillarena, berdintsuak dira. Zer san nai ote du orrek?

Bearbada, bi saillak egille batenak dirala. Ala balitz, eta ura *Aritza*'ren alde izanik, bi taldeak bertsolari berarengana joango ziran

bertso eske. Ta arek bere lana egin ta ko-bratu...

Bañan gauza segurua ez da. Izan ere, badi-teke bigarrego au lenengoaren ordaiñetan jarria izatea; ta, orregatik, bigarregoa-ren egilleak lenengo saillarenak bukatzen zuan bezela bukatu nai izatea.

(1934)
BERTSO BERRIYAK
KARGA JASOTZEARI
JARRIYAK

- 1/ Milla ta bederatzi egun da
oi ta amalauko urtean,
karga jasotze eder bat izan da
Markiña'ko erri maitean;
bi aldetatik lana egin dute
gutzizko borondatean,
batzuentzako mesedean da
bestientzako kaltean.

- 2/ Lendabiziko arriri eltzea
Olua'ri zaion tokatu,
amar minutuan ogei ta bat aldiz
bizkarreraiño altxatu;
lau gaizki jaso dituala ta
amazazpi apuntatu,
jueza bere kontra ote zegon
egin zan errezelatu.

- 3/ Txikia gero asi zan eta
batekin egin du pasa,
jokua errez irabazteko
ekarri zuten ametsa;
ogei iruri bildurrik gabe
botatzen zuten trabesa,
egun orretan askok egin du
pentsamentu aldrebasa.
- 4/ Bigarren txandan amaseña aldiz
berdiñean zuten jaso,
orduan ere Txikian alde
trabesean animoso;
betarrak joku irabazita
dagoala uste zuten oso,
beste batean polikiago
jokauko dute akaso.
- 5/ Irugarren txandan ere Olua'k
eldu zion animoso,
amaika arroako arria
ibillia du airoso;
geroago ta ederkiago
amazazpi aldiz jaso.
or ezagun da indarrik gabe
etzala geratu oso.

- 6/ Txikia ere dotore xamar
karga jasotzen zan asi,
alegiñean saiatzen danak
gaizkirik ez du merezi;
amabost aldiz ondo jaso du,
amaseigarrena igasi,
momentu artan betar geienak
triste ziraden ikusi.
- 7/ Amaika arroako arri kuadrua
ez da jasotzen erreza,
egun orretan beroa ere
egiña zuan demasa;
gizaseme ta emakumiakin
beterik zegoan plaza,
oien tartean etzan atsegiñ
artutzen ere arnasa.
- 8/ Markin aldean jende geiena
geratua da kontentu,
karga jasotzen Olua ori
egin dalako portatu;
Bizkaia'n diran onen xamarrak
egin ditu menderatu,
arri orrekin kontrariorik
etzaio egingo agertu.

- 9/ Markin aldian egun orretan
jendia bazan ugari,
esaten zuten: «Txikiak errez
irabaziko du ori;
aundiya ustel samarra da ta¹
utziko diyo lanari».
Suertatu da irabaztia
Olua'k gari fiñari.
- 10/ Erakuslia ona zedukan
Bitor Arteondo zar ori,
bere denboran amaika saio
egin dio arri ari;²
karga jasotzen eskarmentua
badauka orrek ugari,
indarra dunai ateratzeko
mutiko ona da ori.
- 11/ Txiki orrenak berrogei lagun
bai omen ziran soziyo,
txuletak eta arrautzak janez
eragin zenbait ensayo;
aundiak berriz aita bakarrik,
gezurrak ez du baliyo,
urdaia eta zeziñarekin
sabela berdintzen diyo.

¹ Bertso-paperak: *samarra ta; da ori*, guk erantsia, neurria osatzearen.

² Bearbada *arriari* bearko luke.

12/ Ustela zala uste zuten ta
zañak dauzka indartsuak,
orregatikan irabazi ditu
millaka pezta batzuak;
orrek daduzkan mobimentuak
ez dira oso mantsuak,
iruna txiki baliyo dute
Pedro Olua'n bertsuak.

Bertso-papera, *Imp. Macazaga - Rentería*
moldiztegian argitara emana eta bertan ja-
soa.

BERTSO BERRIYAK

- 1/ Bertso berriyak jartzera nua
asunto txiki bateri,
gure Jainkoak ematen badit
bear dan aña memori;
mutill batekin izandu degu
makiñatxo bat komeri,
gezurra eta saltsa badauka
orrek berekin ugari.

- 2/ Apustua bat jokatzeko
egin genduan tratatu,
bosteun bana franko señalear ere
gañera berriz botatu;
biña milla aiñekoa gero
egin bear zan osatu,
andik denbora gutxi inguruko
mutill orreri damutu.

3/ Apustu ori jokatutzeko
denbora ogei minutu,
eun da oi ta bost kilo zakuan
zeñek geiotan altxatu;
San Juan de Luz'ko plazan gañera
egin bear zan probatu,
gizaraxoa aur bat bezela
egin da erritiratu.

4/ Gañera berriz ibilli dira
neroni erositzeko,
modu orretan apustu ori
aisa irabazitzeko;
toki txarrean etziran asi
gauz ori logratutzeko,
nere burua ez daukat nik
diruagatik saltzeko.

5/ Al baldin badet bizi nai nuke
oso bide zuzenean,
diruagatik ez det sartu nai
Judas'en almazenean;
kupirik gabe saiatutzen naiz
oraindik ere lanean,
obe da bizi sos gutxirekin
eta konduta onean.

6/ Bide onetan ezin zuanian
asi zan jira ta bira,
beste lagun bat artuta joan zan
gero Erriko Etxera;
jokatutzeko gogorik ez ta
zerbait ere galdetzera,
apustu ori debakatzeko
alkateari esatera.

7/ Alkate jaunak erantzun zion
kristau leialak bezela;
apustu ori jokatutzeko
publikoan libre zala;
jokatu edo erretiratu
bitatik bat egin dezala,
eta damutu baldin bazaio
señalek galdu ditzala.

8/ Arrazoi ori aitu zuanian
triste samar zan geratu,
bide geienak itxi zizkan da
etzeukan nora abitu;
esan bezela, egin nitun nik
señale oiek altxatu,
motibo gabe aizkenerako
mutill ori asarratu.

9/ Mutil ori da gipuzkoarra,
Aia'n sortu ta azia,
aspalditxoan Frantzi aldean
ateratzen du bizia;
itxura zerbait badauka baño
ez da arrazoiz ezia,
izen da guzti esan bear det:
Franzisko Egurza Grazia.

10/ Neroni berriz naparra nazu,
Lesaka nere erria,
San Juan de Luz'en bizi naizena,
arrazoietan garbia;
oraindik ere sano dauzkat
belaunak eta gerria,
Juan Jose daukat izena eta
apellidua Tapia.

11/ Prezisamente bertsoetako
ez daukat ederra gaita,
mundu onetan disgusto asko
ikusitakoa naiz-ta;
bañan egiak esplikatzea
konbeni dan gauza baita,
ori da mutill gaztea eta
ni bost aur txikien aita.

12/ Amabi bertso paratu ditut
denbora pasatutzeko,
iñork gogorik baldin badauka
onek irakurritzeko;
prezisamente ez ditut jarri
besterik menderatzeko,
bakar-bakarrik paperak salduz
sos batzuek bildutzeko.

Bertso-papera, Luis Mitxelena jaunaren
bitartez eskuratua.

Paperak moldiztegi-izenik ez du; bañan,
tankeragatik, Errenteri'ko Makazaga'renean
argitaratua dala ematen du.

AIZKOLARIAK

BERTSO BERRIYAK

- 1/ Bertso berri batzuek
nai ditut paratu,
euskarazko praktikan
nai duenak aditu;
ia nere intentzioak
eztzake fallitu,
ikasi nai duenak
ongi atenditu.

- 2/ Kausik gabe ez dire asi
jaunok espliketzen,
aspalditxoan ere
eizian zebiltzen;
aurretik arrastuan
azerik zaunkatzen
altxatuko zirenik
etzuen pensatzen.

- 3/ Guziek eztaitzezke
derrepente esan,
geigo esplikatzeko
ere daude kausan:
Urtxupi urriarekin
nola egon zen plazan,
munduan geigo ez balitz
bezalako gisan.
- 4/ Burue zuri eta
eskuen urrie,
ala ere apusturako¹
prest dago jarrie;
gaztegoari artuez
aurretik leurrie,
etsai tentazalia
mundure etorrie.
- 5/ Lazaro eta Juan
dire Aldaz'koak,
Matias eta Urtxupi
Berueta'koak,
mille bana errial
jokatutakoak,
gizona zarrarentzat
a zer oztopoak.

¹ Bertso-paperak: *apustuareco*.

6/ Urtxupi orrek aurretik
zuen esperantza,
lenbiziko trunkure
beti konfiantza;
zere arrekin zeuken
bere alegrantza,
baña paratu zion
demonion dantza.

7/ Juan orrek lenbiziko
trunkuen jartzian,
trabes egin nai zuen
enpeño guzian;
bestiak gaxotorik
triste biotzian,
egalik ez duena
nekez da egaltzian.²

8/ Trabes egiñek ziran
ogei ta zortzian,
animoaren faltan
seguru etziran;
nunbait kontrarioak
ikaratzen ziran,
solo umildu ziren
plazara sartzian.

² Bertso-paperak *duenac* eta *egalcea*. Bañan gramatikaz *duena* bear du; ta punturako ta esan-naierako, *egaltzian*.

- 9/ Aldaztar ok ala ere
animoso asi,
jendiak ere zitun
gustora ikusi;
laguntzeko arturik
Juan Migel ta Gastesi,
enpeño aundiarekin
ziyen erakutsi.
- 10/ Aldazti atera dire
bi aizkoldariek:
bat da Lazaro ori
txit jokalarie;
bestia berriz Juan
ikaragarrie,
orrek umildu ditu
oien panparrokeriek.
- 11/ Bein baju asi ezkeru
ez da erraz goratzen,
Ezkurre ere azkenian
Lazaro burlatzen,
allegatzen zenien
ogi eske Aldatz'en,
esanez ez zubela
orrek ikaratzen.

- 12/ Esatia bat da eta
beste bat izana,
jokari txikie da
bañen nabarmena;
orrek firmatu diyo
pasaporte ona,
poleki asten al da
Lazarorengana.
- 13/ Urtxupik Lazarori
egindako soberbik,
pensatzen jarrita ere
dire arregarrik;
trunku baten bentaja
zeoken eskindurik,
berari emanda ere
eztaoke bildurrik.
- 14/ Lazaro inozentzien
bizi izan balitze,
Urtxupik gozatzeko
deseo zun ditxe;
orrek atera zion
abilidade gaitze,
galdu ta ezin pagatuz
orain or dabilte.

- 15/ Aspaldien Ezkurre
ta Urtxupi ori
desafioz zebiltzen
Juan ta Lazarori;
aizkoran jokatzeko
beti erronkari,
oien onduan zuen
okillek eduri.
- 16/ Urtxupi ori zartu eta
ala ere jokalari,
trunkuaren gañian
zebillen dantzari;
begiratu balio
bere buruari,
ez zuen ibilliko
ainbeste arrokeri.
- 17/ Urtxupi juizioan
sartu da oraingoan,
isillik egon balitz
askoz obe zuan;
lenago oraiñ baño
obeki zegoan,
andriarekin bedi
dantza zortzikoan.

18/ Mutil gaztiarekin
arturikan parte,
ola bear duenak
nai luke egon fuerte;
ortan ibillie da
sobratxo ere aparte,
garbosoa izana
beretzat du kalte.

19/ Aldaztarran probatik
ziren igarriek,
zer moduz eta nola
ziren ebakiek;
kartaz aderazi dit³
elkarri berriek,
orrelakoak dire
engañagarriek.

20/ Batxiste txiki ori
da Barabar'koa,
gizon fiñen ustean
falso tratatua;
orrek ere badaoke
zerbaten kargua,
obe zun eduki balu
geldik erlejua.

³ Bearbada, *kartaz aderazirik* bearko luke emen.

- 21/ Sekretario ori da
bada Imoz'koa,
aien aldetik zuen
orrek juezkoa;
dudarik etzegoan
gauze bidezkoa,
kausa ori pasatu zen
arrigarrizkoa.
- 22/ Mastru orrek eman zien
sue sasiari,
jakintsue bada ere
ezto asko nabari;
ibilli du eskrituren
gezurre ugari,
txerzai batentzat ere
bastante da ori.
- 23/ Zubiri orrengandik
lenbiziko boza,
irugarren trunkuetan
zer ziraien pasa;
bere buruarekin
konsidera beza,
zer motiboz geldiazi
zituen trabesak.

24/ Trabesak geldiazirik
ta apustura egiña,
orrek ematen dio
oñaze someña;
justiziarako emanik
bertatik enseña,
justizik zer kulpe do
oiek geigo ez egiña?

25/ Zubiri'k nasi zitun
partide ta trabesak,
eztabiltze oso onak
orrentzat jolasak;
egin nai zukian
nonbait interesak,
geigo da jendiari
jarri zion jolasak.

26/ Galdu-eta diruek
utzitzia pena,
ori da geienari
gertatzen dan lana;
Zubiri ori da naski
polsa ustu duena,
lanik aski darabil
ezin eramana.

27/ Sozionistek ziren
bat Sasena ori,
Garaikoa eta
bestia Zubiri;
erabilli duenak
dirue dantzari,
eskue aldatu dire
zenbait jokalari.

28/ Ogei ta zortzi bertso
badaude jarriak,
pasatu diren gisen
guziek egiak;
jendiak ekusi ditu
oien abilidadiak,
ola probatzen dire
desafienteak.

⁷ Bertso-papera, *Tolosa*: - *Imp. de E. López* moldizte-
gian argitara emana eta Oxford'ko Bodleyan Library'n
azaldua.

Egillearen izenik ez da esaten. Urterik ere ez.

(1903)

«AZPEITI'KO ERRIKO AIZKORA'APUSTUA...»

- 1/ Azpeiti'ko erriko
aizkora-apustua,
Jose Martin zan kontra
Antzumarri'kua;
Beizama'kua naiz ni
mendi-puntakua,
Pedro Mari Otaño,
Santa Ageda'kua.

- 2/ San Fermin eguna zan
señalamentian,
aizkoran jokatuba
intentzio fuertian;
faltsokeririk etzan,
ez, gure artian,
iñork esaten badu
beretzat kaltian.

3/ ^r lazara jua nintzan
ixil da serio,
lotsak bota, bestela
eztu an balio;
garaiena irabazi
prestatu nitzaio,
Antzumarri'k ontzakua
kontra desafio.

4/ Ontzakua preziso
biar trabesatu,
gure eskandalua
ortik aurreratu;
momentu artan nitzan
oso koleratu,
pakian neguena
bertan endredatu.

5/ Aizkorak artu eta
ebakitzen asi,
bost bat milla persona
ginduzen ikusi;
Jose Martinek ez du
tatxarik merezi,
geiago izan da
diot irabazi.

6/ Launa kana beteko
ginduzen tronkuak,
sarri ez dira ikusten
plazan olakuak,
zañak tiratu eta
ebakitakuak,
txalo jotzen zituben
jende publikuak.

7/ Antzumarri'k tronkua
ebaki aurrena,
baita gero ori nik
berriz bigarrena,
bentajan juan eta
baita ere azkena,
amaikari emana
biotzean pena.

8/ Aizkoran ari giñan
gu ia ituan,
aurrenengo tronkuak
txaluak zituan;
jende publiko danak
ezin kabituan,
amarretatik zortzi
kontra banituan.

9/ Trabesa doblatuan
asko ikusi nik,
komententzia plazan
alakua izanik;
noski ez da izango
damutu ez danik,
irabazita jasotzen
gero etzan lanik.

10/ Papera ta dirua
mingañetan bazan,
trabes asko egiña
kale eta plazan;
jokuba ere bastante
interesa bazan:
iru milla pezeta
zeñentzako izan.

11/ Aizkoran jokatuba
bear dan moduan,
guk biok alegiña
an egin genduan;
relojuen minutuba
eduki goguan,
nik ebaki nituan
larogei ta lauan.

- 12/ Egurak ebakita
ostatura segiran,
korrika juan nintzan
ezin geldituan;
Jose Martiñek ere
berak zuan partitu,
bentaja kendu nion
zortzi bat minutu.¹
- 13/ Aizkoran jokatu²
gu bi aizkolari,
oso langille ona
Jose Martin ori;
balio ez duanik
ez esan iñori,
irabazia kosta
Santa Agedari.
- 14/ Santa Agedak ez al du
onrarik merezi?
Orrelako markarik
ez du iñork ikusi;
ez dakienik bada
dezala ikasi:
jokatutako danak
ditu irabazi.

¹ Irakurlea oartuko zanez, bertso ontako puntuak ez dira alkarrekin ondo uztartzen.

² Zerbait falta da emen. Ziur asko, *jokatuak* bearko luke.

15/ Soziedadetik gera
alkarren lagunak,
jokuba jokatzeko
egin degunak;
dirua abundante,
biotzak bigunak,
edozeñek ez ditu
olako lagunak.

16/ Joakin Aldalur zan
gure ostalaria,
badaki gobernatzan
orrek aizkolaria;
kunplitu zuan beintzat
gure gidaria,
modu onean ziran
jana ta edaria.

17/ Intentzio zitalik
ez det iñorentzat,
gorrotua txarra du
bakoitzak beretzat;
alkar ikustia
tokatutzen bazat,
trago bat izango det
Jose Martiñentzat.

Sail ontatik, lenengo, iru bertso osorik eta beste bi erdizka jaso nituan Azpeiti'ko Loiola'n, Anai Labaka jesuitaren aotik: 1, 2, 13, 5'garrenaren atzeko erdia ta 14'garrenaren aurreko erdia.

Aldaketak: 1/2: aizkora-jokua; 1/3: Jose Martin det kontra; 1/5: ta ni Beizama'kua; 2/5: faltsokeria etzan; 5/7: geiagua dala ta; 13/1: Aizkoran jokatua; 13/7: irabazia kosta zaio.

Ortaz gañera, argibide jakingarri au ere eman zidan:

«J. M. Zubizarreta'k jarriak. Etziran orduan zabaldu, Santa Agedari aita il zitziolako ta atera etziralako.

Juan Maria Zubizarreta bertsolariaren bertso-liburua, *Auspoa*'ren 82'garrenean agertu zan.

* * *

Ondoren, or goien eskeñitako amazpi bertso oiek jaso nituan, artean ikasle zan Aita Daniel Baztarrika'k eskuz idatzita bialduta. Berak, Enrike Zurutuza Azpeiti'ko albaiteroaren eskutik zituan. Onek, berriz, Beizama'ko sukalderen batean kopiatuak, aiton baten aotik.

* * *

Santa Ageda ta Antzumarri aizkolari aue-ri buruz onela dio Jose Luis Iriarte'k bere

Gure erri-joku nagusiak liburuan, '38 orri-aldean: «... Elkar aurrez-aurre ikusi arteko onik etzuten, noski. Azkenean, beintzat, 1903'gn urtean erabakiko zan elkarrekiko auzia. Ez uste izan ain erabaki-erreza gertatu zanik. Iru bider borrokatu ziran. Gizandi bien arteko auzia etzegoan, berriz, edozein lan ariñen bidez erabakitzerik. Bieri ere lanik latz eta astunena atsegin zitzaïen. Eta kanako lau enborretara jokatzeko prestatu ziran.

Azpeiti'n neurtu ziran lenbizikoz, Kasino'ko pelota-lekuan. Jakintsuak etziran oker egon; geïenek uste bezelaxe, erabateko garaipena lortu zuan Santageda'k. Indarrez autsi zuen, bereziki. Gaiñera, amar urteren buruan ainbeste apustutan zaildua zegoan beizamatar txapelduna».

Azpeiti'ko lenengo apustu orren ondotik jarritako bertsoak ditugu auek. Ondoren, Tolosa'n jokatuko ziran, ta bai Azpeiti'n ere, 1926'ko abenduaren 26'an.

(1903)
BERTSO BERRIAK

- 1/ Milla bederatzireun ta iruban,
abendubaren zazpiyan,
aizkolariyak ziran Tolosa'n
itxura pollit askiyan;
egun artako pasadizua
esango'izutet itz biyan,
orlako asko ez da gertatu
eguzkiyaren azpiyan.

- 2/ Aizkolari bat Santa Ageda,
Atxunberri da bestia,
orrelako bi alde ontara
noski agertu eztia;¹
mundu guztiyak espero zuben
pruebak erakustia,
tronko batekiñ izandu dute
enredua ta nastia.

¹ Bertso-paperak: *ez dira*.

- 3/ Puska batekiñ atzeratzia
badakizute motz dala,
ez det esaten bat edo beste
deskuidatuba ez dala;
biyotza fuerte zedukan baño
ondo aldetik ustela,
zerratutako apostu ori
jokatuko zan bestela.
- 4/ Apostu ori ikusteatik
aurten Tolosa'ko plazan,
kanpotar utsa gutxiyenian
zazpi milla lagun bazan;
famatuenak jokatutzeko
anuntziyua nola zan,
makiña batek naiago zuben
mudantzik izan ez bazan.
- 5/ Amar t'erdiyetan zan bandua
aposturikan etzala,
publikuari gusto emateko
prueba bat egingo zala;
pake onian izateatik,
tokatutzen dan bezela,
trabesa egiñ duen guziyak
botiak jaso ditzala.

- 6/ Amaika t'erdiyetan asteko
lendabiziko banduan,
puskarik pronto jarri gabia
amabiyetan genduan;
atrasu ori izan dalako
ordu betez beranduan,
puntziyo ori pasako zanik
asko pentsatzen ez nuan.
- 7/ Asi ziran ta Atxunberri au
natural degu ikusi,
zergatik gizon onraduba dan
graziyak ditu merezi;
biyak igualak izan balira
emango zuten itsusi,
puska gañian ez du ibilli
bestiak aña fantasi.
- 8/ Atxunberri au errespetuan
ibillitzeko bat bada,
león-castillo galdu duenian
tokatzen zaion puscara;
kontrariyua zerbait esan ta
eragiñ diyo trukara,
toriatzeko gogua zeukan
inposiblia ez bada.

- 9/ Santa Agedak bere bi puskak
ditubenian ebaki,
aizkora artu bizkarrian ta
plazatik juan da aurki;
bestia berriz bukatu arte
aritua da egoki,
itxuraz nola ibilli diran
bistan zegonak badaki.
- 10/ Arbola ondotik ebakitzian
erremienta fiñakiñ,
zer klasetako ezpata duen
ezaguna da beñepiñ;
ekartzalliak ere bastante
tatxa badauka berekiñ,
ez dakit nola deskuidatu dan
giyarra duben orrekiñ.
- 11/ Pregonatu ta defendituak
publikuaren nasiyak,
onra obia erakutsi du
arratsaldian asiyak;
justiziyari eman zaizkagun
eskerrak eta graziyak,
bestela saltsa sortuko zuten
penetan zeuden guziyak.

- 12/ Zer kantidade jokatuko zan
apostu orrengatikan,
eziñ juzgatu liteke iñola
bertsolariyen platikan;
gizon franko engañatu dan
notiziya da ortikan,
obiaguak jakiñ biarko
laixter Azpeitiya'tikan.
- 13/ Santa Ageda oraingo ontan
ez dute oso gora iyo,
jendiak gaizki itz egiten du
jaun ori dala meriyo;
gaitz erdiya zan publikuari
gusto bat eman baliyo,
disimulatu nai zuben baño
kukuak oker jo diyo.
- 14/ Aizkolariyen portaziyua
orra nik adierazi,
batengatikan desonratzia
erriyak ez du merezi;
amar urtian buru zegonak
izan du naiko desgrazi,
bertso berriyak argatik dira,
gusto dubenak ikasi.

Bertso-papera, *San Sebastián. Imprenta de «La Voz»*, Errenteri'ko Jertrudis Arrieta zanaren eskutik jaso.

Apostu oni buruz onela dio Iriarte'tar Jose Luis'ek, bere *Gure erri-joku nagusiak* liburuan, 39 orri-aldean:

«...Alabearrez, jokutzen asteko une be-rean ezeztatu zuan apostua epailleak, enbo-rretako bat ustel eta eroa zala egiztatzean. Tolosa'ko zezen-plaza ordurako ikuslez zea-ro beterik zegoan. Eta berauek izan ziran de-ma ospatzea deadarka eskatu zutenak. Be-raz, trabesak deusezturik, jokatzeko baimena eman zuan jaurlaritzaren ordezkariak. *Atxu-marriya*'k bakarrik amaitu zituan lanak, lais-ter aspertu baitzan *Santageda* alperrikako jardunean.»

«MARTZO ILLAREN AMAZAZPIYE...»

- 1/ Martzo illaren amazazpiye
nue siñalatutzera,
Deba aldera juanda nitzan
sagarrak txertatutzera;
gero bueltan sartu giñaden
Jose Barruti'n etxera,
Elorrotsu zar orren orduko
erronkak aditutzera.

- 2/ «Orretarako preparatua
omen zaude ôiñ aldiyen,
zure erronkak entzuten gaude
jun daneko aspaldiyen;
pago koxkor bat kuriosue
badago gure mendiyen,
ebaki ezetz egingo dizut
ordu bete ta erdiyen.»

- 3/ Errespuesta eman dit kontu
ori aditu onduan:
«Ordu bete t'erdi gutxigi da,
nai al dezu bi orduan?»
Agure orren biguntasuna
ere ikusi nai nuan,
Jose Barruti testigu zala
jokua egin genduan.
- 4/ Mutriku'tikan ekarri degu
narra bat izugarriye,
eramateko juntatu're bai
beratzi iri-aldiye;
amairu oin da amar ontza du
erdiko bueltan neurriye,
gutxi kostata eztu egon bêt
Deba'ko plazan jarriye.
- 5/ Pago zar ori bota genduen
oso lurraren kontratik,
baita adarrak ebaki ere
trontza batekin ondolik;
jentia pranko auzo-lanian
saiatua da gogotik,
nai bezin laixter ezta eraman
artu dan leku artatik.

6/ Jokatutzeko egun orretan
etorri giñan Deba'ra,
aizkolariya etzan agiri,
aurrera ziyen denbora;
gerok kejatzen asiak giñan
orra amarrak ondora,
esan genduen: Baztarren baten
bildurrez or egongo da.»

Bertso auek, Azkoiti'ko Aginaga baserri-ko Estanislao Aldalur'en aotik jaso genituan. Esan zigunez, bertso geiago ere ba omen zitun sail onek.

Elorrotsu, Itziar edo Lastur aldeko baserri bat omen da. Garai batean, etxe ortan aizkolari bat izan zan.

Bertso auek, irakurleak ikusi duanez, egun batez apustua nola zerratu zuten eta ondoren zer gertatu zan kontatzen digute.

Tamalez, bertsoen egillea nor izan zan ez dakigu.

Orain irurogei ta bost bat urte il omen zan Elorrotsu aizkolari ori.

(1924)
BERTSO BERRIAK
MIGEL ARANBURU'K JARRIAK

- 1/ Milla ta beatzireun egunekin
ogei ta laugarren urtian,
bertso berriak jartzera nua
Gipuzkoa'ko partian.
Disputa bat daukagu aspaldiyan
bi aizkolari artian,
erabakitzeik eztagon gauza
alkar probatu artian.

- 2/ Keixeta ori aspaldin ai da
anunziyuak zabaltzen:
ori bezelako aizkolaririk
eztala orain azaltzen.
Arto berua bezela ari da
bere buruba famatzen,
orren erronkak Ayar txikiya
eztute asko bildurtzen.

3/ Azpeitiya'n e señale batzuk
oraindik orain bota ginduan,
iriste'eztanari itxogiteko
piskat itzegin genduban.
Orrek etzaukan olako konturik
epoka zegon orduban,
jaso ta saltoka eskapa egin digu
eskola-umian moduban.

4/ Munduba onetan granuja batzuk
len e badira izanak,
baño zuk ausi dituzula uste't
oraindañokuak danak.
Euskaldun batek bestiari egiteko
oiek eztirade lanak,
juiziyuen pizkik eztauka
ori egiten dun gizonak.

5/ Siñale oiekin berri ederrak
orain zabaldu ditu,
lenago ere zurrupatubak
amaika orla baditu.
Or jasotako eun pezta oiek
entregatzen ezpaditu,
Luzifer dagoñ barriyua ortan
danak pagatuko ditu.

- 6/ Arlitzeta da gizon bat ona,
ara Keixeta bestia,
oiek nai luke ni soziyora
pastela egitera sartzia.
Eta tontorik bada tartian
aien kuartuak biltzia,
kontzientziyak eztit agintzen
orrela ibillitzia.
- 7/ Urrutitikan desafiyoka
ezteu jardun biar alkarri,
bestela ere jakiten ditut
nik komeni ainbat berri.
Aizkora bana artuta biar¹
trunkuen gañian jarri,
erdi aukeran kapaz bazera
jokuba egitera etorri.
- 8/ Jokuba eginda berrogei egun
eskatzen ditu tartian,
prueba batzuk egiteagatik
gero biyen bitartian.
Mokaru on batzuk ere ez dira
gorputzarentzat kaltian,
nik itz oriek mantenduko'itut
urte berriyak artian.

¹ Bertso-paperak: *bian*.

- 9/ Nere mouko artzekuak ote
dauzkatzun
eman dirate aitzera,
gizonarentzat alderdi ederra
da orixe're zartzera.
Len irabazi danak kastatu
larru gorriyan jartzera,
bizi-moduban zu ere zuaz
ni bezelaxe atzera.
- 10/ Apostu-kontun zabilta beti
baztarrak lardaskatzera,
peskisa txarrak dauzkazu aspaldin
ez aurrera ta ez atzera.
Kulpik eztuna zertako asi
konpromisuan jartzera?
Bestela zabiltz Erniyo aldeko
ari motzen antzera.
- 11/ Ayar txikiya baijua orain
prueba bat egitera,
gusto dubenak etörri dedilla
Aia'ra ikustera.
Moduba onetan luzero egotia
neretzat oso kaltera,
milla pezeta pronto egongo'ida
nai duna etorri ontzera.

- 12/ Zumarraga ori're aiskidia
nuben oso lenago,
Goiarri'tikan desafioka
orain ori're or dago.
Ni ere berriz tentatu ezkeru
uzteko asmuhan ez nago,
etorri dedilla nere aurrera
baldin ortako badago.
- 13/ Anton Amure oidi saiatzea
Txikito bengatuzera,
baño ortatik alderdi aundik
eztu ekartzen etxera.
Ofiziyo ona daduka orrek
asten bat trabajatzera, *[sic]*
guardasol zarrak konpondu eta
eltziak alanbretzera.
- 14/ Chiquito de Aya beti izandu da
aizkolari ona ta abilla,
gañera iyota laister mozten du
trunko koskor biribilla.
Kaso alatsu izanagatik
aundixiogua ta salla,
sei arrobakua munduban bada
kontra atera dedilla.

15/ Gorputza gaizki ibillitzia
animarentzat kalte da,
bestela gero sartu ezkaitezen
etsai gaiztuen tartera.
Presto ta umil ibillitzia
guztiyontzako obe da,
adituzeko zai egongo naiz,
bueltak laister atera.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea,
Azkoiti'n jaio ta Zarautz'en bizi dan Patxi Larra-
ñaga'ren eskutik jaso.

Iriarte-tar Jose Luis'ek, bere *Gure erri-joku
nagusiak* liburuan, 60 orri-aldean, onela dio:

«Amairu urteren buruan apusturik eraba-
kitzeke egon ondoren, 43 urterekin zijoan
apustua jokatzera Jose Aranburu *Keixeta*.
Ayatar aizkolari gazte ta bizkor bat zan erronka
jaurti ziona: Leon Uegun. *Leon Txiki* ta *Aya'ko
Txikia* bezela ezagutzen zan.»

Desafioa bota, alegia; eta, itxura danez,
bertso auen bidez bota ere.

Izenburuak egillearen izen-abizenak ema-
ten dizkigu. Bañan Migel Aranburu ori nor izan
zan ez dakigu.

(1925)
BERTSO BERRIAK

1/ Milla bederatzi egunekin
oi ta bosgarren urtian,
bertso berriak jartzera nua
Euskalerriko partian;
aizkora-apustu bat jokatu da
kostako erri batian,
larri izan dira jendian sosak
ondo zurrupatu artian.

2/ Bizkaia'n egin tratua eta
Gipuzkoâ jokatzera,
tratalari batek ikusi zitun,
ark eman zuben aitzera;
giza-legiak danak aztuta
bartzarrak kakaztatzerá,
ola ibiltz'ezkeoz zertako jua
elizâ konpesatzera?

- 3/ Bat txuripano enterua ta
bestea indianua,
bestia berriz jaiotzatican
bitz puru negritanua; (*sic*)
oien artetik ateria da
postura ortako planua,
zer giza-lege egin dituzten
publikatutzera nua.
- 4/ Gizon oik biyak asi ziraden
aizkoran jokatzera,
zarra bastante aurrera eta
gaztia al zuana atzera;
lenago zuren zekin trunkotan
akuerrak ateratzera, (*sic*)
berriz e jokua galduko dezu
orla jokutzen bazera.
- 5/ Azpeitiar ori formalago da
askoz Aiatarra baño,
orrek sikira lanian jotze'u
talentua dubeneraño;
beste oi berriz gaiztoago da
inpernuko etsaia baño,
an ere obiak izango'irala
esate'ute oi baño.

- 6/ Oriyek kostan legorretikan
arrantzan ikasi dute,
balia baño aundiagoko
arraia arrapatu dute;
laurdendu eta gero ixilikan
poltxikuan sartu dute,
atsuak ez dute erritan eingo
oriyek kastatu arte.
- 7/ Amabi ta erditan jua ziran
arraia arrapatzera,
ordu bata ta berrogeian bat
seguratu ta etxera;
nola egin zuben etxo aundiya
aditzera ematera,
biyamunian usandu etzedin
Tolosa'ra partitzera.
- 8/ Tolosa'n partitzen asi ziran
siglo sekreto batian,
gizona sartu akordatu be
atzeko aldetik atian;
ark esan zuben: «Guk ez dakigu
gauza oi nola litekian:
jokua galdu, patrika bete,
bi atzaparrak betian».

- 9/ Gizon beltz txiki gaizto bat bada or
mendiko etxe zar batian,
purrukatzeke pozak dabiltzá
gau-giro illun batian;
ola ibilli ta oi sartzen bada
zeruetako atian,
gu ere aixá sartuko gera,
lasai ibilli gaitian.
- 10/ Ori're kosta ortara juan zan
arraia seguraltzera,
ango ur gazikin frotatu eta
musu beltza txuritzera;
iya txukuan sartu omen zuten
andik zetorrela etxera,
begiratu alaia egingo dezu zuk
an jartzen baldin bazera.
- 11/ Andria onek emakume ona du,
bera baño askoz obia,
gizonak ondo gobernatzeko
kunprimenturik gabia;
otordu ona seguru eta
kafia berriz obia,
a zer nolako mundu-aldiya
entrañak sano badia.

- 12/ Olako ariyak urruz bat bian
kastak aituko ez badia,
uste't jatorrak izango diala
orren moukuak badia;
aik ere zuzen egin biarko dute
pensatzen duten idia,
orrelakuai esaten zaio:
gaizto ajolik gabia.
- 13/ Alperrak beti azkenerako
béstei pegatzeko idia,
zerebait ere pentsatu biar
orla biziko badia,
goiko jokalarik eta bekuak
oainguan kontentu dia,
naiago nuen oain berrogei egun
Paris'a juañ balia.
- 14/ Txikito de Aya pizkorra da oso
berak pentsatzen dunian,
oraingo ontan etzun jardun nai
bere itxuran lanian.
Asko egiten zertako jardun
gutxi komeni dñian?
Apraeta jazteko silla biarrik
eztu izan azkenian.

- 15/ Gizon gazte orrek esaten zuben:
«Eskutatik nô alrebes.»
Zarrak odola tan-tan botatzen zun
ta gaztiak batere ez;
publikuari nabarmenago
adarra jotzen ez da errez,
ondo dagan zenbat famili
gelditu ote da negarrez?
- 16/ Oriyek azkar gertatu dia
bestiak tontuak balia,
oriyek uste duten aldian
asko akordatu dia;
gizonak ez-ezik atsuak e
erritan gogor jardun dia,
len aña jende ez da juango
berriz jokutzen badia.
- 17/ Oixe bear zan aurtengo sagar
diruak pullan jartzeko,
oik erratuta zertako zian
sagu arratoientzako?
Gaiztuai beti utzi pakian
lana ondo manejatzeke,
kolpia egin da majo jarri da
atsuakin jostatzeke.

Bertso-papera, *Navarro y del Teso-Tolosa* moldiztegia argitara emana eta Gregorio Mujika zanaren bilduman arkitua.

Aizkol-apustu ori Keixeta eta Aia'ko Txikiak jokatu zuten, 1925'eko Otsaillaren 22'an, Zarautz'ko Zinema pelota-lekuan.

Apustu onetzaz, Iriarte'tar Jose Luis bere *Gure erri-joku nagusiak* liburuan mintzatzen da, 60 orri-aldean. Baita Rafael Agirre ere bere *Juegos y Deportes Vascos* liburuan, 138 orri-aldean.

(1927)
BERTSO BERRIAK
NAPARRO'KO ERRI BATEAN JARRIAK

1/ Asi baño lenago
guzia azaltzen,
nagusien baimenaz
nik dut bai galdetzen;
lgoa'n bazutela
didate esaten,
bate bildurrik gabe
nua bai kantatzen.

2/ Milla bederatzi eun ta
ogei ta zazpian,
apustue jokatu da
lgoa'ko errian;
jende abiatu da
balore aundian,
trabesa azkar egin da
oraingo aldian.

- 3/ Aizkoran egin dute
joan dan Otsaillean,
eguna ere esan daigun:
ogei ta seiean;
diru eta papera
bazabil aidean,
gero zer pasako zan
iñork etzekian.
- 4/ Apustua asi zan
egunan erdian,
testigu azkar bazen
an aldamenian;
gaztiak eraman zion
lenik bueltatzian,
bañan zarra aurrera
danak bukatzian.
- 5/ Bigarren trunkun zarra
asi zan aurrian,
bañan gaztiak eraman zion
uraxen bukatzian;
orduko oiu eta irrintzik
geiegikoak zirean,
sekulan gizonik ez
geroago ondorean.

6/ Irugarren trunku ortan
deskuido aundie,
gaztiak lana egin da
zarrantzat auzie.
Galdu duenak nola artu
orain pazientzie?
Ondorenguan kontu obian
jokatzen al dire.

7/ Laugarren trunku ortan
eztakit zer esan,
sokan barnian jende
geiegi sartu zan;
irabazi naiean
denok bai arrantzan,
gaztiaren aldekoa
galdun gelditu zan.

8/ Boskarren trunku ortan
zarra bai asi de,
asiera bezala
eman despedide;
jendea aldamenean
bazegon begire,
zarran alde ziranak
konsolatu dire.

9/ Ogei ta lau urtetan
ez naiz allegatu,
aizkoran dirurikan
ez nula jokatu;
orreatatik oraintxen
nai nuke azaldu
apustun diru asko
etzala zabaldu.

10/ Nunai izaten dira
naigabe aundiak,
jokatutzearekin
dirutza aundiak;
ona bear bezela
agertu egiak,
alaxen agintzen du
Jesusen legiak.

11/ Arraras'ko mutillak
lgoa'n jokatu,
ez dakit egun artan
zer ote zan gertatu;
obe zuten errian
bazuten jokatu,
beñere orlakorik
ez dedin gertatu.

12/ Berriz apustu ori
jokatutzen bada,
Arraras'en eitea
kontseju ematen da;
bakotxak bere etxean
lasai aritzen da,
ordun obekiago
ezagutuko da.

13/ Aundiaren kolpeak
lotsaturik oso,
txikiaren alde ein
dira diru asko;
naiz kolpia bakan izan
gogor eta eroso,
mutil orrek izena
goi-gora du jaso.

14/ Aizkoran ongi ari da
mutille gaztia,
bañan gertatu zaio
ez irabazia;
orain gertatu balitz
ez aterazia,
laister izango luke
berriz jokatzia.

- 15/ Trabesak egin dira
bentaja aundian,
bai eta batzuk ere
oso berdiñian;
gaztien aldekuak
beti geiaguan,
galduz gelditu dira
gero atzenian.
- 16/ Ogei duro amalaubei
egiten zutela,
nik ikusi bainuen
begira negola;
lagunek ereiztean
sobra jotzen zuela,
etzuen ukatu nai
ala egin zuela.
- 17/ Amazazpi bertsoak
noski aski dire,
alaxen ematen dut
orain despedide;
nere burua asko
nekatzen ari de,
aprendiz batendako
naikoa badire.

Bertso-papera, *E. López'en etxean.-*
Tolosa moldiztegian argitara emana eta Gre-
gorio Mujika zanaren bilduman azaldua.

(1927)
«OLERKI AUXE ABESTUKO DET...»

- 1/ Olerki auxe abestuko det
oldozten asi naizenez,
mandatu ori artu baidet nik
neri lagunak emanaz.¹
Naiz eta nere gogoia beti
onetarako izan ez,
oraingo auek jarriko ditut
al badet bide zuzenez.

- 2/ Lengo batian ikusi degu
joko polita Arrua'n:
egurra zeñek geigo ebaki
bi ordubeten barruan.
Jendia pranko bazan begira
aldamenetik korruan,
galdu zutenak apenas dauden
entero lasai barruan.

¹ Guk erantsia da *neri ori*, neurria osatzearren.

- 3/ Tokatu zaigu zerraz egurra
ebakitzen ikustia,
Mardaitar oien gogokua zan
Arrua ontara jextia;
aldez aurretik erabakiya
demanda irabaztia,
akaso oiek usteko zuten
jokotik aberastia.
- 4/ Mardaitar oiek plazan erdiyan
lanian gogor jo zuten,
onenak ainbat egur ebaki,
ia sinisten dezuten!
Eta gaiñera beste ainbeste
erraz ebakiko zuten,
bestiak bezin azkar ta ondo
zerra zorroztu bazuten.
- 5/ Indar onakiñ jua ziraden
oiek egur ebatera,
balio dutenak dirala
agiriak ematera;
orretarako jarriya zuten
irutatik bi aukera,
iru oietan zerran onena
alare ez da atera.

- 6/ Lenago oso bero ziranak
oztuak dira urian,
ezagun batek neri esana
lengo batian gurian:
«Ollo salda're etzetik artu
gero erateko ustian,²
ta arekiñ ere txit zori txarra:
ontziya autsi birian!».
- 7/ Lenago beste baso koskor bat
artzeko ziran prestatu,
ogei ta bi errial esanda
ogei ta iru eskatu.
Gero bestiak artu zutela
etzitzaioten gustatu,
urtebeteko laiñ bazituzten
oiek ainbeste deztatu.
- 8/ Meza batera juan da zuten
izketa orri ekiña,
oriatikan pena zutela
auxen da gauza jakiña;
bestiak ura kendua damu
oien epurdiko miña,
ara ba oraiñ etxera berriz
eraman duten propiña.

² Puntu au ez da besteekin ondo uztartzen. *Idian* edo *irian* bearko luke.

9/ Egurra atzurtu egin dutela
oietako batek esan du,
ura berari bestek kendua
barrendik pena izan du;
obe zenduke aiek baiño're
lenago artu bazendu,
atzurrik gabe labaiñ da zuzen
azkar ebakiko zendun.

10/ Izketa pranko ibilli dute
lagun urkuen kaltera,
bide oieri utzita guazen
Jesusen borondatera;
bestela emendik zer datorkigun
oraiñ kontuak atera.
Marka aundiya egiñ nai zunak
len e bazuen aukera!

Jose M. Makazaga

Amar bertso auek, *Argia* astekarian agertu ziran, 1927-IV-17'an.

Azpian, firma bezela, izen-deitura auek: *Jose M. Makazaga*. Bertsoen jartzallea izango da, nor izan zan ez badakigu ere.

(1928)
BERTSO BERRIAK
AIZKORA-APUSTUARI JARRIAK

- 1/ Aizkora-apustu bat
jokatu da aurten,
Tolosa'n izan gera
ori ikusten.
Buelta bat egin gabe
nork du ori uzten?
Gaztetatik asiak
aizkoran ikasten,
asi naiz esaten,
aditzera ematen,
ezta errez izaten,
bentaja eramaten,
diferentzi aundirik
noski etzuten.

- 2/ Beizama'kua bat,
bestia naparra,
erriaren izena:
Uizitarra.
Tolosa'n jokatu da
apustu ederra,
erakutsiak dira
nork bere indarra;
esango det orra,
txit mutil gogorra,
egin duen obra
ona dala sobra,
bañan bitorioso
probintziarra.
- 3/ Apustua zerratu ta
ondorian gero,
napar oiek zebiltzan
gogotik bero.
Esanaz: «Au etxian
zeukagu seguro»,
depositatu dute
makiña bat duro.
Golpia lijero,
etzeguen giro,
etzeguen giro,
bentajan aguro,
ezagun zan klaro,
Naparrua'n etzuten
ori espero.

4/ Apustua jokutzen
ziranian asi,
biyak onratutzea
dute merezi.
Etzuten jokatua
interesa gutxi,
sei milla pezta ziran
artu edo utzi.
Joan orrek eutsi,
orrek lendabizi
bentaja erakutsi
eta irabazi,
plazan ezagutu da
zein dan nagusi.

5/ Joan Oiarzabal da
Ansorena ere,
ezta esan biarrik
onak dirade.
Txit indar aundikuak
dudarikan gabe,
biyak egin nai zuten
banderaren jabe.
Esatia obe,
dudan zeñen alde,
bildur giñan gu're,
seguru beñere,
eztet uste indarrik
dutenik gorde.

6/ Oriek ikustera
Tolosa'ko plazan,
ezta esan biarrik,
jende asko zan.
Guziak ikusi nai
ederrena nor zan,
nola portatu diran
biar nuke esan.
Animua bazan,
aizkoraren otsan,
gogotikan jo zan,
peligrua or zan,
ederrena aguro
ezagutu zan.

7/ Aizkolari ederra
Ansorena ori,
ezta esan biarrik,
ala diruri,
begiratu besterik
eztago berari,
garai batian orren
alde giñan ari.
Esan nai danari,
berriz ere ori
egin al baledi,
iruditzen neri,
diferentzi aundirik
ezta agiri.

8/ Gero ta estuago
etorria lana,
au da jeneralian
gertatzen dana.
Aizkolari ederra
Santos Ansorena,
naparrak gustatuta
zeukaten onena.
Ori ona izana,
bazuen afana,
ainbeste persona
begira zegona,
penaz gelditu biar
galdu zuena.

9/ Preparaturik biak
jarri ziranian,
etzan atsegin oien
aldemenian:
nor bere aldetikan
gogotik lanian,
bentaja gutxirekin
berdin geienian;
apustu danian
txit modu onian,
ikusi zanian
kasik berdiñian,
norbaitek biar zuen
bai azkenian.

- 10/ Preparatutzen biak
egondu baitzian,
formalidade aundiz
beren itzian;
nor bere aldetikan
bai segurantzian,
ala egondu gera
denbora luzian.
Apustu guzian
saiatuak zian,
eskasak etzian
nere iritzian,
galdu dunak penia
du biotzian.
- 11/ Galduagatik, Santos,
ezta zer esanik,
gañera lagun txarra
izan zeranik.
Gipuzkoa'n jokatu
orren estu zanik,
eztet uste bizi dan
ikusi duanik.
Lagunak izanik,
zure onra onik
galdu nai degunik
ezta euskaldunik;
zu ondo ikustia
desio det nik.

12/ Orain arte bezela
pakian konpondu,
gizonak ederrago
bai ematen du.
Diferentzi aundirik
eztute izandu,
esperatutzen zana
batek eraman du.
Nai diet lagundu,
nik baldin al banu,
alkarri umildu,
berriz ere bildu,
Tomas Zaldibitarrak
desiatzen du.

Bertso-papera, *Beasain'en L. Zunzunegi-
'ren etxian, 1928'an* argitara emana eta Gre-
gorio Mujika zanaren bilduman arkitua.

Apustu onetzaz onela dio Rafael Aguirre
Franco'k bere *Juegos y Deportes vascos* li-
buruan, 144 orri-aldean:

*«Aizkolari de prodigiosa fuerza y gran de-
sarrollo muscular fue Juan María Olazabal,
de Beizama, protagonista de una de las más
espectaculares pruebas celebradas. Tuvo lu-
gar en Tolosa, el 20 de mayo de 1928, compi-
tiendo contra un gran campeón navarro, de
Huici, Santos Ansorena, sobre 4 troncos de
72 pulgadas; 4 de 54 y 4 de 36. Ganó Olaza-
bal en 58 minutos y 20 segundos. Uzcudun
quiere llevarse a Juan María Olazabal para*

hacer de él boxeador en América, pero su familia se opuso a ello.»

Irakurlea oartuku zanez, emen *Olazabal* da bertsoetan *Oiarzabal* esaten zaio. Abizen jatorra zein dan ez dakigu.

Tomas Zaldibitarra omen da bertsoen egillea, saillaren bukaeran esaten zaigunez. Tamalez, bertsolari orretzaz ez degu orain artean ezer ere ikasi.

ERRONKAK

1/
.....
.....
.....
.....
.....
..... izat,
..... izaten ditu
kasketa izugarriyak.

2/ Jaun Zerukua, laguntza eske
asiya naiz zuregana,
konbeni bada argitasun bat
bialdu zazu nigan;
gizon ori da erronka aundiyak
lenago jo dituana,
desafiyoka jardun da gero
atzera egin duana.

- 3/ Azkoitiya'ko semia naiz ni,
baserrin jaio ta aziya,
kontrariyo au zer langille dan
askok dauka ikusiya;
alabantza batzuek nigandik
ori dago mereziya,
bildurrik gabe jarriko diyot
gertatu zaidan guziya.
- 4/ Burla ta desaidiak egiñaz
beti zitzaidan asitzen,
izenik gabe erraza dago
zein dan adierazitzen:
Azkoitiya'ko Santa Kruz'tikan
ez da aparte bizitzen,
aizkorarekin baño mingañez
obeto daki luzitzen.
- 5/ Ixilldu gabe beti ari zan
izanik mingaiñ zabala,
diru-pantasi izugarriyak
nunai jotzen zituala;
esanaz ortzaz gora aguriak
bere kajoian zeuzkala,
lagunak falta zitubela ta
eramatia neuzkala.

6/ Arrokeriyaz oiek kontatzen
or zebillen jai ta aste,
nik orrelako buru gogorrak
umiltzen badakit laiste;
bestek dirurik zeukanikan
nunbait etzenduben uste,
zure agure aiek lagunak
denboraz izan dituzte.

7/
.....
.....
.....
.....
.....
.....
zure
nunbait bildurra
biyotz guztiya

8/ Biña mill
bear gen
señalia
esan gu.....
jokatzek.....
reuma zo
pago ede
zertan et

- 9/ Apustu
 nere alde
 alkar proa
 gerade zur
 amaika bider
 dizugu zere ar
 bost arruako
 ez dizula inportika
- 10/ Zure kontubak zerbait esaten
 aurrera biet segitu,
 oso politak izango dira
 nai dezutenak aditu;
 zortzi illabete aurreti zan
 gobernatutzen abitu,
 bitarte ortan tripazai orrek
 bazterrak konpondu ditu.
- 11/ Bear ez diran kontua franko
 zuk badauzkatzu esanik,
 guk ez diyogu iñon aditzen
 orri arrazoi zuzenik;
 apetitua ederra dauka
 izan ezkerro gauz onik,
 okel da arrautz jaten ez dago
 zu bezelako gizonik.

- 12/ Ondo dakigu tortilla jaten
artarakua zerala,
etxeko egaztiyenak tripan
sartzen ziñun beriala;
egun batian aditu nuen
zuk esaten zenduala:
andriak arrautzen preziyua
jakin biarko zuala.
- 16/ Usteko dezu lan ortarako
ez daukadala indarrik,
nik bezin erraz ez dezu iñon
zuk ebakiko egurrik;
erronka eta bulla guziyak
izango dira alperrik,
nai dezunian etorri zaite,
ez daukat zure bildurrik.
- 17/ Nik kargu artuko nizunikan
zuk etzenduen pentsatzen,
gaizki esaka asi ezkerro
asko dirade mintzatzen;
orla dabiltzan aundi-naikuak
iñoiz badakit zentzatzen,
gaur etzera zu gauza neretzat
plazan aizkora dantzatzen.

18/ Orren berriyak papera ontatik
biar nituzke zabaldu,
desafiyoka ala jardun da
gero señaia galdu;
bertso berriyak orri jarrita
oraiñ al baditut saldu,
ez izan gure errukirikan,
errespuestak bialdu.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea,
Getari'ko Garro baserrian eskuratua.

Papera puskatua dago. Ori dala-ta, iru
bertso falta dira: 13, 14 ta 15^{garrena}. Ta
beste batzuk erdizka daude. Oien utsuneak
puntuz idatzi ditugu.

Aizkolari batek beste bati botatzen diz-
kion erronkak dira bertso auen gaia. Ta biak
azkoitiarrak ditugu, 3 eta 4^{garren} bertsoeta-
tik ageri danez.

Bertsoak nork jarri zituan ez dakigu; ez-ta
zein urtetakoak diran ere. Bañan, paperaren
eta letraren itxuragatik, gerra aurretakoak
izango ditugu.

Paperaren beste aldean, Txirritaren ber-
tso-sail bat dago. Ikus: *Auspoa* 101-102, 136
orri-aldean.

(1936)
BERTSO BERRIYAK
KEIXETA'RI JARRIYAK

- 1/ Urtiak milla bederatzireun da
ogei ta amaseigarrena,
ta ilbeltzaren bostian zer zan
esan dezagun aurrena.
Azpeiti ontan omenaldi bat
Keixeta aizkolari orrena,
jokua dala antziñetatik
usarioz datorrena,
merezi dunà alabatzia
ez da izango txarrena.

- 2/ Bi izenekin erri bat dana
Urrustil da Azpeitiya,
Jose bertako naturala da,
Keixeta izengoitiya.
Aizkorarekin egurra ebaitzen
indartsu ta erokiya,
urte askotan txapeldun edo
gaiñeko mailla eukiya,
sakon ori da orrelakuak
azitzen diran tokiya.

- 3/ Plaza ta baso ibilli dana
batekotikan besteko,
talentutsua izen dalako
jokuak irabazteko;
opiziale ona bera ta
besteri erakusteko,
pertsonek gogoa badu
gizon ori ikusteko,
oraindik ere lastima dana
edozein moduz uzteko.
- 4/ Batzuek gutxi pamarren
gizon apustulariya,
bañan nolabait bizi ber dala
esan dezagun egiya;
len gutxiago, orain geiago
nola dan nekazariya,
bere denboran lanterri asko
ostian erabiliya,
pin saiatuta sostenituba
bera eta familiya.
- 5/ Pamak aldia nola dadukan
txartuban edo onduan,
askok egiten duten bezela
golpez eman da kenduan,
mingaña neurritz dantzatzia obe
tokatutzen dan moduban,
orretzek ainbat utsegite geuk
askok egingo genduan,
ezertan ere paltau gabarik
iñor al gaude munduan?

- 6/ Zertako dira erronkak eta tranpak eta maleziak?
Ez du balio lana egiten edozein moduz asiak.
Lagundu biar osasuna ta Jaungoikuaren graziak,
berrogei joko inguru ori baditu irabaziak,
jakin dedanez geienak edo jokatutako guziak.
- 7/ Orri txapela kendu nayian eiten ziranak abitu,
abilidadez edo suertez danak azpian kabitu.
Berorrek ere saiatu eta irabaziak baditu,
esango zuten plojotasunez ein izen balitz nagitu,
baiña Keixeta piña ez danik sekulan ez det aditu.
- 8/ Azio oiek eingo badira talentuak e biaitu,
ogei kana erdiko moztua dago, ez det gutxitu ta geitu,
irurogei ta sei minutuan; berriz nork ebakiko ditu?
Amalau kilometro laisterka lan erdietan segitu,
marka aundiago egingo zukena bestia ez bazan gelditu.

- 9/ Aia Txiki ta Mendaroarra ta
emen asko kontrario,
danak jokatu, berdindu ezin,
iya zer erremerio.
Andik urrena Aia Aundiak
Tolosa'n jokatu dio,
luzaro artako gobernatuta
jendia oso zan pio,
lana galanki egin bai baña
orrentzako ez balio.
- 10/ Berrogei ta lau urte zeuzkala,
baliente zeguan da,
kolpez ondatu zerra batian
eskua moztu zuan da;
orrek zedukan altutasuna
nunbait ezin eramanda,
naparrutarrak laister ziraden
desapiua eman da,
ango onenari garbitu zion
Tolosa'raño juanda.
- 11/ Sasoia ala eta gorputza
gutzizko indarrekua,
momentu baten gertau zitzaion
suerte okerrekua:
eskua moztu, trixte gelditu
naiz izan ezkerrekua;
baldin jenioz izandu balitz
oitura alperrekua,
bide-ertzian eske jartzeko
tamaña ederrekua.

- 12/ Mundo onetan gertatutzen da
bost gauza penagarri ta,
alde aurretik ez da jakiten
etorkizunan berri ta,
nolako palta egin zitzaion
ikusten degu sarri ta,
esku motxari aizkol-kertena
iñola ezin ezarri ta,
jokatzen zuben uela edo
aparatua jarrita.
- 13/ Gauza preziso ikasi biar
izango bada jakintsu,
atze-errietako jendiak ere
ori eramaten dizu;
gizona ondo juzgatutzeko
neurri, talentu ta pisu,
orrek ainbeste eskarmentu ta
abilidade badizu,
gaur argatikan ezagutzen da
aizkolariaren maisu.
- 14/ Nola plazetan egiten dituzten
marka ikaragarriyak,
zarrak bajatzen diranerako
gaztiak daude jarriyak,
naiz astun izan dantzatze'ituzte
altzairu eta arriyak,
len bezelako ondra eduki
dezaten euskal erriyak;
beragatikan para ditugu
amalau bertso berriyak.

Bertso-papera, *Imp. Macazaga - Rentería*
moldiztegian argitara emana eta Azpeiti'ko
Joxe Agirre bertsolariaren eskutik jaso.

Lenengo bertsoak dionez, omenaldiren
bat egin zitzaion Keixetari Azpeiti'n, 1936'ko
Iibeltzaren 5'an.

(1966)
BERTSO BERRIAK

- 1/ Apustutxo bat jokatu zaigu
Donostiya'ko partian,
jendia ere ikusitzeko
zeguen borondatian;
irabaziyak mejora eta
galduarentzat kaltian,
disgusto ederrak artuak ere
izango dira tartian.

- 2/ Karro batekiñ presentatu zan
txorrokilleruen gisan,
berak nai zuen toki guzira
buelbaka an ibilli zan;
kezka gaiztorik gabetandikan
presentatu zaigu plazan,
etorri baño sasoi obian
berriz etxera juan zan.

- 3/ Esplikatutzen astera nua,
aditu nere esanak,
mundu guziyan zabaldu dira
Polipaso orren famak;
nekatu gabe egin dizkigu
gure lagun zarrak lanak,
Napar aldeko koarto pizarrak
bildu ditugu geienak.
- 4/ Mundua ontan denak nai degu
indarra eta abiltza,
arengatikan ateratzen da
bonbiyua eta itza;
lenago ere Gipuzkua'n zan
aizkoralariyen giltza,
gu ez gaituzte menderatuko,
alper-alperrik dabilta.
- 5/ Zartu ezkerro sartu ziñaden
aizkorarako arretan,
makiña batek esaten zuan:
«Ez dabill leku txarretan!»
Desapiyua pagatu dezu
gelditu gabe zorretan,
negar ederrak utzi dituzu
Napar aldia orretan.

- 6/ Polipaso au azaldu zaigu
baliente ta bapua,
berrogei urte kunplitu eta
irabazi du jokua;
len e Ernani'ñ gizon bat bazan
kontrariyo gabekua,
orain zuk bete bearko dezu
Eltzekondo'ren lekua.
- 7/ Gobernatzeko billatzen ditu
oso leku erosuak,
Aldanondo'ri etzaizka falta
txuleta ta ollaskuak.
Zenbat enpeñu izan ote du
zure andregai gaxuak?
Kozinera orrek eman dizkitzu
zuri mokoru goxuak.
- 8/ Bakoitzak geren martxari zuzen
bier diyogu segitu,
kariño aundiyan dagon lekuan
al bada ondo serbitu;
berriz ere zuk kozinera orri
obe diyozu segitu,
esposatuta birajerako
etzera gaizki gelditu.

- 9/ Orain bost urte eman niyuen
lantegi oni asiya,
ofiziyua seguratu det,
daukat ondo ikasiya;
oraingua ontan ikaratu det
Naparro alde guziya,
berriz eztira atrebituko
neri ematen auziya.
- 10/ Neskaxa ori orain arte zuk
etzenduen ikusiko,
aizkorarikan izan ezpazan
sekula etziñan asiko;
ondo portatzen balimazera
orrek etzaitu utziko,
andre ederra artuko dezu
zere denbora guziko.
- 11/ Apustua ori izandu degu
askorentzat pozgarriya,
jende guziya ikusitzeko
zefon zoratzen jarriya;
Polipasoren gorputzak dauka
indar ikaragarriya,
orren aurrera etortzen danak
dauka ixtillu gorriya.

12/ Gipuzkoano eta Naparrak
denak anaiak gerade,
elkarri ondo eginda emen
bizi bier da gerore;
Berekoetxea gizon motela
etzan azaldu bera're,
ni juez eta zu sekretaio
oraindikan ere gaude.

Bertso-papera, «*Gráficas Hernani - N. R. S.S. 87/66* moldiztegian argitara emana eta Migel Arozamena bertsolaria zanaren esku-tik jaso.

Aizkol-apustu au, 1966 urteko Ilbeltzaren 23'an jokatu zuten Polipaso'k eta Berakoe-txea'k.

Apustu onen txeetasunak jakiteko, ikus: Iriarte'tar Jose Luis: *Gure erri joku nagusiak*, 84 orri-aldean; eta Rafael Aguirre Franco: *Juegos y Deportes Vascos*, 166 orri-aldean.

KORRIKALARIAK

(1928)
BERTSO BERRIYAK

- 1/ Bertso berriyak ateratzeko
lenguan esan dirate,
Azpeitiya'ko korrika-apustu
ori dala mediante;
egon zaitezte pasadizuak
zer diran aditu arte,
irabaztunak pozak dabilta,
galdu duenentzat kalte.

- 2/ Otsaillaren ogei ta seian
jokatzen ziraden asi,
asko ankezko azkarragorik
iñon ote da ikusi?
Biyak galanki saiatu dira,
ez dute egin itxusi,
baña Azpiroz Azkue'kuak
azkenian irabazi.

- 3/ Jokatzeko aurretik doblían
izanduba da trábesa,¹
esku-aldatuba izango da
makiña bat interesa;
zenbat diru egin dan jakiten
ez dago oso erreza,
irabazita daukan guziyak
ondo aprobetxa beza.
- 4/ Azpiroz eta Aizarnar ori
Azpeiti'n jokatu dira,
amalau kilometruan egin
dute guztizko pelira;
Azkue'rekin diruba franko
irabaziyak badira,
orrelako korrikalariyak
Gipuzkua'n gutxi dira.
- 5/ Azkue'k anak ariñak dauzka
eta indarrak biziya,
gutxiyenko bost apustura
baditu irabaziyak;
ondo portatu dalako orrek
merezi ditu graziyak,
arriturikan utzi zituen
begira zeuden guziyak.

¹ Bertso-paperak: *izandu bada trabesa.*

- 6/ Korrika-apustura orretan
bazan jendia ugari,
zer mesedia egin diyoten
Azpeiti'ko erriyari!
Jan da eran lasai emanak dira
ara jua diradenari,
propina onak utzi dizkate
ango tabernariyari.
- 7/ Saltakari onak daude oiek
bata bezela bestia,
Aizarnar orrek nunbait nai zuen
Azpiroz ori austia;
emeretzi urte omen dauzka,
oraindik dago gaztia,
Aiaarrentzat orren indarrak
oraiñ iristen ezia.
- 8/ Leku askotatikan jendia
Azpeiti'ra zan etorri,
zar eta gazte diru jokutzen
aguro ziraden jarri;
bi aldietatik esperantza
aundiya zan izugarri,
Azkue'gatik diruba pranko
etxera degu ekarri.

- 9/ Apusturako lanak askotan
bera jetxi edo iyo,
ai Juan Manuel Azkue'kua,
ez dezu gutxi baliyo;
Aizarnar ori bere aldetik
izan biar zuen piyo,
ustez seguru egonagatik
kukuak oker jo diyo.
- 10/ Berriz Aizarna'k egiten badu
desafiyo jokatzeko,
ez det uste egongo danikan
Aiaarra ukatzeko;
apusturak izaten dirade
irabazi ta galtzeko,
Juan Manuelen biarra bazan
lengo faltak osatzeko.
- 11/ Iru probintzitako jendiak
ikusten izan geranak:
Gipuzkua, Bizkai ta Naparrak
trabesen jardun diranak;
arrisku aundiya izaten du
apusturetako lanak,
kaskuari atz egingo diyo
utsikan gelditu danak.

- 12/ Aia aldian diruba franko
irabaziyak badia,
arriskatzeko duro batzuek
jende kupira gabia;
milla pezetako ederrak or
esku-aldatubak dia,
gora Azkue eta lagunak,
ederki portatu dia.
- 13/ Motibo aundirikan etzuten
guretzat kantak jartzeko,
Aizarna aldeko kontu oiek
gaude goguan artzeko;
nunbait bildurrik ez dauka orrek
orain kartzelan sartzeko,
baña alrebes gertatu zaio
bertso berriyak saltzeko.
- 14/ Aia'n baserri etxe batian
egin dute banketia,
nunbait nai zuen bere lagunai
jan da eran ematia;
nagusi orrek askorentzako
zeukan borondatia,
joko orretan poltsa ederki
izan biar du betia.

15/ Orra korrika orren kontubak
nik zerbait adierazi,
len kankak jartzen jardun dan orrek
onenbeste du merezi;
ustez seguru zuten jokua
juan zitzaien igesi,
lenguak bazterrera utzita
oek aurrena ikasi.

Bertso-papera, *Elustondo - Zarauz* moldiztegian argitara emana eta noren eskutik jaso nuan apuntatu gabea.

Apustu au bi korrikalari auek jokatu zuten: Juan Manuel Azpiroz, *Aia'ko Txikia* esaten ziotena, Azkue baserrikoa, eta Klaudio Egaña, *Aizarna'ko Txikia* esaten ziotena. Amalau kilometro egin bear zituzten.

Apustu onetzaz onela dio Joxe Luis Iriarte'k, bere *Gure erri-joku nagusiak* liburuan (Zarautz, 1973), *Aia'ko Txikia*z ari dala:

«Bigarren maillako laisterkarien gain amaika garaipen burutu ondoren ospatu zuan lenen apustu aundia. 1928'go otsaillaren 26'a zan. 25 urte zituan. 18 urteko mutil gaztea ta laisterkari bizkor bat zan bere aurkaria: Klaudio Egaña, *Aizarna'ko Txikia*. Bira erdiz irabazi zion aiatarrak.»

Apustu oni buruz idaz-lan luzea agertu zuan Jolu'k, «*Aia-ko txikia ta Aizarna-ko txikia*» izenburuarekin, *Goiz-Argi* aldizkarian, 1972'ko Uztaillean.

Amairu eta amabostgarren bertsoetan esaten danez, Egaña'ren alde ziranak jarri zituzten bertsoak lenengo. Tamalez, bertso oien aztarrenik ez degu orain arte, iñundik ere jaso.

Urrena, ordañetan, Aia'ko Txikiaren alde ziranak beste sail bat jarri zuten: onako au.

Jartzallea nor izan zan ez da bertsoetan esaten. Gaztelu bertsolaria izan ote zan entzun izan degu. Bañan gauza segurua ez da.

Korrikalari auek berak, beste apustu bat jokatu zuten andik bi urtera, Donostia'n. Bai bertsoak jarri orduan ere. Ta jartzalle bera dala ematen du. Sail ori, urrengo orri-aldeetan eskeñiko diogu irakurleari.

Sail ontako amargarren bertsoak onela dio:

Juan Manuelen biarra bazan
lengo faltak osatzeko.

Ta urrengo saillaren zortzigarrenak:

orra ederki erremeditu
aizkolaien utsegiñak.

Aiarrak aizkoran bi apustu galdu berriak baitzituzten. Lenengoa, 1925-II-22'an, Zarautz'en, Leon Uegun edo *Leon Txikia* esaten ziotena Keixetarekin neurtu zanean. Bigarrena, 1925-XI-22'an, Tolosa'n, Martin Uria, *Uztaeta* edo *Aia'ko Aundia* esaten zio-

tena, Keixetaren aurka. Apustu onen aurretik, Leon Txikia eta Uztaeta alkar neurtuak ziran, eta Uztaeta'k irabazi.

Aia'ko Txikia korrikalaria ezagutzeko egokiera izan genduan, orain urte batzuk, erri artara joan giñan batean. Irurogei ta amarretik gora zijoan urtetan. Ala ere, onela esan zigun:

– Orain ere jokatuko nioke nere edadeko edozeñi. Nik nere ajeak baditut; bañan arek ere izango ditu bereak.

Orri esaten zaio burua lengo lepotik edukitzea...

(1931)
BERTSO BERRIYAK

- 1/ Bertso berriyak jarri bialitut
iñork nai badu ikasi,
korrikalari oien berriyak
nai ditut adierazi;
zer abildade daukan Egaña'k
ederki degu ikusi,
asko nekatu gabe Azkue'k
orri diyo irabazi.

- 2/ Donostiya'ko zezen-plazara
sartu gera ikustera,
batzuek diruba ekartzera
eta bestiak uztera;
Azkue'rekin juan giñaden
jokua irabaztera,
oso kontentu etorri giñan
andik Aia'ra ostera.

- 3/ Bigarren aldiz jokatu eta
nai zuen irabazia,
kostako zaio Juan Manuel
piska batian austia;
orri irabazi naian dabil
bat ez bada bestia,
or dabiltzanak Azkue'rentzat
orain iristen ezia.
- 4/ Bederatzi apustura dago
Azkue irabaziya,
onenen marka iru minutuz
orrek daduka ausiya;
egun batian etziñan jαιο
korrikalari itxusiya,
famatu gabe ez det utziko
orain al dedan guziya.
- 5/ Juan Manuelek orain korrikan
dauka abillidadia,
nun billatu gentzake beste bat
ori dan baño obia?
Plazara juanda lana egiten
dago kupira gabia,
geiago're konponduko ditu
orrena etortzen badia.

- 6/ Iru t'erdiyak jo zutenian
jokatzen ziran abitu,
Aizarna pizka bat aurrera ta
Azkue'k berriz segitu;
Aia'kuak bestien indarrak
laiste menderatu ditu,
eun da bigarren go bueltan
Egaña ori zan gelditu.
- 7/ Orrenbeste apusturatikan
bat ere ez dezu galdu,
orrelakorik inguru ontan
oraindik ez da azaldu.
Juan Manuelek oraiñ goratzia
zerbait mèrezi ez al du?
Orren notiziyak biar ditut
leku guziyan zabaldu.
- 8/ Leku askotan orren gañian
gu gerade itzegiñak,
baita trabesa egiteko're
asko aldiz otsegiñak;
gutxi dira jokuan Azkue'k
bezin gizon atsegiñak,
orra ederki erremeditu
aizkolaien utsegiñak.

- 9/ Emezortzi urtekua ez dago
esaten zuten Egaña,
baña Azpiroz'ek aguro artu
ziyoen orri tamaña;
mundu ontara sortu zan ori
korrikalari bikaña,
orregatikan geroztik egin
ditu oinbeste azaña.
- 10/ Beatzi apusturetatican
ekarri ditun dirubak,
altxa dituzu zere erriya
ta gañera ingurubak,
baserritako famili asko
ondo jartzeko modubak;
aziyo gutxiyago eginda
artzen dituzte gradubak.
- 11/ Etzera gutxi enpeñatuba,
ai Juan Manuel maitia,
zureganako leku askotan
daukate borondatia;
ankaz ariña, petxu lasaia
eta korajez betia,
kostako zaio beste bateri
gaur zuri eramatia.

- 12/ Orren korrikako apusturak
ez dira izango aztuta,
batzuen poltsak betiak daude
eta bestiak ustuta;
Juan Manuelek arrazoi txarrik
orain merezi eztu-ta,
irabaztunak orri begira
jarriyak daude poztuta.
- 13/ Berriz Azpiroz'i desafiyo
irabazi duenian,
entrada gabe diro gutxitxo
dago gaurko egunian;
naiz kamiyora edo plazara
Azkue juaten danian,
ikara aundi gabe jarriko
da orren aldamenian.
- 14/ Azpiroz orrek apustura asko
irabaziyak izanik,
noranai juanda seriyo dabil
ez dauka arrotasunik;
Juan Manuel, aditu zazu
oraiñ egiya esanik:¹
korrika ezta emen azaltzen
irabaziko dizunik.

¹. Bertso-paperak: *izanik*. Bañan dudarik gabe *esanik* bear du, poto izango ez bada.

15/ Ara bertso berriyak atera
korrikalari oientzat,
oso gaizki jarriyak daudenik
neri iruritzen etzat;
pasadizo au ona izango da
oraiñ kristau askorentzat,
amar zentimon dago papera
erosi nai duenentzat.

Bertso-papera, *Elustondo*.— *Zarauz* moldiztegian argitara emana. Aztu egin zitzaidan noren eskutik jaso nuan apuntatzea.

Korrikalariak, berriz ere, *Aia'ko Txikia* (Juan Manuel Azpiroz, Azkue baserrikoa) eta *Aizarna'ko Klaudio Egaña* izan ziran.

Apustu oni buruz onela dio Joxe Luis Iriarte'k, bere *Gure erri-joku nagusiak* (Zarautz, 1973) liburuan:

«Andik iru urtetara neurtu ziran berriro; 1931'gn urteko «Corpus Christi» egunez, Donosti'ko zezen-plazan. 25 kilometro zituzten bete bearrekoak. Lenen iru kilometrotan ikaragarritzko borroka egin ondoren zearo pot egiñik gelditu zan Aizarna'koa, aurkariaren jokarak eta beroak ondaturik.»

BERTSO BERRIYAK

- 1/ Adiskide batzuek esanda
dijuaz bertso berriyak,
baldin laguntzen badit neronek
dadukadan etorriyak;
lasterkari ta pelotariyen
gañian dira jarriyak,
gure artian izan ditezen
beti goguangarriyak.

- 2/ Madalena'tik Azkarate'ra
jokatzen ziran abitu,
Rafael orrek anak ariñak
ta petxu lasaia ditu;
Betetxe'k berriz iñola ezin
orren onduan segitu,
asi ta laister mutrikoarra
atzetikan zan gelditu.

3/ Ogei ta lau minutu baño len
amar segundoz gora iyo,
Izarre, zaude mutil pizkorra,
ez dezu gutxi baliyo;
aurrera ere beste iñori
orrek jokatzen badiyo,
bire orretan lanikan asko
oraindik emango diyo.

4/ Azkoitiya'ko Mariya ortan¹
jaiua eta aziya,
egun batian etziñan sortu
laisterkari itxusiya;
zuk egindako marka bikaña
dadukagu ikusiya,
arriturikan utzi zenduen
begira zegon guziya.

5/ San Isidro'ko seme leiala
zera, Rafael maitia,
zureganako inguru ortan
badago borondatia;
zuk nai zenduben marka bikaña
egun ortan egitia,
kostako zaio beste bati're
zuri or eramatia.

¹ Mariya: Madariaga auzoa.

6/ Aurrera bear diyot oraindik
nere lanari segitu,
apusturak buru galtze oiek
askotan ematen ditu;
Betetxe'ren aldetik trabesak
gogor ziraden abitu,
esku aldatuta milla pezta
asko dirade gelditu.

7/ Zenbat dirade apustura ortan
jokatzen jardun diranak?
Eta gu berriz irabaziyan
zerbait gelditu geranak;
galdutakuak tristurarekin,
poza asmatu duanak,
kaskuari atzegingo diyo
utsikan gelditu danak.

8/ Lenago ere laisterkari onak
Azkoitiya'ko erriyak,
egiten bazekiten askotan
marka ikaragarriyak;
Aztarbe eta gañerakuak
ziraden arrigarriyak,
oiek jokatzen zituzten iñoiz
apustu izugarriyak.

- 9/ Izarre ortan orain laisterka
dauka abillidadia,
Azkarate'ko gaña juaten
zein da beste bat obia?
Betikan gora ori laisterka
dago kupira gabia,
geiago ere estutuko ditu
orrena etortzen badia.
- 10/ Betetxe ori aspalditikan
ondo gobernatzan asi,
bire oietan ensaiatuaz
ezta ibilli itxusi;
nunbait Izarre orri nai zion
orainguan irabazi,
baña Rafael Zalduniotaz
gelditu zaio nagusi.
- 11/ Izarre laisterkari ederra
goratu degu aurrena,
eta beste bat aitatu biar
genduke orain urrena:
Azkoitiya'ko pelotariya
iñon dagon ederrena,
nunai plazetan jokatzen duen
Atano irugarrena.

- 12/ Lagun batzuek eman ziraten
bertsuak jartzeko itza,
merezi duenari graziyak
ematen emen gabiltza;
Mariano, eskuz zuk daukazu
gaur pelotariyen giltza,
batzuek kontra itzegin arren
alper-alperrik dabilta.
- 13/ Oso biziya izan biar du
Atano'ren jeniya,
gizon prestuba eta leiala,
jokalari seriyuba;
mundu ontan sortu zan ori
pelotariya iaiua,
egiya esateko, ori da
orretarako jaiua.
- 14/ Atanotarrak famatu gabe
ez da posible uztia,
beti plazetan jokatzen dabil
bata ez bada bestia;
lengo zarrak e beti nai zuten
goiko malla iristia,
zer poza ematen zigun guri
oiek plazan ikustia.

- 15/ Orra bertsuak saltakariyai
eta pelotariyentzat,
kalte egingo duenik oek
ni ez nago iñorentzat;
denbora pasa onak dirade
oraiñ gazte askorentzat,
amar zentimon dago papera
erosi nai duenentzat.

Bertso-papera, *Elustondo*.— *Zarauz* moldiztegian argitara emana eta Azkoiti'ko Frantzisko Lete (Patxi Estra) adiskidearen eskutik jaso.

Aurreko saillaren 6, 5, 11 ta 3'garren bertsoak, antza puxka bat badute sail onen 2, 5, 9 ta 14'garrenakin. Egille batenak izango dira, beraz, bi saillak, beraren izenik ez badakigu ere.

Eta aurrekoaren aurreko saillaren 9 ta 11'garrena, ta sail onen 3 ta 7'garrena ere, alkarrekin zer ikusirik dutenak. Iru saillak aita batenak ote, beraz?

«ENKARGU BAT ARTU DET...»

1/ Enkargu bat artu det
bertsuak jartzeko,
Joxe Mari Mordontzat
Azkuna'rentzako;
laisterka apustua
egin jokatzeko,
gero biak kobarde
abiatutzeko,
kapaz dira baztarrak
endredatutzeko.

2/ Oitabina duro zuten
Azkoiti'tik jira,
beste ontzako bina
Izarraitz mendira;
irabazten dunentzat
ai zer egoki da,
galtzen duanarentzat
naikua perdida,

.....

.....

3/ Abiatutzeko pronto
jarri diranian,
Azkuna sartu zaie
berriz komunian.
Zer egingo zuan ba
estuasiunian?
Gero denborarikan
etzedukanean,
karga alper egutsi
deskantsu onian.

4/ Ori arrokeria
gizona zartzian,
nolanai jartzen dira
galtzeko trantzian;
laisterka apustua
txarra dek aitzian,
kolpiak artzen dira
pauso bakoitzian,
ardo zarra edanaz
obe dek etxian.

Bertso aukeratuak Azpeiti-Azkoiti aldean jaso nituan, 1959'ko udaran. Bañan emalearen izenik ez nuan idatzi.

Guztira, zortzi bertso omen ziran. Zaa-rrez, eun bat urte ba omen zituzten orduan.



Bi proba ziran; oetako bat, kaletik Izarraitz'era. Bañan azkenean bat ere ez jokatu.

ORAINDAÑOKO LIBURUAK


(101'garrenetik aurrera)

- 101-102. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. I. (*Aitua*).
103-104. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. II. (*Aitua*).
105. *Jose Inazio Etxeberria*: Mendi gañetik. (*Aitua*).
106. *A. Zavala*: Pastor Izuela. Ezkioko ta Segurako itxuak. (*Aitua*).
107. *A. Zavala*: Zepai bertsolaria. (*Aitua*).
108. *Mattin*: Ahal dena. (*Aitua*).
109-110. *P. Lafitte*: Mañex Etchamendy bertsularia.
111. *Bertsolariak*: Xenpelar-saria, 1972. (*Aitua*).
112. *Basarri*: Sortu zaizkidanak. (*Aitua*).
113. *P. M. Urruzuno*: Sasiletrau baten ziria. (*Aitua*).
114. *A. Zavala*: Kaskazuri bertsolaria.
115. *A. Zavala*: Larraburu, Lexoti ta Balentin bertsolariak. (*Aitua*).
116. *A. Zavala*: Oiartzungo bost bertsolari. (*Aitua*).
117-118. *Balendin Enbeita*: Nere apurra.
119. *A. Zavala*: Oiartzungo beste lau bertsolari. (*Aitua*).
120-121-122. *A. Zavala*: Mendaro Txirristaka.
123-124-125. *A. Zavala*: Zapi-rain anaiak.
126. *A. Zavala*: Ustu ezin zan ganbara.
127. *M. Arozamena*: Nere aldia.
128. *A. Zavala*: Amodiozko penak bertso berrietan.
129. *A. Zavala*: Afrika'ko gerra (1859-1860).
130. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (I).
131. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (II).
132. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (III).
133. *A. Zavala*: Arrantzaleen bizitza.
134. *J.M. Arrizabalo* - *A. Zavala*: Baso-mutillak.
135. *A. Zavala*: Jaioak bizi nai.
136. *A. Zavala*: Noe'ren ontzia.
137-138. *Ataño*: Txantxangorri kantaria.

139. *A. Zavala*: Soldaduzkako bertsoak.
140. *A. Zavala*: Nekazariak bai miseriak.
141. *Bertsolariak*: Bertsolari-Txapelketa Nagusia (Donostia, 1980-I-6).
142. *A. Zavala*: Txabolategi, Elkoro eta Leunda bertsolariak.
143. *J.J. Irazusta*: Nork bere bidea (I). (*Aitua*).
144. *J.J. Irazusta*: Nork bere bidea (II). (*Aitua*).
145. *J.J. Irazusta*: Nork bere bidea (III). (*Aitua*).
146. *A. Zavala*: Berridi eta Kuxkullu bertsolariak.
147. *Ataño*: Txori. (*Aitua*).
148. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (I).
149. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (II).
150. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (III).
151. *Mattin Treku*: Etxe xokotik kantari.
152. *Xalbador*: Herria gogoan. (*Aitua*).
153. *J.K. Zapirain, Ataño*: Zure Pasio Santua. Asis'ko San Frantziskoren bizitza.
154. *A. Zavala*: Jan-edanaren bertsoak (I).
155. *A. Zavala*: Jan-edanaren bertsoak (II).
156. *F. Artola, Bordari, R. Artola*: Aritz beraren adarrak.
157. *Elkar lanean*: Lexoti bertsolaria.
158. *Mari Treku*: Mattin, nere gizona.
159. *Txomin Garmendia*: Denbora pasa.
160. *Txomin Garmendia*: Bizitzaren arian.
161. *A. Zavala*: Kuba'ko gerra.
162. *J.M. Arrieta*: Nere ondar alea. (*Aitua*).
163. *J.C. Arrosagaray*: California-tik kantuz.
164. *A. Zavala*: Mixioetako bertsoak (I).
165. *A. Zavala*: Mixioetako bertsoak (II).
166. *M. Manterola*: Lore apal bat.
167. *J.M. Lertxundi*: Baso tarteko oiua.
168. *P. Lazkano, A. Zavala*: Tiro tartean bertsotan.
169. *Basarri*: Kezka-giroan.
170. *Txomin Garmendia*: Bordaberri'ko gozo-mikatzak.
171. *Txomin Garmendia*: Bertsolari kurpilla.
172. *Sebastian Salaberria*: Nere soroko emaitzak.
173. *I. Olea*: Otemotxeko arnasa.
174. *A. Zavala*: Kristaubidea bertsotan (I).
175. *A. Zavala*: Kristaubidea bertsotan (II).
176. *A. Zavala*: Ameriketako bertsoak.
177. *Txomin Garmendia*: Erririk-erri.
178. *Basarri*: Bertsolaritzari buruz.
179. *Ataño*: Espetxeko negarrak.
180. *A. Zavala*: Euskal jokoak bertsotan. I.



AUSPOA
LIBURUTEGIA



ANTONIO ZAVALA

**EUSKAL JOKOAK
BERTSOTAN (II)**

ANTONIO ZAVALA

AUSPOA LIBURUTEGIA
(183)

Auspoa Liburutegia
(EDITORIAL AUSPOA)

Plaza Santa Maria, 2 - Tolosa, Gipuzkoa
Tel. (943) 67 12 82

ANTONIO ZAVALA

**EUSKAL JOKOAK
BERTSOTAN
(II)**

**AUSPOA LIBURUTEGIA
1985**

© Auspoa Liburutegia (Tolosa - Guipuzkoa)
Fotokonposatzalle: LENTE, Estella (Navarra)
Inprimatzalle: Gráficas Lizarra, S. L., Estella (Navarra)
Depósito Legal: NA. 1.132-1985
ISBN 84-7158-124-8 (Obra completa)
ISBN 84-7158-128-0 (Vol. II)

ARKIBIDEA

Itzaurrea	9
PALANKARIAK	
(1868) Manuel Artasoro'renak: «Palenkan goraintziak utzi ditut, Patxi...»	13
Palenkarien bertsoak: «Juan Martin famatua izan da otsera...»	17
Bertso Berriak Renteria'ko palankapartiduai jarriak: «Santa Isabel eguna Uz-taren lauan...»	21
(1881) Bertso Berriak: «Milla ta zortzi-reun ta larogei ta bat urte...»	27
Mendata'ko palanka-jokua (I): «Sugertie bota eben aurretik zein asi...»	47
Mendata'ko palanka-jokua (II): «Bizkaian'n jarri dira bai palankariak...»	51
SEGALARIAK	
(1893) Bertso Berriak: «Milla zortziregun larogei eta amairugarren urtian...» ...	57
(1909) «Merezi duan persona bati jartzera nua bertsoak...»	63
Bertso Berriak aurtengo segarientzako jarriak: «Jose Manuel Alzarra kantak jartzera dijua...»	69
ABERE-PROBAK	
Bertso Berriak aurten jarriak proba ba-	

ten gañian txit barregarriak: «Kantatu gura ditut zenbat bertso berri...»	77
Bertso Berriak: «Amigo batek enkargatu nau lengo jai-arratsaldian...»	87
Muxika'ko probak Txotxo-Jeuri'n bertsoak: «Muxika'n pasatu da, au da komedie...»	93
Probalariak: «Ogei bertso berriyek mendiyan jarriyek...»	101
Bertso Berriak Garagarrileko probaren ganean jarriak: «Siglo zar ori akabau jaku, oin sartu gara barrien...»	107
Bertso Berriak Izagirre'ko idi nobliai jarriak: «Arratsaldeko irurak jo eben orduan...»	113
Beiak burrukan: «Adarrak zorroztuta ekarri dabe plazara...»	121
Bertso berriak: «Bi ari-joko dira Bizkaia'n jokatu...»	125
Probalariak: «Mendexa'tik ekarri probako bandera...»	131
BOZEOLARI ETA BURRUKALARIAK	
(1925) Bertso Berriak Uzkuduntarrak jarriak: «Milla ta bederatzireun da ogei ta bostgarren urtian...»	137
(1926) Bertso Berriak: «Oraingo estilo berri (y) onentzat ditut bertsoak ateara...»	143
Gora Uzkudun! «Paulino, Paulino, Errezil'ko Uzkudun...»	149
Bertso Berriak Paulino Uzkudun'ei jarriak: «Bertso berriyak jartzera nua Paulino Uzkudun'entzat...»	155
Bertso Berriak: «Alegrantzia onekin asten naiz kantatzen...»	161
Bertso Berriak: «Esplikatzera nua egiak euskeran...»	167

ITZAURREA

Auspoa'ren 180'garren alean, euskal jokoai jarritako bertsoen lenengo zatia argitaratu genduan, bigarrenkoa, gaurko au alegia, bidean zala esanez.

Liburu ura zer zan, eta gaurko au zer dan, itzaurrean adierazi genduan. Orregatik, gaurko onek ez luke berez itzaurrerik bear. Baiña lenengo liburu ura eskuetaratu etzutenentzat, on izango da orain ere itz batzuk egitea.

Jokoa gai duten bertso-saillak bildu ditugu bi liburu auetan; baiña egillearen izenik gabekoak geienak. Egillearen izena dutenak, beren aitaren liburuan argitaratuak ditugu, edo denborarekin argitaratuko ditugu.

Karga-jasotzailleak, aizkolariak eta korrikalariak lenengo liburuan joan ziran. Oraingo ontan, palankariak, segalariak,

abere-probak eta bozeolari ta burrukalaria-riak datoz.

Pelota eta arraunketa, bi liburu auetatik kanpo gelditu dira. Joko oiek, beren ugari-tasunean, gutxienez liburu bana osatuko baitute.

Mugaz ipar aldeko bertsorik ere ez degu liburu ontan sartu.

Ez-ta ere, gerraz geroztik, jokoak gai du-tela, egunkari eta aldizkarietan azaldu di-ran bertsoak.

Liburu ontako bertsorik famatuena, Artxiola palankariarenak dira, dudarik gabe. Gaur ere kantatzen baitira. Izenorde ori, baserriaren izenetik zetorkion; Azpeiti'-ko Artxiola baserria, alegia. Orregatik, be-raren argazki batez baliatu gera liburuaren azala jazteko.

Bizkaieraz ere badaude emen bertso-sail batzuk. Oien illun-uneak, Ereño'ko Abel Muniategi adiskideak argitu dizkigu. Milla esker berari.

Doiñu batzuk ere baditu liburu onek. Oiek guk manetofonoz jasoak dira. Baiña Ernani'ko Manuel Yaben'ek solfeoz pape-reratuak, eta Lazkao'ko beneditinotarrak garbiro idatziak. Milla esker laguntzaille oiei ere.

Itz auek bukatzeko, guretzat saririk onena zein litzaken esango degu: irakurle guztiak bertso auen bidez txolarte gbozo bana igarotzea.

PALANKARIAK

(1868)

MANUEL ARTASORO'RENAK

- 1/ Palenkan goraintziak
utzi ditut, Patxi,
gure banidadeak
bera dira jetxi;
gauza ortatik dator
alebio gutxi,
oraindik nai nioke
txapelari eutsi.

- 2/ Orain sei urte neukan
estimaziua,
Patxiri erakusten
nere apiziua;
maiz artutzen genduen
ejerziziua,
orain azaldu degu
operaziua.

- 3/ Manuel Artasoro,
askok dakiguna,
iru aziotara
berrogei ta launa;
ontz erdi baten faltan
izango da juana,
arroako palenkak
neurtzen du gizona,
badauzka indarra ta
egokitasuna.
- 4/ Markiñera juan da
giñanean asi,
suerteak emanik
a *pecho* lenbizi;
ogei ontza bentaja
nezkion ereki,
ortaraño zer naizen
ez naute ikusi,
bajoan uste zana
irten da nagusi.
- 5/ Mutriko'tik joan ziran
musika ta guzi,
asi baño len zuen
ustez irabazi;
ikusi duanean
Manuel nagusi,
zortziko eder asko
ez digue asi,
nunbait ark bezela nik
ez nuen merezi.

6/ *A median* genduan
urrengo asia,
artan ereki nion
bentaja bizia;
irabazten nuela
neukan ekusia,
ankabe ori nuen
erretxo utzia,
ogei ta zazpi ontza
bentaja guzia.

Bertso auek 1956'an etorri zitzaizkigun, Leitza'ko Gorritiene'tik. Bertako Maria Josefa Zestau, artean amairu urtekoak, iru kuaderno bere eskuz bertsoz bete ta bialdu zizkigun. Lan ori aitonak eta berak egin zuten: arek kantatu ta billobak idatzi.

Seguru asko, paperetan zabalduko ziran eta bertso geiago izango ziran.

Apustu onetzaz onela dio Rafael Agirre'k bere *Juegos y deportes vascos* liburuan, 340 orri-aldean:

«Palankaris que llegaron a ser figuras de leyenda en el País Vasco fueron Manuel Juaristi «Artazo», del barrio de San Lorenzo, en Elgóibar, y Francisco Olabarrieta, de Motrico. El 31 de marzo de 1868 celebraron en Marquina una memorable apuesta con la barra de 25 libras de peso. El resultado fue el siguiente:

Manuel Juaristi:

a media vuelta 3' 3" 1/2

a pecho 50' 2" 1/2

entrepierñas 38' 3" 1/2

Francisco Olabarrieta:

42' 8" 1/2

46' 8" 1/2

40' 3"

Resultó ganador en el cómputo total Manuel Juaristi «Artazo».

Bertso auek, Elgoibar'ko Manuel Juaristi'k, Artazo edo Artasoro orrek, jarri arazi zituan. Irabazleak, alegia.

Erantzuna ere izan zuten. Mutriku'ko Patxi Olabarrieta'k, Xenpelarregana joan eta ordañak para arazi zizkion. Ikus: *Auspoa*, 88-89-90, 286 orri-aldean.

Basarrik, Xenpelarren bertso oiek oiñarri arturik, bi idazlan argitaratu zituan *El Diario Vasco*'n, 1984'ko otsaillaren 8 ta 9'an.

PALENKARIEN BERTSOAK

- 1/ Juan Martin famatua
izan da otsera,
eibartar bat jua zaio
berari etxera,
palenkan jokatzeko
desafiatzera:
– Konformatzen bagera
goazen probatzera.

- 2/ Erresponditu dio
itzaldi batean:
obeditzen diola
ondradamentean.
Eibartarra kontentu
etzan ainbestean,
gobernatu zalako
jokatzeko ustean.

3/ Eibartarrak esan zion,
klaruak bezala,
jokatzeko ustean
abiatu zala;
ez ibiltzeko ari
ala eta ola,
jokatutzeko edo
obeditu zezala.

4/ Juan Martiñek orduan
egin zion erronka:
bear zuela amar
librako palenka;
arraien pasa gabe
eskuñeko anka,
zeñek luzeagoa
plazan egin marka.

5/ Itzak ziran moduan
egiña papera,
Billabona'ra jua
dira jokatzera;
eibartarrak musika
mutuak atzera,
bidañiarrak berriz
diruak etxera.

6/ Mutil balientia,
odoletan bero,
iñola're galtzea
etzuen espero;
seguro irabaztea
jokatu ezkerro,
lanak izaten dira
zeinbatekin gero.

7/ Berez gizon txikia,
aurrera edadez,
askotan miserian
alimentsu gabez;
umiak ezin aziz
or dabil dolorez,
ala ere palenka
ark aña tira ez.

8/ Besteak ez balio
araño segitu,
akaso bajoagoa
nai zuen gelditu;
premiatzen danean
geiago tiratu,
akordatua dago
nola baliatu.

9/ Bidaña'n jaioa,
baita're azia,
Juan Martin Elola
du bere grazia;
palenkako lanean
doaiez jantzia,
jokatutako danak
da irabazia.

10/ Gezurrikan gabe nik
orra esan egia,
Billabona'ko plazan
askok ekusia;
bulkatu gabe ez da juan
airean burnia,
alabatu nai nuke,
biba Bidaña!

Bertso auek ere 1956 urtean jaso nituan Leitza'ko Gorritienea baserritik, Maria Josefa Zestau'k bere aitonaren aotik kopiatuta.

Apustu au, Bidaña'ko Juan Martin Elola'k eta eibartar batek jokatu zuten Billabona'n. Eibartarraren izenik ez da esaten. Apustua noiz egin zan ere ez.

Ikus: R. Aguirre: *Juegos y deportes vascos*, 1971, 339 orri-aldean, Elola'ri buruz esaten diranak.

BERTSO BERRIAK
RENTERIA'KO PALANKA-PARTIDUAI
JARRIAK

- 1/ Santa Isabel eguna
Uztaren lauan,
kantik jartzera nua
euskera klaruan:
partidu izugarri bat
nola jokatu dan,
esplikatuko banu
pasa den moduan,
artako dagoenak
artzeko goguan.
- 2/ Lenbiziko alabantzak
jokalariari,
aditzera emateko
mundu guziari;
permisua galdetu
alkate jaunari,
respuesta eman du:
—Inporta ez dit neri,
ogia sortuko diezu
itxu tristeari.

3/ Irabazi duena da
berez Zurradoria,
palankarekin badu
abilidadea;
amasei ontza kuadruan
sartu eta tira,
arraian ere oso
garbi ibilli da,
begira dauden guziak
ikaratu dira.

4/ Patxiko Garibaldi da
partida irabazia,
berak esaten zuen:
- Galdu zat etxia.
Denari gustatu zaie
orren plazako ibillia,
gerok ikusi degu
esperientzia,
onra ederra daukazu,
biba Renteria!

5/ Jose Manuel Muñagorri
zan anketan juez,
oker gutxi pasa zan
ark sumatu gabez;
kontzientzian birian
garbi eta legez,
Andoañ'en bizi da,
angua da berez,
jaun orri prenda artzen
etzeguen errez.

- 6/ Ignazio Olaizola
zan señak sartzeko,
Itziar'ko semia
garbi esateko;
tiro edo kulo zan
erreparatzeko,
eta okerrik bazen
gero zuzentzeko,
zer esanik ez dago
gizon oientzako.
- 7/ Klaudio Arteaga
Rezil'ko semia,
ura genduen gizon
tertzero paria;
artara ezkerro gauzak
formal bear dira,
ark bazekien ongi
plazako legia,
arren esanetara denak
konformatu dira.
- 8/ Galde egin genduan
mutil ori zein zan,
ongi zekienakin
informatu giñan:
Bizkai'ko Alustia'ko
semia nola zan,
iru urtian erronkaz
iñor baldin bazan,
abill usteko ori
tonto gertatu zan.

- 9/ Zein tierretakua den
lenbizi esan nai ez,
ona izan bear du ¹
aditu degunez;
kontrabando bezela
etorri da gabez,
ostatuan egon da
nai duena janez,
palankari aundi ori
ase dute lanez.
- 10/ Ignazio duela izena
esan du lenbizi,
Jose Domingo dala
gero degu ikasi;
trabesak egiñ arte
bentaja artzen utzi,
naita ere azkenian
ezin irabazi,
kaiolako txoriak
juan zaizka igesi.
- 11/ Garagar illen ogeian
zan onera etorri,
Eusebio argiñakin
peontzan zan jarri;
ezta luzaro jardun,
aspertu da sarri,
iru egun pasa ditu
entretenigarri,
itxu aurreko onen bat
izango due ori.

¹ Bertso-paperak: *ona esan bear du*.

12/ Palanka batekin ziran
disputatutzera,
ezin egin denian
zerbait esatera;
lege sarrera esan da
sirristan atera,
sustantzia egiña
zeukaten papera,
au galerazi eta jua zen
berri tiratzera.

13/ Zer motibo neukan nik
burla egiteko?
Ez nuen obligatu
ori esateko:
«Tripa aundia daukazu
urrin botatzeko.»
Bera zebillen larri
neri jokatzeko,
ez giñan leku txarrera
jua probatzeko.

14/ Partida bukatuta
gero azkenian
ardua eskeñi niza
umore onian;
baita bostekua ere
denbora berian,
nik partitu nai nuen
gizonen legian,
ez bata eta ez bestia
artu etziñian.

15/ Orra amabost bertso
ipiñita moldez,
guk kantatuko ditugu
palankan egiñez;
ez dakiten guziak
enteratu bitez,
konprenditu liteke
gauza orrenbestez,
adios, Jose Domingo,
ongi bizi zaitez.

Bertso auek, *Tolosan: Eusebio Lopez-en moldiztegian* argitaratu ziran paperetan, eta Loiola'n, Aita J. I. Arana zanaren bilduman, azaldu. Nork jarriak diran ez da esaten; urterik ere ez. Bañan joan dan mendearen bukaerakoak izango dira.



Tolosa'ko Fakundo Adurriaga *Besamotza*'ren bilduman ere agertu dira bertso auek, eskuz idatzita. Aldaketak: 3/3: palankakin daduka; 3/5: botatzeko sei ontza; 3/6: kuadruan ta tira; 3/7:ere erosuan; 3/10: amolatu dira; 4/4: galdu zat eziya; 4/6: orren palanka ibilliya; 4/9: onra ederra dauka; 5/5: konzienzian beria; 9/2: lenbizi esan ez; 13/5: tripa aundiya daukak.

(1881)

BERTSO BERRIAK

1/ Milla ta zortzireun ta
larogei ta bat urte,
bertso bi paratzeko
enkargatu naute;
palenka-partidua
dala mediante,
enreratuba bada
makiña bat jente,
gero kontrariyuak
faltatu digute.

2/ Ni naiz palenkariya
Arxiola'koa,
nere kontrariyoa
Zuaneta'koa;
orain sei illabete
zan erronka joa:
palenka izateko
zortzi librakoa,
nai duanak irteteko
probintziakoa.

- 3/ Iturriotz'en orrela
San Juan Txikietan,
baita txapela ere
txiri baten puntan;
gero bandera jarri
Santa Luzietan,
ura zala nagusi
probintzi onetan;
erronka bazeukaten
kale kantoietan.
- 4/ Orrenbeste erronka
aditutakuan,
kontra ateratzea
disponitu nuan;
San Tomasetan giñan
Azpeitia'ra juan,
ia len esanetan
konforme zeguan,
partida gau orretan
zerratu genduan.¹
- 5/ Partira zerratu zan
San Tomas gaubean,
jokatzeko lbeltzan
ogei ta laubean;
kondizioak jarri
ziran papelean:
zortzi librako palenka
oraingo legean,
iru aziotara
formalidadean.

¹ Bertso-paperak puntuak: *aditutakoan, nuan, joan, zegoan, genduan, Gau* itza guk erantsia da, paper zaa-

- 6/ Labaka ekarririk
Biañia'tikan,
ensaioetan asi
zan berriotikan;
jokatzea damutu ezetz
oien aldetikan,
trabesak egin dira
noski gogotikan,
gero pagatu dute
patrikeratikan.
- 7/ Iñon ezta ikusi
orrelako lanikan,
jokatu gabe trabesa
galdutzen danikan;
segurantzaz askori
zeuden emanikan,
nigana etzeukaten
esperantzaz onikan,
ez geiago sinistu
oien esanikan.
- 8/ Agerrezabalakoa
Patxiko jaunari,
abisatu ziola
bere lagunari:
Bizkaia'n ta Naparroa'n
bazirala beste bi,
pruebak erakutsi
dizkiyogu alkarri,
gero onenak irten
aietakoari.

rrenak ez badu ere, beste geienak daukatelako eta ala
bear dualakoan.

- 9/ Eskerrik asko dizut
orixen, Patxiko,
ordena oietara
ez nazu jatxiko;
erriyak ere eztu
ori mereziko,
len egin genduana
joka lenbiziko,
onena zein dan ortxen
degu ikusiko.
- 10/ Ama bialdu zuban
keja bat emanik,
etzuela ametitzen
orrelako lanik;
Labaka zan giari,
zierto badakit nik,
ballarako arrautzak
ordurako janik,
etzekiela semia
jokatzeko zanik.
- 11/ Illaren ogei ta lauban,
Azpeiti'ko plazan,
kontrariyoric gabe
an arkitu nintzan;
derrior ekartzeko
legerikan etzan,
señalea galdu du
itz egin dan gisan,
orain aren bandera
nik bearko izan.

12/ Puntzio ori pasata
urrengo larunbata,
Tolosa'ra joan da
egin det erronka;
gero kargubak artzen
asi zan Labaka,
lau milla duro señale
nai baditue bota,
amerikano anaia
aterarik kontra.

13/ Lau milla duro señale,
ogei milla jokuan,
pillan eztira jartzen
berealakoan;
bire erdiyan jokatzea
disponitu zuan,
palenkarik eztago
berriz itxasuan,
baña leorrera
ekartzen bazuan.

14/ Anai bat badu orrek
or Montevideo'n,
legorrera ekartzeko
allegatu niyon;
gu diruz bildurtzia
nunbait zeizkiyon,
danak jokatutzeko
plantatu nitzaion,
orduantxen aguro
damutu zitzaion.

15/ Orain desafiyua
asi naiz egiten,
gero damutzekotan
ez det itzegiten;
batzuen gisan ez dakit
neure itzik jaten,
tirorik luzeenera
nai dubanak irten,
Artxiola'k eztiyo
faltatuko aurten.

16/ Mundu onen bost parte
oien danen kontra,
iñork irten nai badu
jotzen det erronka;
zortzitik amaseira
libra dan palenka,
arraian pasa gabe
eskuiko anka,
zeñek luzeagoa
plazan egin marka.

17/ Palenkari eztanik
nik ez det markatu,
kontra iñor badator
nik eziñ barkatu;
itz-bidiak orrela
oi dirade sortu,
terreno aundietan
naizelako sartu,
jokazale ez danak
ez prendarik artu.

18/ Adios, Zuaneta,
dizut milla grazi,
gaizki itz egiterik
ez dezu merezi;
partida egin genduen
galdu irabazi,
lagunak dizutela
faltatu erazi,
probintzian otska
ez geiago asi.

Bertso auek, *Imp. de Vda. de B. Valverde - Irún* moldiztegian argitara eman ziran paperetan. Paper oietako ale bat, Gregorio Mujika zanaren bilduman arkitu genduan.

Bertsoen ondoren onela dio: *Jabea badu: J. V.* Bañan letra oien atzean nor izkutatzen dan ez dakigu.

Beste argitaraldi bat, bertso-paperetan au ere, *Tolosan: Francisco Muguerzaren moldiztegian* egin zan. Onek ere onela du bukaeran: *Jabea badu: J.V.*

Bañan paper au ez degu eskuetan ibilli, beraren kopia bat baizik, Argentina'n zalarik Tolosa'ko Ixaka Lopez-Mendizabal zanak ortografia zaarra errespetatuz egiña. Ondoren, onako argibide au ematen zidan:

«Bertso berri oek, Errezil'ko semea dan Lazkano'tar Martin'ek, Buenos Aires'en 1958 otsaillaren 10'ean eman zizkidan. Lopez Mendizabal'dar Ixaka.»

Bi bertso-paper auek, Irun'goak eta Tolosa'koak alegia, ez dute alkarren artean aldaketarik, uskeri bat edo beste izan ezik.



Bertso auen egillea nor izan ote zan? Ez dakigu. Artxiola'ren izenean daude; bañan ura bertsolari batengana joango zan bertsoak enkargatzera, ta bertsolariak bere lana egin.

Sekulan izan dan palanka-jokorik pamatuenetako bat izan zan. Bañan jokatu etzuten egin. Artxiola bai, azaldu zan Azpeiti'ko plazan; ez, ordea, Zuaneta, eta señailea galdu zuan.

Artxiola, Artxiola baserrikoa zan. Baserri ori Azpeiti'ko partean dago. Goiatz'tik Azpeiti'ra goazela, Elosiaga'ra iritxi baño leen, eskubitara baserri zabal eder bat ikusten da. Uraxe da.

Zuaneta baserria, berriz, Matxinbenta'n da. Angoa zan Zuaneta palankaria.



Basarrik, *La Voz de España*'n, 1968-VII-28'an, argibide jakingarri auek ematen zitan Artxiola palankariari buruz:

«Lengo egun batez Amerika'n egindako karta bat artu nun.

Argentina'n idatzia dago. Euskera bikain askoan gañera. Urte askoan an bizi dan euskaldun jator batek egiña da.

Artxiola palankariaren berriak arkitzen dira karta ontan. Pamatua ta entzutetsua zan Gipuzkoa'n Artxiola.

... Jose Ignazio Lazkano Mendizabal ziran Artxiola'ren izen-deiturak.

Amerika'ra jun, an bizi ta an il zan.

Montevideo'n jarri zan bizitzen lenengo. An urtebete inguru egin zun.

Buenos Aires'era aldatu zan andik. Esneketa lana artu zuan, ainbat euskaldunek bezelaxe. Zaldia ta karroa artu, ta esneak banatu.

Artxiola'k aña indar zun gizonik ez omen zan Argentina'n ezagutu. «Hércules vasco» deitzen omen zioten.

Artxiola ta bere emaztea sorterria bixitatzera etorriak ziran 1899'garren urtean. Tolosa'n bizi izan ziran iru urtez.

1902'garren urtean itzuli ziran Argentina'ra.

Karlisten gerran ibillia zan Artxiola. «Teniente honorario» zan bere gradua.

Soldata jasotzen zun Argentina'n.

1948'garren urteko abuztuaren laugarren egunean il zan. 93 urte zitun.

Seme bat ba-zun Artxiola'k arrigarrizko boza zuna.

Seme onek asko maite zun aita, baña ba-zun aitari beñere barkatu etzion zerbait. Artxiola'ren semeak zun bozak ez omen zun Migel Fleta'ren bozaren inbidirik.

Kantua ikasi nai izan zun, kantutik bizi al izateko.

Aitak utzi izan balit, esan oi zun, milloitan gañezka ibilliko nintzan.

Aitak etzion baimenik eman. Esnezale bat izan zan, aita bezelaxe.

Artan eraman zuten beren bizimodua.»

Artxiola'ren beste berri au arkitu degu R. Agirre'ren *Juegos y deportes vascos* liburuan: «*De él cuenta Miguel Bengoechea, de Régil, que en Buenos Aires, en 1888, derribó un tranvía y volvió a levantarlo ante el asombro de los transeúntes*».



Zuaneta palankariaz, berriz, onela esan zigun, Azkoiti'n jaio ta Zarautz'en bizi dan Patxi Larrañaga'k:

«Nere aitak zekan barberi bat Azkoiti'n, pelukeri bat. Eta Zuaneta, ain txuxen, zorionez ezagutu nuan. Agure galanta zan.

Ta nere aitaren etxera bizarra kentzera etortzen zan ostiraleetan.

Ni umetxoa nintzan; zazpi edo zortzi urte, geiengan. Aulki txiki batetik beratu oi nuan bizarra, aitari laguntzeko.

Aitari ikasiak nezkan nik bertso auek ordurako, eta Zuanetak etxera askotan eramaten nindun. Xextagiña zan bera, eta arekin antxe ibiltzen giñan endreatzen. Baña, pelukerira sartzen zanean, ni asi oi nintzan, umeen kontuak:

Ni naiz palankaria
Artxiolakua...

Ta esan oi zidan:

– Motell, motell, egon adi ixilik eta beratu zak bizarra ondo!

Nik ez bainekin orduan zer esan nai zuan gauza arek.

Aregatik esan nai nuke nik au: oso umetan ikasi nitula eta Zuaneta ondo eza gutzen nula, ta bere semeak ere bai.»

Ta apustura azaldu gabe zergatik gelditu zan, Patxi Larrañaga onek berak adierazi digu:

«Zuaneta'ren lagunak, Artxiola'ren marka astigar baten atzetik ikusi omen zuten. Ta Zuaneta irixten etzala ta ez presentatzea erabaki zuten.»



Orain urrena bi doñu eskeñiko dizkiogu irakurleari.


Lenengoa, Patxi Larrañaga onek berak kantatua.







la la la...







Bigarrena, Azkoiti'ko Demetrio Alberdi'k
eta Patxi Lete'k kantatua:







la la la...



Beste bertso-paper bat, *Valverde - Renteria* moldiztegian argitaratua, Ormaiztegi'ko Etxaburu baserriko Bizente Mujika'k bialdu zidan, berak batean eskuratua.

Paper onek amairu bertso ditu: 12, 13, 14, 15 ta 17'garrena falta baiditu.

Gañontzekoen aldaketak: 1/9: guero kontrariyua; 2/9: nai duena etortzeko; 4/3: kontra ateratzera; 4/7: alen ensanetan; 4/9: partida onetan; 5/5: kondiziyo on bat jarri; 5/6: ciran paperean; 6/5: jokatzea damu-

tutzez; 9/2: ori zen Pachico; 9/4: ernatu jachico; 9/5: eriaz erez ertu; 16/3: iñori ten naibadu; 16/8: eskoyeko anka; 18/9: provinziya Osca.



Tolosa'ko Fakundo Adurriaga «Besamotza» zana-ren bilduman, eskuz idatzita, bertso aukeratu ditugu. Bañan emezortzi bearrean, beste bat geiago, 7 eta 8'garrena artean, Onako au:

Jokatzeko denbora
iia alderatu,
bañan palankariya
gutxi aurreratu;
diretoria noski
laister zan kejatu,
señalia galduta
obe dek barkatu,
gero modu orretan
dirade portatu.

Bertsoen aldaketak: 1/1: Milla zortzireun da; 1/4: obligatu naute; 1/9: gure kontrariyuak; 2/9: nai zuanak juateko; 3/3: gero bandera jarri; 3/4: Santa Luzietan; 3/5: baita txapela ere; 3/6: ziri baten puntan; 3/9: erronka bazenduten; 4/2: aditu onduan; 4/8: konforme dagan; 4/9: partida gau onetan; 5/5: kondiziyuak jarri; 5/6: ziran paperian; 6/2: Bidañia'tikan; 8/1: Igarza olakua; 8/2: Patxiko jaun ori; 8/3: abisatu ziona; 8/4: nere lagunari; 8/6: bazeudela beste bi; 8/7: prueba erakutsi; 8/8: deiogun alkarri; 8/10: oietakuari; 9/3: ordena orretara; 10/1: Ama bialdu zuten; 11/8: itz egin zan gisan; 11/9: orain orren bandera; 12/6: asizat Labaka; 12/8: nai baditut bota; 13/7: palankan nik ez dakit; 13/9: baña bai legorrian; 14/1: Anaia bazeudukan; 14/8: prestatu nitzaion; 15/6: nere itza jaten;

16/6: librako palanka; 17/1: Palankaria ez danik; 17/2: ez degu markatu; 18/1: Adios, Zuanetako; 18/8: damutu erazi; 18/9: probintziyari oska.



El Día egunkarian ere agertu ziran bertso auek, 1933'ko abenduaren 17'an, Artiz'tar Xabier'ek bialdu-ta. Aurretik argibide jakingarri auek ematen ditu:

«Aurreko egunetan baserri batzuetan ibillia nazu, ipui zarren bat edo beste ikasi nai-miñez; ta billatu dedana igorri nai nizuke idaz-lan ontan.

Orain berrogetamar urtetik gora gaur ez aña zale-tasun ba-zenuan, ni bizi naizen erri onetan ² bertso-berrietarako. Itxuak ibili oi ziran neurtitz oiek za-baltzen. Asteasu'ko itxua ezagunetakoa zan bertso berri abesten: eta esan didatenez «Txamaokoan» (Zubieta kalean, 32'garren zenbakian) lo egiten-da gelditzen zan.³ Ba-zendun Segura'ko beste itxu bat ere: au napar-pikatu bat omen zan eta Juana Manue-la bere andriarekin etorri oi zan. Jai-egunetan batez ere, erriak meza entzute lanak bukatuz bat, an arkitu-ko zituan eleiz-aurrean andra-aguretxo biak alkarri egundoko bertsoak jaurtitzen eta giz-osteari parre-eragiten...»⁴

«... Baña beste neurtitz batzuak batez ere ipiñi nai dizkitzut gaurkoan. Segura'ko itxuak ekarritakoak di-tuzu beste auek ere. Neurtitz-gaia Azpeiti'n antxiñan izandako palanka apostua degu ta luzaro gaxorik da-gon baserritar batek oso-osorik abestu dizkit.

Eztezu makala gizona. Bere etxean amaika zo-ritxar ikusi badu ere, emeretzi amarreko abesteko umoria izan du. Ba-diteke neurtitz guztiak zuzen ez egotea. Ezta errez ainbeste buruan gordetzea. Alditan

² Ez du erriaren izenik esaten.

³ Ikus: *Auspoa*, 70'garrena.

⁴ Ikus: *Auspoa*, 106'garrena.

«baskuentzia» ere sarritxo nasten zaie, baña nere us-
tez legezkoak dira. Bergara'n oso zabalduak daude
eta beste zemaite erritan ere ezagutuak izango dira.

... Bertso guztiak ez dira neurri zuzenekoak:
bertsolariak zerbait moztu ala luzetu egin ditualako
aldiz, eta agian neri esan zizkidanak zertxobait aztu-
rik oker abestutzea ere ba-zitekelako.»

Ondoren bertsoak datoz. Bañan emeretzi. Bat
geiago, beraz. Adurriaga'ren bilduman dagon ori bera.

Bertsoen aldaketak: 1/1: Milla ta zortzireun; 1/3: bi
bertso paratzeko; 1/4: obligatu naute; 1/7: enredatua
dabil; 2/7: palanka izatea; 2/9: nai zuena juateko;
3/3: gero bandera jarri; 3/4: Santa Lutzietan; 3/5: bai-
ta txapela ere; 3/6: ziri baten puntan; 3/7: ori zala
nagusi; 3/9: erronka ba-zedukan; 4/2: aditu onduan;
5/5: kondizioa jarri; 5/6: ziran paperian; 5/7: zortzi li-
bra palanka; 6/2: Bianiatikan; 6/3: ensaiuan asi zan;
6/5: jokatzia ez damutu; 7/1: Iñun ez det ikusi; 7/2:
orlako lanikan; 7/5: segurantza (i) aundiak; 8/1:
Igartzuolakua; 8/3: abiatu ziona; 8/4: nere lagunari;
8/6: ba-iala beste bi; 8/8: deiogun alkarri; 8/10: oie-
takuari; 9/3: ordena (i) orretantxe; 9/4: ez gera jatxi-
ko; 9/5: erriak ere ori; 9/6: eztu mereziko; 9/10: da
ikusiko; 10/1: Ama bialdu zuten; 11/7: señaia galdu-
ta; 11/8: itzegin zan gisan; 11/9: orain orren bandera;
11/10: nik bearko det izan; 12/1: Juizio au pasauta;
12/8: nai baditut bota; 12/9: Amerika'ko anaia; 12/10:
ipiñirik kontra; 13/7: berriz nik ez jakin; 13/8: palan-
kan itxasuan; 13/9: baña bai legorrera; 14/1: Anaia
ba-zedukan; 14/2: ark Montebideon; 14/7: diana jo-
katzeko; 14/8: prestatu nintzaion; 15/8: nai duenak
urten; 16/6: librako palanka; 17/2: ez det nik markatu;
17/3: jokatzeko eztanak; 17/4: ez predarik artu;
17/6: diralako sortu; 17/9: kontra iñor ba-dator;
17/10: ezin nik barkatu; 18/3: partida egin degu;
18/4: galdu-irabazi; 18/5: gaizki itzegiterik; 18/6: ez-
tezu merezi; 18/8: damutu-erazi; 18/9: probintziari
oska.

★ ★ ★

Azkoiti'n jaio ta Zarautz'en bizi dan Patxi Larrañaga'ren eskutik ere jaso genituan bertso auek, makinaz idatzita. Geiegi ez luzatzearren, ez ditugu aldaketak esaten.

Tolosa'ko Estanislao Urruzola *Uxola*'ren kuaderno batean ere arkitu ditugu bertso auek, eskuz idatzita. Onen aldaketarik ere ez degu jarriko.

MENDATA'KO PALANKA-JOKUA

— | —

- 1/ Sugertie bota eben
aurretik zein asi,
Aulestiarrak egin eben
ori irabazi.
- 2/ Agaitik egin ziran
a petxutik asi,
eurok izatekotan
markiaz nagosi.
- 3/ Ikusi ebenian
borrauta markie,
orduan zarratu jakuen
piska bat argie.
- 4/ Aulestiarrak egin eben
sentimentu artu,
iru puntuarekin
atzetik gelditu.

- 5/ Euren mutil eder ori
lastimez agertu,
kontrarioa ezautu barik
oraindik gelditu.
- 6/ Edadien konforme
gorputza polite,
ain da mutil ederra,
begira egon leike.
- 7/ Azala urdiñe,
gorputza sotille,
Naria'rrak azi dabe ¹
ederra mutille.
- 8/ Geldirik egon balire
bai piska batien,
urtetxu bat edo bi
igaro artien.
- 9/ Biak joango zirian
irabazteko ustian,
desgrazi bat pasau da
orregaz Aulestia'n.
- 10/ Aprillaren erdian
bai amabostian,
Mendata'n jokatu zan
mezien ostian.

¹ Naria, Narea idatziz, Aulesti'ko auzo bat da, Aulesti'tik Nabarniz'erako bidean.

11/ Mendata'ra batu ziran
iru palankari,
Juanek bota eta
sakristauak ekarri.

12/ Felipe Urrutxua
aurrian zoztrari, (*sic*)
barre egiten zion
irurak alkarri.

Bertso auek, Gernika'ko Julio Bareño jauna zanak bialdu zizkigun, 1958 urteko azaroaren 24'an.

Aurretik, argibide jakingarri auek ematen zizkigun:

«Lexartza'ko Juan Goiriena'k eta Aulestia'ko Andres Uriguen'ek Mendata'ko eleizaldian izan eben jokoaren Bertso Berriak. Bertsolaria Iñaxio Zabalena *Xerendieta* izan ei zan.»

Tamalez, bertsolari orretzaz ez dakigu ezertxo ere.

MENDATA'KO PALANKA-JOKUA

— II —

- 1/ Bizkaia'n jarri dira
bai palankariak,
begira egoteko
gutziz egokiak.
- 2/ Gernika'tik ein dabe
albistia ekarri,
oraingo ez-bentajok
esaten alkarri.
- 3/ Kinto izateko dagoz
oraindiño biak,
orain kontau bioguz
euren istoriak.
- 4/ Meritua biar leuke
oraingo palankariak,
egiten dituelako
abilidade andiak.

- 5/ Lengo naia oraindik
etxaku amaitu,
ez-ta diruak bere
oraindiño amaitu.
- 6/ Mendata'n jokatu zan
palanka-jokua,
a ikusten joan zan
lagune naikua.
- 7/ *Goitiandi* ere bazan ¹
palankan nagosi,
oraindik biar leuke
nunbaiten bizi.
- 8/ Erregela sartu deu
iru eun da seiko,
Ibargoiti'k Markiñen
apuntaurik dauko.
- 9/ Ez da marka aundia
ori Bizkai'rako,
Andres'ek borrauko'itu
aren sasoirako.
- 10/ Sasoi ona dauko Juanek
ogei urterekin,
Andres oraindik gazte
amazortzirekin.

¹ Goitiandi, Aulesti'ko Zubero auzoko baserri bat da.

- 11/ Grazia ona dauko
palankiarekin,
baita segitzen dio ²
oraindik berakin.
- 12/ Pixukorik badago
nai leuke jokatu,
alturarik ein gabe
iñori bajatu.
- 13/ Aiketara ez da ere (*sic*)
entero argia,
apaizak emongo dau
orren sententzia.
- 14/ Gizon bat aurkitu zan
plaza egalian,
Aulestiarren alde
berba eiteko ustian.
- 15/ Zibillak artu zuten
inpentsamentian,
sartu biar ebela
kartzela batian.
- 16/ Juan egin zanian
plazara agertu,
zezen bat egin jakun
guri begitandu.

² Julio Bareño jaunak makinaz idatzitakoan, *palankaria rekin* eta *baira* irakurtzen da. Baiña *palankiarekin* eta *baita* bear duala uste degu.

17/ Plazia nora eguan
laster zan agertu,
Andresen barru ona
etzan asko poztu.

18/ Iñazio Zabaleña
egin jaku asi,
bera izatekotan
bertsuetan nagosi.

19/ Zenbat obetoago
biarko dau ikasi,
ofizio orretan
gure badau bizi.

Bertso auek, Gernika'ko Julio Bareño jauna zanak bialdu zizkigun, 1958 urteko azaroaren 24'an, aurretik oar auek ematen zizkigula:

«Aulestiarren izenean, *Ibaikatx* palankari eta Legarra Joxe Mari bertsolariak erantzun eben urrengo bertsuakin.»

Aurreko saillari emandako erantzuna da, beraz, onako sail au.

SEGALARIAK

(1893)

BERTSO BERRIAK

- 1/ Milla zortziregun larogei eta
amairugarren urtian,
sega-apustu bat jokatu degu
Errenteri'ko partian.
Bertso berriyak jartzera nua
euskera eder batian,
penak utzita umore onez
danak diberti gaitian.

- 2/ Uste ez nubela gizon luze bat
sartu zitzaidan etxera,
galdetu ziran: «Errenteri'ko
segariya zu al zera?»
«Abiso orrekin al zatoz
gaur ni, toriatzera?
Piska bat aritzen naizena»
erantzun niyon atzera.

3/ Kontuba ori orla pasata
ondorengo egunetan,
kuidado gabe segitu nuben
nere karguko lanetan.
Jendia armoniyan zebillen
publiko tabernetan:
Altzatarraren kontrariyoric
etzala erri onetan.

4/ Altzatar oiek lendabizitik
ziraden autikan bero,
bañan ori jakiten baita
ondo probatu ta gero:
«Guri irabazteko segaririkan
Errenteriya'n ez dago,
erdi lotan ere igual
oieri jokatu ezkeru.»

5/ Noizbait biar ta zerratu degu
geren sega-apustua,
pasa bezela deklaratzia
litzake nere gustua.
Jokalariya, danak dakigu,
umilla eta prestua,
bañan gizon luzia ori
etzan ibilli justua.

- 6/ Izketa legun, afana franko
eta jolasdun lañua,
apustura jokatutzeko,
jaunak, orren enpeñua!
Ustez mesede zibelakuan
atera zaio dañua,
sobra aldrebes jua zaiote
aurtengo kuku-soñua.
- 7/ Ziertorikan eztakit baño
bost lagun biar zuten izan,
aditu dedan bezela
orain nai nuke esan.
Marmita esnia zegon txintxillik
Altza'ko Eguzkitza'n,
ura eranaz noski mutillak
oso dotore zabiltzan.
- 8/ Esnia artuta jua ziraden
danak lasterka igesi,
Banua aldeko sagardiraño
beren marmita eta guzi.
Ustu ta ondoan sagarrez bete,
gañera txintxillik utzi,
orrela dabillenak ezin
apustura irabazi.

- 9/ Apustura jokatzeko bezperan
dira orla ibilliyak,
gezurrik eztet kontatu naiko,
danak dirade egiyak.
Konduta oneko gaztiarentzat
orra pauso egokiyak,
ganantzi aundirik ez du atera
ango esne-tratalariyak.
- 10/ Jokalariyak konbeni baita
nor diran adieraztia:
Gabriel del Puerto Altza'kua,
oraindik mutil gaztia,
Jose Inazio Loinaz deritza
irabaztuna bestia;
onen prueba ikusi arte
eskarmentatu eztia.
- 11/ Altza'tarraren erakustalle
Goiarri'tikan gizona,
Errexildarra izan biar du,
errero aritzen dana.
Edoziñek izaten dubena
ark ere galdua pena,
zergatik ez duben logratu
berak desio zubena.

- 12/ Ainbesteraño oien fabore
jauna ori da aplikatu,
mundu guziyak ikusiya da
eta nai det esplikatu.
Irabazia desio zuben,
argatik du peliatu,
saiatu dira bañan alferrik,
etzaiote baliatu.
- 13/ Gauza publiko ibilliya da
aditutzeko moduan,
dudarik gabe bera besterik
ezta izango munduan.
Desafiyua ala egin du
au ikusi eta onduan,
oraindik ori probau da
zenbaiteraño dagan.
- 14/ Iruritzen zait ontaz aurrera
alferrik ari naizela,
berriz apostu-lan oietatik
eskarmenta ditezela.
Uste al zuten aman semerik
bestetan iñun etzeula? ¹
Burla aundirik eztute egiñ
desio zuten bezela.

¹ *Etzeula, etzegola* izango da, *etzela* punturako ego-kiagoa bada ere.

15/ Gazte nitzala sortu zitzaidan
orlako afiziyua,
zergatik beti izandu dedan
gustoko ofiziyua.
Pakian neguen lekura
piztu da okasiyua,
iñork ikasi nai baldin badu
orra eman leziyua.

16/ Orra amasei bertso berri
atera Errenteriya'n,
iñor inkomodatu gabe,
ondo zelebrequerian.
Lenago jendia zeguen
oso tristura aundiyan,
orain jaietan kanta ditzagun
lasai sagardoterian.

Bertso-papera, moldiztegi izenik gabea,
Errenteri'ko Jertrudis Arrieta zanaren es-
kutik jaso.

(1909)

«MEREZI DUAN PERSONA BATI...»

1/ Merezi duan persona bati
jartzera nua bertsoak,
arronkan pasa ditualako
orrek bost urte osoak;
biar bezela esplikatzeke
nola diraden pausoak,
orretarako lagun iguzu,
gure Jaun amorosoak.¹

2/ Bertso oriek izango dira
apostu baten gañean,
eztakiena enteratuta
jarri dedin jakiñean;

.....
.....
.....
.....

¹ Gramatikak *amoroso*a eskatzen du emen. Baiña puntarako *amorosoak* bear du eta ala jarri.

3/ Zeruko Aitak laguntza beti
jazarriko du egoki,
al dezutenak ikasitzeko
intentziyua eduki;
apostua zan segaz belarra
zeñek geiago ebaki,
ori zer moduz portatua dan
jendia prankok badaki.

4/ Agorrillaren ogei ta bata,
au Zumaia'ko fedian,
kantuz asi zan sega-kontuan
guztiz ausardi aundian:
kontrarioa ateratzeko
baldin bazegon errian,
ta Jose Mari jabetu zaio
esan zun arrazoyian.

5/ Jose Mari au prestatu zaio
apostua jokatzeko,
bere anai bat badadukala
aren kontra ateratzeko;
konforme bazan lengo itzetan
señalia ateratzeko,
biamonian biltzeko berriz
joku dana zerratzeko.

6/ Esan bezela juntatu giñan
danok paraje batera,
kondizioak señalatuta
egin genduan papera;
orretarako guk izateko
zelaiarekin aukera,
gure orduko izketa danak
ez dira ongi atera.

7/ Iru zelaitik bat aukera egin
paperian zan kostia,
aietatikan libre genduzkan
naiz bata ta naiz bestia;
Ertxitxanian zelaiarekin
egin degu ajustia,
Agustin ori pentsatu degu
toki ortan ikustia.

8/ Ertxitxa ortan señalatu zan
belarra ebakitzeko,
bezperatikan alkatiari
segak entregatutzeko;
ark amoztu ta bakoitzak bere
erremintak zorrozteko,
egokiena orixe zala
alkar ongi probatzeko.

9/ Egun orretan segak konpontzen
biak giñaden aritu,
orren orduko gauza batekin
sekulako naiz arritu:
janari dala zortzi arraultza
ta ollasko osua jan ditu,
belarra gutxi ebaki zuen,
etzion asko serbitu.

10/ Gure belarrak oiek biltzeko
eta guk igual aienak,
ala zioten paper orretan
jazarri ziran ordenak;
guk baño obeto oi bazekien
ori ikusi duenak;
nik ebakiak sasira bota
nai izan ditu geienak.

11/ Kotxe guztia ostoz beteta
Agustin orrek aidia,
bazirudien bera ote zan
irabaztunen jabia;
errespetuan ibilli balitz
askoz itxura obia,
alkatiari eraman dio
sega kirtenik gabia.

12/ Kartutxo-pilla izugarri bat
bazuan orrek artua,
sututa tiratzeko asmoan
irabazirik jokua;
badadukala iruditzen zait
alde bateko tratua,
lengo kargakin ostera buelta
eramateko zakua.

13/ Eztan gauzarik bat bakarrik e
apenas det nik itzegin,
biartuta ta ondorenian
okerrik izan ez dedin;

.....
.....
.....
.....

14/ Neure kristauak, jakin dezute
apostu orren klasiak,
amabitxoak minutu dira
sega-lanian pasiak;
berri onikan eztu ekartzen
gauza aldrebestutziak,
orregatikan izandu dira
nere bertsuak jartziak.

15/ Aizpurua du apellidua,
Jose Agustin grazia,
au Zumaia'ko naturala da,
bertan jaio ta azia;

.....
.....
.....
.....

Bertso auek paperetan ere zabalduko ziran. Bañan olakorik ez da gure eskuetaraño iritxi. Guk Oñati'n jaso genituan, 1955'ko udaran, Bartolome Olalde'ren aotik.

Batzutan, etzigun bertsoa osorik esan. Utsune oiek puntuz idatzi ditugu.

Bartolome Olalde'k esan zidanez, bertso auek 1909 urtekoak-edo dira.

Liburuetan ez degu apostu onen aita-menik ikusi. Bearbada, egunkarietan zerbait arkitu diteke.

BERTSO BERRIYAK
AURTENGO SEGARIANTZAKO JARRIYAK

- 1/ Jose Manuel Alzarra
katak jartzera dijua,¹
uste det-ezik motibua ere
badaukatela naikua;
aurten Tolosa'n atera da
mutil koskor bat txit pijua,
gusto dubenak jakin dezala
au da lendabizikua.
- 2/ Sei arroba du pisuba eta ²
ogei ta bat urte erare,
uste det-ezik eztala jua
plazara indarrik gabe;
belarra bientzat ebakitzen zun
kupira aundikan gabe,
orren kontra atera'iranak
koskorragoak dirade.

¹ Bertso-paperak: *kanta*.

² Guk erantsia da *eta* ori, neurria osatzearren.

3/ Mutiko koskor txuri-gorri ori
asko gustatzen zait neri,
izketan ere erregularra
ta indarra dauka ugari;
nai duban aña arrautzak berriz
kendutzen dizka amari,
urrengo urtian e utsan peskisan
orri jokatzera jua n ari.

4/ Berebiziko jipoia eman du
Albiztur'ko segariyak,
zenbaitentzako eztu indarrik
jan ona eta erariyak;
mundubak ziran Iturriotz'a
oik ikustera etorriyak,
leku onian gelditu dira
orren panparroikeriyak.

5/ Prantxuleta juaz jua omen ziran
jokuba jokatzera,
nik ez nituan ikusi baño
laister eman ziren aitzera;
oiek zebiltzen triste zegona
puxkan bat konsolatzera,
bueltan alako arro guzik gabe ³
etorri ziran atzera.

³ Bearbada, *gauzik* bearko luke.

6/ Orain bi ürte giñan gu
joku ori zerratzen asi,
gure auzuan gizon koskor bat
erronkaz zegoan nausi;
abisatuta propiyo gendun
gerena ekarri azi,
andria zeukala enbarazatuta
laister juan zan igesi.

7/ Mundu onetan pensatuta ere
kristau zelebriak badia,
orrek bazekin segan eiteko
nun zan onena tokia;
ni txokatzen naiz goatuta ere
kontu oiek esatia,
asterako ere ez ote zekin
nola zeukan andria?⁴

8/ Segapoto're iyez Iturriotz'en
korrika etzan gelditu,
zaku koskor bat esku banetan
bueltak azkar iñak baditu;
ori tontua izango ote zan
jendiari iruitu,
bi urtetako partiak aurten
ederki etxeratu ditu.

⁴ Bertso ontako puntuak onela daude bertso-paperean: *badira*, *tokiya*, *esatia* ta *andria*.

- 9/ Ori ezkontuta jarri zanian
zendun bajeza antzian,
garai artako debildariak
orain aspaldi joan zian;
millaka pezetak dabizki eskutan
ezertara biyartzian,
gizon koskor bat bizkorragorik
bat ezta mundu guztian.
- 10/ Albiztur'ko segaria aurrena ⁵
lanian asi zanian,
belar ebaitzen aña denbora
pasatzen zun egoniam;
saio txiki bat bizkor egin zun
denbora juan zanian,
presa egitiak eztu baliyo
urak juaten diranian.
- 11/ Jarri zaitezte oien kontubak
nolakuak diran aitzen,
guez kamiñon aitze'omen ziran
oiek belarra ebakitzen;
irrist ta arrast makilla utsakin
arrastaa aundik botatzen,
bizkaitarrak e olaxe asi omen ziran ⁶
kutxilloik gabe txerri iltzen.

⁵ Bertso-paperak: *segari*.

⁶ Bertso-paperak: *Bizkaitarrake olatze aitzcomentzi-
ran*. Kutxillorik gabeko txerri-iltze orretzaz, ikusi Biz-
kai'ko txerriaren bertsoak, *Auspoa* 95-96, 38'garren
orri-aldean.

12/ Arraistalliak ere izan dira
aurten oso dotoriak,
belarra aixa ebakitzeko
baziran abildariak;
mundu (b) onetan zenbait persona
bakoitzak bere iriak,
zarra obena egongo ote dan
ala esaten du jendiak.

13/ Irabaztun ori lanian aixa
belatze tontor batian,
ollo erdin bat eraman zioten
eltze koskorren batian;
iztarrik aundiyena jan ziyon
zazpi o zortzi kolpian,
a, zer arrastaak bota zituben
andik atzenera artian!

14/ Nere buruban etzan asmorik
iñor e mendratutzeko,
baño alako enkargo batzuk
etorri dira neretzako;
nik e zerbait egin bear nuben
jornala irabazitzeko,
jokatu ezkeru batek galdu biar,
ori ezta arritutzeko.

15/ Probintzia Gipuzku ontan
diperentzi aundik dabilta,
alkar ikusi eziñik degu
ori da guk dakagun gaitza;⁷
gu berriz alakuari orain
bertsuak jartzen gabiltza,
eztauzkat oso preziyo altuban:
amar zentimon bakoitza.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea,
Arantzazu'ko bilduman arkitua.

Lenengo bertsoan egilletzat agertzen
dan Jose Manuel Alzarra, ez dakigu nor
izan zan.

⁷ Bertso-paperak: *orida gu danagun gaitza.*

ABERE-PROBAK

BERTSO BERRIAK
AURTEN JARRIAK
PROBA BATEN GAÑIAN
TXIT BARREGARRIAK

- 1/ Kantatu gura ditut
zenbat bertso berri,
aditzen emateko
probalariari.
Dirua jokatu da
publikuan garbi,
baita depositatu
Presidentiari.
- 2/ Muniketa'ko landan
prob'au da jokatu,
oge ta amarna dukat
eben presentatu.
Don Juan de Zugadi
euren tesorero,
irabazten dabenak
artzeko seguru.

3/ Zenbat proba ta joko
diradez jokatu,
iñok onelangorik
eztu ezagutu.
Irebazten dan gauza
edozeñek artu,
galdu dabenak gero
atzera eskatu.

4/ Personak klaru biar
leuke jokatu,
ez zenbatek bezela
atxakia artu.
Jentia euki eban
ainbat erreparu,
argaitik esan eben:
«Ak irabazi du.»

5/ Jose de Undagoitia
lbarruri'kua,
postura egiñ arren
damutu bagakua.
Jenero guztietan
kreditu onekua,
proba bat egin eban
irabaztekua.

6/ Beaskoetxea asi zan
aurrena egiten,
Undagoitia gero
arena estaltzen.
Gizon asko ziraden
proba ori ikusten,
publiko dan gauza bat
nor dua ukatzen?

7/ Plaziak eman eban
onradamentian,
postura gelditzeko
Undagoitia'gan.
Beaskoetxea'k gero
damu artu eban,
Zugadi jaunen kontra
disputia eman.

8/ Sententzia galdurik
gero pensatu dau,
Undagoitia'gana
demanda jirau dau.
Gernika'n justiziak
orduan asmau dau:
jokua nulo dala.
Au nok ikusi dau?

- 9/ Legeren batzuk diraz
berriak etorri,
mejorak emoteko
galdu dabenari.
Nungo juezak leike
ametidu ori?
Bestela preguntatu
abogaduari.
- 10/ Erriko Justiziak
lizentzia emonik,
posturia austeko
ez dago iñon juezik.
Gobernadore jaunak
leike au bakarrik,
da ez Gernika'ko juezak
legia ausi barik.
- 11/ Juzgatuteko gauza
berriz autortuten,
beste onelako bat
zeñek du ikusten?
Diru irabazia
atzera ematen,
nor abiatuko da
gauz ori egiten?

12/ Galdu ebenak nora
egozan begira,
akabatu zanian
proba aren jira? ¹
Pasatu eta gero
eman arpegira,
aditzen emango det
Bizkai'rik erdira.

13/ Gizona izan baziña
buru onekua,
etzendun eskatuko
postura galdua.
Askok artu biar dau
zeure ejenplua,
baña ori izan da
traizioz artua.

14/ Gura neuke gizonak
jokuan jokatu,
galduaren dirua
atzera jiratu.
Beaskoetxea, orrela
nun ikasi dozu?
Onoriak galtzeko
bera asko dezu.

¹ Bertso auek artu ditugun tokian: *probaren jira*.

15/ Don Juan de Zugadi
alkatetzat artu,
bere obedentzian
genduan jokatu.
Parte biok orduban
ginien kontentu,
baita geure diruak
berari largatu.

16/ Jose de Beaskoetxea
Ibarruri'kua,
Jose de Undagoiti'en
kontra jokatua,
jente askoren bistan
pruebia galdua,
atzera eskatzen dau
deretxo bakua.²

17/ Irabazi badozu
guztia oso kendu,
norberen gauza iñok
eztu gura galdu.
Bestela juezari
zazu preguntatu,
papelak artu eta
Burgos'era sartu.

² Toki danetan *baguia* arkitu degu. Baiña dudarik ez da *bakua* bear duala.

18/ Probetan ainbat diru
diradez jokatu,
alterazio bage
galdua pagatu.
Iñok zer esanikan
ezin leike artu,
egin ezketizko
proba akabatu.

19/ Sarri egiten diraz
errietan probak,
parte biak jarririk
defensore onak.
Gañera alkate ta
presente daozenak,
mejorak jasoteko
geiago direnak.

20/ Batetik iru eta
bestetikan zazpi,
testigantza ematen
ziradela asi.
Tranpiakin ezin lei
asko irabazi,
galdu nai eztabena
ezpeiteke asi.

21/ Jose de Beaskoetxea,
presente euki:
galdu arren dirua
ez izan erruki.
Publiko zan postura
bertan erabagi,
diruak emateko
Undagoitia'ri.

22/ Jentiak jokatzen du
ainbeste partidu,
batzuek irabazi
ta bestiak galdu.
Oin artian onela
diraz gobernatu,
ez galdutakorikan
iñori eskatu.

23/ Jose de Beaskoetxea,
zu zera probari,
ziur irabazitzat
ete ziñan asi?
Orrenbeste meritu
eztozu merezi,
indar geiago daukanaz
ez zaiteke asi.

24/ Zenbat diru al dezu
atzera eskatzen?
Irabazi ezker
saiatu kobratzen.
Ikusi ete dozu
zorren bat parkatzen?
Egin dan probarekin
etzara portatzen.

25/ Jose de Beaskoetxea,
au da despedida,
ze tranpa egin dozun
orain agiri da.
Legietan tranposuak
geiago badira,
urrengo proba baten
agertuko dira.

Bertso auek, aleman baten liburuan argirataratu ziran: *C. A. F. Mahn: Denkmaeler der baskischen sprache, Berlin, 1857*. Andik kopiatu ditugu.

Duvoisin kapitanak eskuz idatzita osatu zuan bilduman ere, azaldu dira bertso auek. Aleman liburu ortan bezalaxe azaldu ere, batere aldaketarik gabe.

Bilbo'n, Bizkai'ko Diputazioaren liburu-

tegian ere arkitu ditugu bertso auek, eskuz idatzita eta aldaketa pare onekin: 12/6: eman arpeguia; 14/3: galduarren dirua.

Zornotza'ra gabe Durango'tik Gernika'-ra kamioz goazela, antxe daude Muniketa'-ko gaiña eta auzoa: iru bat baserri, alegia, kamioaren ertzean. Itxura danez, landaren bat bazuten an garai artan, probak egiteko.

BERTSO BERRIAK

- 1/ Amigo batek enkargatu nau
lengo jai-arratsaldian,
eta beraren pensamentuba
nago kunplitu zalian;
bi animala izugarriyak
ibilli dira pelian,
ilbetz illaren amalabian
amaika t'erdik aldian,
kolpe gogorrak eman dituzte
Elgoibar'ko kalia.

- 2/ Plazari ongi begiratzen diyo
zein tokitan dun izkiña,
nik ori nun-nai aitortuko det,
ezta langille zikiña;
mutur zorrotza, adarrak beltzak
eta intentziyo fiña,
mugimentuak listuak eta
ankaz ibildun ariña,
seta gaiztozko animaliya,
batalla asko egiña.

- 3/ Jendia franko inguratu da
kanpotar eta erriko,
soñian ongi dotoretuak
beren galtza ta gerriko;
gutxinekoz berrogei milla
betar eta goierriko,
zer kantidade arriskatu dan
ongi ez nuke neurriko,
ari beltz aren kapitana da
Pablo Iturrigorriko.
- 4/ Orren plazara presentatu ta
joka asteko graziya,
gustaturikan geldituba da
ikusi duben guziya;
zazpi lekutan jokatu eta
danetan irabaziya,
batalla galdu bañan lenago
utziko luke biziya,
otso zar batek aña badauka
indarra ta maleziya.
- 5/ Golpia nundik eman badaki,
begiyak dauzka argiyak,
sekulan ume pizkorragorik
egiñ ote du ardiyak?
Orrek buruan dauzkan adarrak
dira ikaragarriyak,
modu orretan zazpi apustu
irabazteko ariyak,
lepua eta kostill-ezurrak
eztitu biar eriyak.

- 6/ Kara gaiztoko animaliya
mundu ontan agertuba,
pisu aundirik eztauka baña
gorputzez ain da gertuba;
sei urte ta erdi kunplitu zaizka,
oraindik ezta zartuba,
indarrak egiñ baño lenago
juiziyuan sartuba,
enemiguba bentzutziatik
amaika golpe artuba.
- 7/ Gizonen batek esan omen du
Azpeitiya'ko kafian
apustu ori izango zala
Bilbaotarrantzat kaltian;
izutu gabe berrogei eta
amabigarren golpian,
arto-gosiak eztet eruki
juan daneko sei urtian,
nai duban aña emango diyo
bizirik dagon artian.
- 8/ Aitona zar bat Azpeitia'ra
bere makilla ta guzi,
berrogei golpe inguru artan
plazan ojuka zan asi:
«Bilbaotarraren ariya, laister
juan biarra dek igasi,
uste detanez azpeitiarra
aterako dek nagusi.»
Susto aundirik etziyen eman
Pablori eta Gomez'i.

- 9/ Iru-lau gizon ariyarekin
pentsatu zuten juatia,
Gomez gogotik enpeñatu da,
bazaukan borondatia,
Pablo Iturrigorrikuaren
asistente maitia;
elkarri asko nai diyotenak
ongi konpontzen baitia,
Gipuzkoa'tik ekarri dute
alabentzako dotia.
- 10/ Zazpi batalla jokatu ditu
gogorak eta luziak,
beti etorri da irabazita,
eztu poztutzen galtziak;
obra beretik ezagutzen det,
ezta egondu gosiak,
orren golpiak lareun eta
irurogeitan pasiak,
marka ori ezin ondu lezake
azpeitiarren klasiak.
- 11/ Ari-jabia ibillitu zan
natural eta seriyo,
zergatik gizon onraduba dan
jendiak asko nai diyo;
Pablok badaka gizon orrentzat
len ainbeste amoriyo,
bitatik batek galdu biar du,
ia zer erremeriyo,
bertsu oiek jarri ditugu
artzai bat dala meriyo.

12/ Berrogei eta amabost kilo
ditu guriak bajatu,
bestia zerbait aundixiago
bañon etziyon lajatu;
golpe gogorak eman zizkiyon,
etzuen ongi tratatu,
topeka eta adarkazoka
buru guziya markatu,
zerbait geiegi esan badegu,
azpeitiarrak, barkatu.

Bertso-papera, *Imp. y lit. de V. Iraola*,
moldiztegian argitara emana eta Errenteri'-
ko Enrike Elizetxea zanaren bilduman
azaldua.

Bilbao'ko eta Azpeiti'ko bi aari Elgoi-
bar'en probatu dira eta bilbaotarrak iraba-
zi.

Eguna: Ilbeltzaren 14'garrena. Bañan
urterik ez da esaten.

Ondoren, irabazleak osterera Gipuzkoa'ra
jo dute eta bertso auek jarri arazi. Tama-
lez, bertsolariaren izena izkutuan gelditu
zan.

MUXIKA'KO PROBAK
TXOTXO-JEURI'N BERTSOAK

1/ Muxika'n pasatu da,
au da komedie,
teille-posture egin da
juan Bizkargi're.
Andikan bueltatu ta
Taberna-barrire,
probia armatu da
jira eta bire.

2/ Amabi ta erdietan
a zan terzioa,
gizonak eukiteko
ona juzioa.
Agustin alkatie
Luparia'koa,
kontrarioa barriz
Markes Jauri'koa.

- 3/ Posture armatute
bai ere jokatu,
irabazi ebanak
ezin leiken galdu.
Arro dabillenari
zer jakon gertatu,
galdu eta berandu
gero akordatu.
- 4/ Lumo aldetik jaku
kontrakua agertu,
Joakin Agerre'koak
posture zarratu.
Baiña aren esanaitik
ez gendun pentsatu
Astelarre'n ingo zan
probarik jokatu.
- 5/ Esandako berbie
an eban kunplitu,
bai eta sasoirako
idiek plantatu.
Lenen Muxikarrari
jaken suertatu,
bigarrenak arraiek
ez zitun zarratu.

- 6/ Lumo baiño gorago
dago Erregoiti,
kontrarioa barriz
parte orretati.
Axio ta Txordoa
orroaka beti:
ez dirala ikeratzen
klase zuriaiti.¹
- 7/ Kaitano Erregoiti'tik,
Pedro Muxika'tik,
lizentzia ekarteko
Gobernu aurretik.
Ez eben ezer lograu
alegiñakaitik,
bakia oba zala
Jaungoikoagaitik.²
- 8/ Bake, ba, egitie
genduan pentsatu,
Gernika'ko frontoian
bai ere juntatu.
Baiña idi-jabiak
ziraden gogortu:
«proferzaz»³ ein bear zala
proba ori jokatu.

¹ Zuriak Muxikarrak ei ziran.

² Bilbo aldian bazkari ederra jan probalarien kontura eta etxera ezer egin barik. Olako asko egiten zan orduan-eta.

³ Erderaz «por fuerza» izan bear dau «proferzaz» orrek.

- 9/ Elgoibar'era parte
genduan bialdu,
ango alkate jaunak
euskun kontestatu:
paratuko bidian
egiteko segitu,
berak eingo ebala
plazia libratu.
- 10/ Urrengo sapatua
zan señaladue,
Elgoibar'en ikusteko
idi indartsue.
Lau juan ziran eta
bat egon notaue:
Muxika'ko idi txiki
gorri apaltxue.
- 11/ Atsalderako ziran
zuri beillegiek,
ederto asitakoan
egiten arraiek.
Baiña azkenerako
illundu begiek,
geiau izan zirala
aurreko txikiek.

12/ *Axio* eskumatatik,
Txordoa besteti,
larri ibilli zituen
ogeta amabi.
Geiago ezin eben
alegiñagaiti,
baiña ondo kunplituek
ogeta amaika ta erdi.

13/ Erregoitiar majuek,
nun dozuez begiek,
sekula ez ezautzeko
olango idiek?
Ondo edukiaitiek
okelaz josiek,
geiago izan zirala
aurreko txikiek?

14/ Erregoitiar majuek,
ez zaize ikeratu,
galdutako diruek
bozuez pagatu.
Bi jua ezketiño
batek bear galdu,
galdu ta beranduan
oi da akordatu.

15/ Orra amabost bertso
ditugun jarriten,
ejenplugarritzako
atariak aurten.
Borondate onagaz
dituguz egiten,
gura daunak erosi
txakur aundi baten.

Bertso auek, Muxika'ko Balendin Enbeita bertsolariaren eskutik jaso genituan, makinaz idatzitako orri batean, emen ezarri ditugun oarrak ere bertan zituala.

Bere aitonak jarriak omen dira, teilleapustu bat eta idi-proba bat dirala bide. Aiton orren izen-deiturak, Juan Antonio Enbeita ziran.

Doñua ere kantatu zigun Balendin Enbeita'k. Manetofonoz jaso genion eta ona emen papereratuta:





Karmel aldizkarian, 1978'ko bigarren alean, bertso auek agertu ziran, *Iturriko*'k bialdutako *Bizkaiko bertsolaritza zaharraz* idaz-lanean.

Bertso auek, 1870 urtekoak dirala dio. Berak ere, bertsoak Balendin Enbeita'ren eskutik jaso zituan. Ala

ere, aldaketa batzuk baditu. Onako auek: 1/3: teillo postura eginda; 1/5: andikan buelta eta; 3/7: galdu eta beranduan; 3/8: oi da akordatu; 4/1: Lumo aldetik jakun; 4/5: baiña aren esanaz; 4/7: Astelarren eingo zanik; 4/8: proba ori jokatu; 5/6: jakin subertatu; 5/7: bigarrenak ez zituan; 5/8: arraiok zerratu; 6/7: etxirala ikaratzen; 6/8: klase zuziaiti. 7/7: bakean egon obe zala; 8/1: Bake bat egitia; 8/3: Gernikako frontoira; 8/7: profezaz bear zala; 9/1: Elgoibarrera gendun; 9/2: gero abisatu; 9/5: jarritako bidian; 9/7: bere kontura eingo zala; 10/6: bat zegon notaue; 11/3: ederto azitakoak; 13/3: ondo ez ezautzeko; 13/4: alango idiek; 14/2: ezaizue ikeratu; 15/7: gura dabenak artu.

PROBALARIAK

- 1/ Ogei bertso berriyek
mendiya jarriyek,
Morga lurrian eta
geure poderien.
- 2/ Ikasi ta kantau deu
euskeldun guztiek,
Bitor de Bilbao'k ditu
berak atariak.
- 3/ Sentidu eiten dire
ango apatx-otsak,
atarako eutsozala ¹
bertsoak garratzak.
- 4/ Begi illuna dot nik
uri zeukan ertza, (*sic*)
ezer eztakiena
izan leike lotsa.

¹ Julio Bareño jaunak bialdutakoan: *euzola*.

5/ Biba Tomas famoso,
biba botillero,
ondo meniatirik
Axio ta Txordo.

6/ Tomas balientie
ondo enpeñatu,
bere kulpaz eztaizan
ango lanak galdu,
Ixidro ori zala
pixkat biotzkatu.

7/ Biotzka egon arren
izan leike fiñe,
ezta guztiorena
biotza bardiñe.

8/ Enpeñatu zirian
zerbait alegiñe,
etziran oberenak
ainbeste premiñe.

9/ Animatu gizonak
trabes egiteko,
gure arraie orrek
ez dute borrauko.

- 10/ Asi zuan *Txordoa*
tiratzen benetan,
Axio'k be luzatu
kokota zanetan.
- 11/ Erregoiti aldeko mutil bi
banoa lonbretan,
probatarako ziran
desafioetan.
- 12/ Alan kontetan eben
Bizkargi'ko puntan:
dirurik ez ebela falta
iñoiz euren boltsan.
- 13/ Bolanderak botatzen
proba galduena,
olan aurkituten zan
taberneru zarra.
- 14/ Aditu zubenian
bolandera otsa:
Biba Erregoiti ta
biba Bizkaigana!
- 15/ Anton Bizkaiganekok
euren idieri:
garri txarra jan eta
ardaua edari.

- 16/ Agustin de Enbeita'k
konpañe orrekin,
Elgoibar'en sartu zan
indar andiakin.
- 17/ Erregoitiarrak ziran
orduen pentsetan:
zer izango ete zan
euren posturetlan.
- 18/ Laster igarri eben
Erregoitiarrak
galdu biar ebela
euren proba dana.
- 19/ – Artu ezpagenduen
orrelako plana!...
Azkenengo plazatik
igesi zuen danak.
- 20/ Agustin de Enbeita
Luperiya'kuak
bazter ederra dauka
bere etxe aldian.
- 21/ Ezta an faltatuko
orrentzat artoa,
ondo portatu dire
Axio ta Txordoa.

Bertso auek, Gernika'ko Julio Bareño jaunak bialdu zizkigun, 1959'ko Uztaillaren 23'an.

Aurretik, argibide jakingarri auek ematen zizkigun:

«Orain 73/74 urte izan zan Gipuzkoa'ko Elgoibar'en idi-proba entzutetsu bat. Jokolariak, batzuk Erregoitiarrak ziran eta bestiak Muxika'koak; bizkaitarrak, beraz. Aldi aretan, Bizkaia'n probak galerezota ei egozan, eta olan Elgoibar'era joan zirean.

Erregoitiarrak diru askotxu galdu ei eben, eta euretariko gizon bat –gaur bere semia Gernika'n bizi da– etxetik urten eta, eukona eta ez eukon guztia galdu ta gero, etxera bere biurtu barik, Elgoibar'tik Ameriketara–edo joan ei zan, eta geiago ezta bere barririk jakin.»

Bertsoen ondotik, berriz, beste argibide auek:

«*Axio* ta *Txordoa* idien izenak zirean, eta euren ugazaba Agustin de Enbeita, *Luperiya* Muxika'ko baserrikua.

Erregoitiarrak, proba irabazi zuelakoan, gertauta eukezan bolanderak jaurti zituzan. Ardura au, Erregoiti'ko taberneru zarrak euki eban. Orregaitik dira euren bibak eta zaratak.

Bertso oneen egillia Bitor de Bilbao itsua zan.

Dana esan bear, bertso naste au uler-
tuko bada.

Beste idien jaubia, Anton Bizkaiganeko
Erregoitia'koa zan.»

Eta bertsoak noren aotik jasoak zituan
adierazteko, onela zion:

«Ramona Madariaga eta Lezeranzu, Bi-
zente Idoiaga'ren alarguna da eta 88 urte
ondo beteta ditu. Baldatika.— Forua (Biz-
kaia)'ko Goikoetxea basetxian jaio zan.

Amabost seme-alaba izan ditu eta gaur
amaika bizi dira, bi ez bestiak ezkonduta,
eta bat, Aita Martzeliño Prantziskotarra,
Arantzazu'ko organista.

Abestuten dauzkutzan bertsuok, bere
gazte aldian ikasiak dira bere jaioterrian.

Euskeraz naiz erderaz ederto irakurten
dau, eta idatzi bere oso polito.»

Bearbada, irakurlea oartuko zanez,
bertso-sail au eta beraren aurrekoa, idi-
proba berari jarriak izango dira.

BERTSO BERRIAK
GARAGARRILEKO PROBAREN
GANEAN JARRIAK

1/ Siglo zar ori akabau jaku,
oin sartu gara barrien,
esperentzie pasau ein jaku
geuri Loiu'ku errien.
Gure Jaunari grazia orain
noa egiten eskatu,
bost buzterri. . . zer. . .
Jose.

2/
.
.
.
.
.
.
.

3/
.....
.....
.....
..... oa

Goierritar. . . te beti
Loiu'ti diru eroten,
Jose Manuri ailao bildurrik ¹
inok ez deutso emoten.

4/ Prezisamente diru faltarik
eztago orren artean,
baia ez da egoten fazil
orreri aurre artzean.
Goierritarrak olao gauzetan ²
Basañez deude burua,
bolsan lez kontau premia ta
au da dekozun modua.

5/ Gure Jaunaren grazi bagarik
olanik ezin asi nai,³
Goikose'koak ogetak eta
Pinu'koak tarda deituez sei.
Ziriakok bere barragarri bi
ara egi'zitun eron,
zer entenidu Jose Manuri
aiek ei jotsean emon.

¹ *Ailao*: *alango*, edo *ailango*, 6/7'garrenean bezela.

² *Ola*: 12/1'garrenean ere azaltzen da. *Olango* bezela da. Eta 11/2'ean *olaorik* esaten da. *Olangorik* bezela izango da.

³ Bertso-paperak: *olaric*. Baiña *olanik* bear dualakoan, alaxe ezarri degu. Eta, bearbada, *asi nei* edo *asi lei* bearko luke emen.

6/ Karrateruak erbestekoak
egin deitue ekarri,
aurreti ibilitea peseagaitik ⁴
ausera lotu ein sarri.
Gizonakgaitik zer esan txarrik
inok be ezi'lei euki,
ailangoakaz aiek idiek
ez dire ibilli beti.

7/ majoak ziran biek bere
. e egon zana atzeti
. laukota atera eben ⁵
. Loiu'ko erritik.
. a iru Loiu aldean
. ndea ocho,
. ta zuk, Jose Manu,
. ie motxo.

8/ Karrateruak izen in dire
Felix te Arzubi'koa,
Fernando, zuri emon ein jatzu
zer entendidu naikoa.
Ostute egoterik etxat gustetan, ⁶
garez Otxotene'koak, ⁷
desafiorik gure badozu
badagoz proba-lekuak.

⁴ *Peseagaitik*, erderazko *pese a... edo a pesar de...* izango da. Eta *ausera lotu*, *atzera gelditu*. Alegia: aurretik ibiliagatik, sarritan atzera gelditu.

⁵ Bertso-paperak: *eden*.

⁶ *Ostute*: *izkutatuta*.

⁷ *Garez*: *gara, gera*.

- 9/ Etxat gustetan sartu iterik
 niri orrelanko salsan,
 kornetea jo egin sostean⁸
 lau minutuaren faltan.
 Jutzizi orrek egun orretan
 ain de burue kakaztu,
 ofensa txarrik emon badotsat
 egin daitazu parkatu.
- 10/ Guzurrik arean eno'iminten,
 guztiak dira egiak,
 arri koskolik ez deude bear
 Otxotene'ko idiak.
 Edozin gauze egi-aziten du
 bakotxak geure errian,
 inok arririk ez uen imini
 nire begien aurrean.
- 11/ Ez dot pensetan pausau iterik⁹
 olaorik neure aldian,
 zeuk gu'zunean probako dira¹⁰
 zein gurdian zein arrian.
 Ondiño bere bear dan legez
 escitudesca ondrau,¹¹
 neu bere jakitun egon naitean
 eizu egune nonbrau.

⁸ *Sostean: eusten, zidaten.*

⁹ *Pausau: pasau, pasatu.*

¹⁰ *Gu'zunean: gura dozunean.*

¹¹ *Escitudesca ori, ez gaituez edo orrelako zer bait izango da.*

- 12/ Olao lekuen ber leukez euki
 listo jenteak begiak,
 onik aurrea esango'zuz¹²
 nongoak diren idiak.
 Pinu'kuak ziren altuengoak,
 arik lasterren nireak,
 ondo dakigu zelangoak diren
 Loiu'ko alkaten ideak.
- 13/ Zazpiterik sei beti te beti
 egin llariok artu,
 sustu galanta Jose Manuri
 aiek egin deutse sartu.
 Kriedu onak deitu llariok
 idiri jaten emoten,
 ari eleio iñok bentaj'au
 iruterik bi eroten.
- 14/ Goierrin beti gasteu eiten deude
 jentean sanidedea,
 gure badozu jokatutea
 nonbra izu kantidadea.
 Enoa geiao lotsatuten zu,
 naiko imin dou gauzerik,
 idiek beti eroten dodaz¹³
 etsetik edo auzotik.

¹² *Esango'zuzue*: *esango dozuez* alegia, naiz eta emen *esango dozue* bear izan.

¹³ Bertso-paperak: *eronten*. Baiña *eroten* ezarri degu, 13/8'an bezela. Alegia: *eroaten* edo *eramaten*.

15/ Amalau dagoz imini eta
au de amabostgarrena,
txakur andie izen eingo da
orain prezio onena.
Bertsolariek izen ein dire
Fermin te Otxotene'koa,
gerorao obak imingo dire
onek ezpadi naikoa.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea,
Leio'ko Zabale baserriko Eulojio Bidea
Agirre'ren eskutik jaso, Bilbo'ko Alfonso
Irigoien adiskideak bitartekotza eginda.

Papera puskatuta dago eta puska
batzuk falta ditu. Orregatik, puntuz idatzi
ditugun utsune oiek.

Azkenengo bertsoak egillearen izena
ematen digu. Baiñan bertsolari orretzaz ez
degu orain arte ezer ere ikasi.

BERTSO BERRIAK
IZAGIRRE'KO IDI NOBLIAI JARRIAK

- 1/ Arratsaldeko irurak
jo eben orduan,
sartu ziran idiak
Zorrontza'ko plazan;
noble eldu zirian
plaza orretara,
jente asko egoan
eurari begira.
- 2/ Lanien asirikan
eskoien aldera,
bigarrenengo ausian
untzeko sarria.¹
O ze mingostasuna
biotz barruena:
zelan izango ete dan
euren tratu eiña!

¹ Alegia: bigarrenengo tirakadan iltzea gelditu gabe egin.

3/ Laster artu zirian
medio barriak:
itxi arriari ta
akuluka biak;
jarri alde banatan
akulari biak,
o ze golpe kruelak
idien lepoan!

4/ Aurrera bajoiezan
gana surrutara,²
atzian akuluek
zan guztietara;
ordubete bakarra
izan da zuentzat,
aprobetxau zarie
ondo ordu atan.

5/ O ze sentimentua
neure ustian,
ikustian Nabarra
sokorrukan plazan;³
ezin defendidurik
nengoan lekuan,
entregauta egoan
Paulo'en eskuan.

² Gana surrutara: eztena sudurretara.

³ Marruka plazan.

- 6/ Nabarra, urten dozu
plazetan nagosi,
orregaiti zuretzat
krueldade ori:
sokaz kargau zaitue
alderdi batetik,
bestetik akulue
gorputz guztitxik.
- 7/ O ze sentimentua
lengo etsekorentzat,
ikustian idiak
tratamentu atan,
gaiñeran ikustian
Zorrontza'ko plazan
inozente dirua
jausi zala bertan.
- 8/ Jakin izan balabe
ordu aren barri,
ez eutsezan emongo
idiak iñori;
oiñ arte ez da izan
euren deseoa
proba engaiñuzkorik
iñun ikustia.

- 9/ Urten, al bada, izu zuk,
Nabarra, plazati,
gero agertuko'zu
eñiko tratu ori;
noble urten dozue
plaza guztietan,
orregaiti biotzak
dekoguz mingostuta.
- 10/ Miñ asko ibili da
berbaz zuen kontra,
pareja bat zuentzat
ezin billatuta;
zaoz lekoan gero (*sic*)
Zorrontza'n galduta,
idi banakoak
jarri dire kontra.
- 11/ Txomin Desiertu'ko,
motibo artuta,⁴
ezin prestau izan da
idi orren kontra;
laster etorriko da
bakar bat artuta,
ez dakit ze buelta
izango dan bera.

⁴ Bertso-paperak: *artutan*.

12/ Proba zarratu dabe
Gernike'n eiteko,
erridien lepoak⁵
osatu orduko;
banango idiekaz
erridien kontra,
arri nagosi eta
akulari bana.

13/ Sartu dire goizian
banango idiok,
egin ditue arek
al dituen markok;
gure izen dabe artu
arri ori sarran,⁶
indar gitxi dauke ta
beti ausietan.⁷

14/ Atsaldian plantau dira
bertoko erridiak,
lepo minberatuak
zituezan biak;
kontuz ibili zaite
orren gorputzetan,
zergaitik oraindiño
minbera daukezan.

⁵ *Erridien: erri-idien, edo-ta erri-beia.* Alegia: ganadu gorrizka; erderaz *raza pirenaica* esan oi dana.

⁶ *Sarran:* segidan; iltzea bukatzeraiño gelditu gabe.

⁷ *Ausietan:* tiraka.

- 15/ Suabe artu ditu
Alonsok idiak,
alan bere tapau ditu
goizekoen markak;
euki ezpaleitue
lepo mailletuak,
ordu erdiko biarrik
etzan orrentzat.
- 16/ Erridiok urten dabe
plazetan nagosi,
lau proba egin eta
danak irebazi;
proba geiau eñ orduko
gur'ot il ditezen,
geiago engaiñurik
jausi ez daitien.
- 17/ Penoso urte bientzat ⁸
idiak iltia,
zergaiti beti izan dan
euren amantia;
plaza biten gobernatu,
urte biak ondo,
berdigu gogorraurik
izen da orrentzako.

⁸ *Urte bientzat*: bigarren urterako, ziur asko.

- 18/ Barriro jausi barik,
ez, euren aldiyetan,
oba da urte bita
orrek il daitezán;
Bizkai'en jaio ziran,
Bizkai'en azita,
oraiñ gelditu dira
danak benziduta.
- 19/ Iru urte osoak
Izagarre'n egin,
azkeneko egunak
Marzeliñorekin;
nobliak izan dira
jaiotzatik ona,
azkenian mailletuakin
orrek il biarra.
- 20/ Agur, zuri-nabarrak,
Alonsorekin,
orrek gelditu dire
Bizkai danen goiti;
probentzie aldian
dana bildurturik,
biba zu, Alonso,
gorri-nabarrakin!

Bertso-papera, *Guernica – Imp. Angel de Goitia* moldiztegian argitara emana, eta Leio'ko Zabale baserriko Eulojio Bidea Agirre'ren eskutik jaso, Bilbo'ko Alfonso Irigoien adiskideak bitartekotza eginda.

Tamalez, urterik eta egillearen izenik ez da esaten.

Baserri baten izena ageri da, nungoa dan ez badakigu ere: Izagirre; naiz-ta 19'gn bertsoak Izagarre esan.

BEIAK BURRUKAN

- 1/ Adarra zorroztuta
ekarri dabe plazara
uste izan dabelako
arentzakorik ez dala.
- 2/ Idixeri geiau eginda
arro zegoen beixe.
– Ekarrixue gure *Pardilla*,
emen ikusiko'gu komedixe.
- 3/ Beiek egoten dire
batien da bestien,
eztabe siñistuten ixen
ori ikusi artien.
- 4/ Lenengoko puntue *Pardilla*'k
egin eban galdu;
makiña bat erronka Fernandok
orduan izan du.

- 5/ *Pardilla* koitedue zegoan
triste eta larri:
– Nun egon da ori Martzeliño,
zaku bat edo bi baba ez emoteko niri?
- 6/ Orrenbeste erronka *Pardilla*'k
entzun ebanien,
buelta zan besterantza
formalidadien.
- 7/ Burue ipiñi eutsan
buruen erdira,
pentseu ebalako: – Orraitik
ez deust niri ardura.
- 8/ Tarraska joan zanian
bei ori atzerantza,
Fernandok begituten eban
orduan berantza,
euki ebalako
galduaren antza.
- 9/ Pernandok piñuaren ondotik
eit'eban sokorru:
– Adarra loka euki deu eta
orregaitik galdu du.

- 10/ Galtzalliak beti oi deu
milla endredo,
olangoari kasurik
ezin egin leio.
- 11/ Ni ta Alejo andik
beluko mezara sarri,
bidiaren ondoan
jaten zegoan bei ori.
- 12/ Pentsamentue iñoiz
eztagon lez geldi:
– Zer egingo ete leukio Alejo onek
gure *Pardilla*'ri?
- 13/ Etxera joan da ezin sufridu:
– Zaku bat edo bi baba
Pardilla oneri egin
biarko deusaguz sartu.
- 14/ Lenengo alaba eta
gero emaztiak:
– Orrek eztira, Martzeliño,
etxe-mejoragarriak.
- 15/ Orrek entzunda neu bere
ixillik gelditu:
– Etxeko kontentue be
ona izango'gu.

Bertso auek, Gernika'ko Julio Bareño jauna zanak bialdu zizkigun, 1959'ko Uztailaren 23'an, makinaz idatzita.

Aurretik, argibide jakingarri auek ematen zizkigun:

«Muxikarrak idi bateri burrukan irabazi eutsan bei bat euken, eta euren beia lakorik ez egoala uste eben.

Baña Morga'ko Martzeliño Urkiaga'k urten eutsen bere bei *Pardilla* eritxinagaz, eta bai goitu ere.

Martzeliño Urkiaga, gaur 88 urte daukazanak, ber-berak atariak dira bertsuok, orain 30 urte baño geiago.

Ber-berak abestu daustazan lez ipinten dodaz, eta batian luzetu eta bestian laburtu, berak beintzat polito abestuten dauz, bertsolarien *tranpa* guztiak egiñaz.»

BERTSO BERRIAK

- 1/ Bi ari-joko dira
Bizkaia'n jokatu,
lenengoa nola zan
nai det esplikatu;
bigarrenian dute
artzaia trukatu,
Eperrak nai bezela
eztiye portatu.

- 2/ Apostura galduta
zuten aitzakiya:
beren artzaiak egin
diyela tranpiya,
ariya orrek zañen bat
zuela ebakiya,
au da gizonarentzat
onra egokiya.

- 3/ Elkar artu degu ta
artzaiak eta nik,
gezurra besterikan
eztator iñondik;
tranpiyaren beldurra
Manuelengandik,
ariyak zañak oso
zeuzkiyen oraindik.
- 4/ Oien artzaiarekin
nik elkar artuta,
engañatu derala
diruaren truka;
jendiaren isillik
leiotik sartuta,
ariya utzi degula
zañak biurtuta.
- 5/ Kulparik gabetanik
onenbeste puntu
zeñek naiko lukien
egizute kontu;
korputzian badaukat
milla sentimentu,
bizkaitar oriyekin
ez nabil kontentu.

- 6/ Nola eztakidala
Bizkaia'ra joanda,
Elorrio'tarrakin
artu det demanda;
mingaña isillikan
irukitzen lan da,
lenago zuena zen,
orain nere txanda.
- 7/ Lenago galdu zuen
ariya ori bera,
nola portatu zaien
nua esatera;
ezin eskarmentatu
ziraden batera,
orainguan obeki
eztira atera.
- 8/ Joko bat galdu eta
bestia zerratu,
lengo ariya zuten,
artzaia mudatu;
nik ere zarra utzi ta
gazia det artu,
orra astia umiak ¹
zer diran progatu.

¹ Bertso-lerro au illun egiten zaigu. Eta ezin asmatu nola bearko luken: *aztia? astian?...*

- 9/ Orra apustura bat
jokatzen ekusi,
nere ariya zaie
atera nagusi;
gero desafiyoka
berak dira asi,
orain aren umiak
diye irabazi.
- 10/ Ustez asiyak ziran
etxerako zuzen,
kontrariyoric bada
jokatu gaitezen;
oien lendabiziko
desafiyuan zen:
botako ziyotela
legoia ezpazen.
- 11/ Ari zar bat baneukan
nedonek itxian,
Bizkaia'ra eraman det
arturik kotxian;
korajez animua
zeukan biotzian,
aurrian uste zana
laja du atzian.

12/ Nik ez nuen legoia,
baizikan ariya,
indarra zeukana ta
berez jokariya;
orrek bajatu zuen
oien arrandiya,
kozkalari txarra da
zakur zangariya.

13/ Korajez ebilli naiz
leku arrotzian,
ariyaren galdia
an allegatzian;
iñork begiyetaria ²
argitu etzian,
ekusiko nula
plazan agertzian.

14/ Ango musikak eta
krasketa soñuak,
egin nai zizkiraten
gauza estrañuak;
ezagutu nituen
oriyen keñuak,
orain jaso ditzala
nork bere dañuak.

² Emen *begiyetara* bearko ote du?

15/ Batian Elorrio'n,
Bergara'n bestian,
seguru zeukatela
jokatzen astian;
diruak kanporako
etxerako ustian;
kontentu atera naiz
ni orrenbestian.

16/ Errespeto aundiya
jarri dute plazan,
bañan gero jokua
batu biarra zan;
orra amasei bertso
komeni dan gisan,
tranposua naizela
eztezaten esan.

Bertso-papera, *San Sebastian Imp. y litografía mecánica de E. Jornet* moldiztegian argitaratua eta Bonaparte'ren bilduman arkitua. Bertsoak jarri edo jarrarazi dituana, *Eperra* izeneko bat degu, lenengo bertsoak dionez. Euskera, berriz, Oiartzun aldekoa da: *ariya orrek, ekusi, zen, ebilli, itxia...* *Auspoa*'ren 116'gnean, Oiartzun'go *Eperra* (1825-1906) bertsolariaren berri ematen genduan. Bera ote da? Ditekena da. Bañan besterik gabe ezin segurutzat artu.

PROBALARIAK

- 1/ Mendexa'tik ekarri
probako bandera,
Berritu're joan giñan
bestie ekartera.
Irugarrena barriz
jokatu artera,
urte baterako ori
markarik asko da.
- 2/ Erlojue ez zutela
lenago arrapatu,
baña oinguan majo
ein dausku kitatu.
Publikoko jentiak
klaru esaten du
minutu erdi justo
ei ebela ostu.

3/ Abade jaun bat eguan
gizon ondradua,
Errenterie'gana ¹
bere opiniñua.
Neronek egin neutsan
areri durua,
laster egin genduan
guk aren jirua.

4/ Norberto det ixena,
nonbria Urrasti,
eskolarikan asko
ez nuan ikasi.
Zartu ta geroago
bertsoetan asi,
laster eroango nabe
emendik igesi.

5/ Alakua joan zan
Kalifornia'ra
irabaztiagatik,
ori egia da.
Osasun-bakiakin
etortzia bada,
denpora gitxi barru
probatuko gara.

¹ Errenteria: Berriatua ta Ondarroa bitartean da-
goan auzo bat da.

Bost bertso auek, izenburu orrekin,
Gernika'ko Julio Bareño jauna zanak bial-
gu zizkigun, makinaz idatzita.

Aurretik onela esaten zuan, bertsoak
nundik zituan adieraztearren:

«Alejandra Zubizarreta larogetamar ur-
tedun eta bere alabak abestuten dauste.
Geiago izan bear dabe, baña eztira gomu-
tetan.»

**BOZEOLARI ETA
BURRUKALARIAK**

(1925)

BERTSO BERRIAK
UZKUDUNTARRAK JARRIAK

- 1/ Milla ta bederatzireun da
ogei ta bostgarren urtian,
burruka-aldi bat egin omen zan
Alemani'ko partian,
Errezildarra oinperatzeko
jarriya beren ustian,
txapela erantzi lezaioteke
berriz aruntza juatian.

- 2/ Ikusten degu Paulino Uzkudun
nola dan mutil liraña,
gezurrarekin ez du baliyo
dantzatutzia mingaña.
Arriturikan aspaldin dauzka
Frantzi, Alemani ta España,
«Puskatzen ez da erraz -diote-
Errezil'ko mendigaña».

3/ Erbestekoak izandu dute
burrukan arrokeriya,
baña txanda ontan kendu diote
beren asmo on guziya.
Danan gañetik ipiñi zaie
Paulino nekazariya,
bere bildurrez jarri duala
nago Europa guziya.

4/ Garai batian lizar-makillak,
orain esku biribillak,
zartako ederrak ematen dizkik
gure etxeko mutillak.
Biyotza dardar daukala nago
italiano Spalla'k,
gogor samarrak iruditubaz
arentzat dauden opillak.

5/ Aspalditxuan arkitutzen naiz
oni zerbait antz emana,
bildur xamar gertatze'ote dan
etortzeko Barzelonâ.
Atzera geitxo ikusten dizut
izateko zu ain ona,
«zenbat álditan ikusi dezu?»
galdetuaz alemana.

- 6/ Paulino Uzkudun aien aldian
dezu mutilla bapua,
aintzen diyena egiten ere
gañera oso pijua.
Ermita aldian erregutuaz
uzten du ama gajua,
bera zartakok partitutzera
Amerika'ra dijua.
- 7/ Gogor xamarrak dirala aitzen det
bada Amerika aldian,
laister jarriko zerala uste det
zedori ara bidian.
Erakutsiko diyezu ondo
ezker eskubik nun dian,
uste ez arren eukiko dituzu
amaika an ere mendian.
- 8/ Itxasoz auztik berdiñ jotzen det
zure kopeteko azala,
argi ta garbi ikuste'ituen
eguzki eta itzala.
Or ere gogor egingo dezu
aiten aitonak bezela,
zori onian gure Jainkuak
arren ekarri zaitzala.

- 9/ Pozkidatuak egon litezke
zurekin errezildarrak,
toki askotan ez daudelako
orlako mutil azkarrak.
Begi argiya, anak ariñak,
gogor berriz atzaparrak,
aspaldin dabiltz neurtu eziñik
berak daduzkan indarrak.
- 10/ Paulino Uzkudun, ematen dizut
merezia dezun fama,
beti gogorki egiten dezu
sartzen zeran tokin lana.
Denbora gutxin zapaldu dituzu
frantzes, ingles ta alemana,
kontubak ondo atera leizke
juan biar dunak zugana.
- 11/ Uzkunduntarrak pozkidatuak
arkitzen gera zugana,
zu zeralako txikitandikan
gure aiskire izana.
Zenbateraño ezin esan det
guk dizugun naitasuna,
zure begiyaz ikusiko dezu
etorritzian gugana.

12/ Uzkuduntarrak amabi bertsoz
egiten degu bukatu,
gazte alaiak, gurekin baten
iñauteritan kantatu.
Merezi duna altxatutzia
ez dala nago pekatu,
orrelakorik egin badegu
Jainkuangatik barkatu.

Bertso-papera, *Tolosa'n: E. Lopez'enean*
argitara emana. Ez nuan apuntatu zeñen
eskutik jaso nuan.

Bertsoen ondotik, izen-abizen auek di-
tu: *José de Mendizabal*. Egillea izango da.
Baiñan bertso-jartzalle ori nor izan zan ez
dakigu.



Liburu au moldiztegirako prest gendua-
la, Paulino Uzkudun'en il-berria zabaldu
zuten egunkariak.

Errezil'ko seme ospetsu ori, 1985'eko
Uztaillaren 4'ean itzali zan, larogei ta sei
urterekin, Torrelaguna'n.

Betiko atsedena izan dezala zeruan.

(1926)

BERTSO BERRIYAK

- 1/ Oraingo estilo berri (y) onentzat
ditut bertsuak atera,
Uzkudun'ek zenbat aziyo egin duan
konparaziyo batera;
Maiatzan emezortziyan juan zan
Barzelona'n jokatzera,
Europa'ko txapela ekarri du ta
ezta makala atera.

- 2/ Italia'tik etorri ziran
baporiak kargatuta,
lengo graduba emateko asmuan
ziaro esperatuta.
Bañan emendikan ere jendia zegoan
ondotxo preparatuta,
kanpeon oi or utzi emen du ¹
ziaro mendeatuta.

¹ Bertso-paperak: *kanpeon ou oi or utzi emendu.*

- 3/ Orren besuak ukabilkarako
badute naiko indarra,
oinbeste jende menderatzeko
badu zedozen biarra;
gizonez erregular da baño
indarrez gogor samarra,
Italiya'ren kontra oain Barzelona'n
jo du kamarra ederra.
- 4/ Bat-baterako balin bada
beste bat oi da bestian,
demontrek ezik baliyo zuen
ori bozeuan astiak;²
aberastu samartu da ori
ezer in gabe bestiak,
bi urte barru konpondu ditu orrek
estranjeriko gaztiak.
- 5/ Italianuak ez omen zuben
lege onian jokatzen,
gerriz betik omen zizkiyon
golpe gaiztuak tiratzen;
esker eman bazekitela
eroki defenditutzen,
egin zizkiyon tranpa guzigatik
etzuben menderatutzen.

² Bertso-paperak: *bar baterako eta bestia*.

6/ Aditu diyet Spalla piska bat
altuxego omen da baña,
au emen da sendoskaxego,
biribilla ta berdiña;
indarra ere ba omen dauka
zezen kozkor batek aña,
Donostiya'ko txuletak eta
arrautz freskuak egiña.

7/ Zer joku-modu egindu duten
oain nua esplikatutzera,
amabi saio ein omen dituzte
asi ta bukatutzera;
ark lendabiziko oni sudurrian ³
odola ziyon atera,
baita onek berriz urrengo txandan
jota bera seko lurrera.

8/ Aldi artatikan ere etzan etorri
mutill talentu gabia,
biar da gatza amabi saio
orla botako badia;
bi diran lekun jeneralian
bat izaten da obia,
len Italiya'n zeon graduba
orain Gipuzkoa'ra etorria.

³ Bertso-paperak: 'ark lendabiziko ami sudurrian.

- 9/ Aitu diyet pisuban daukatela
zeinbat kiloren aldia:
Spalla larogei ta zazpi ta
au amairu omen dia;
gutxiyena danak ere ez dauka
karga itxura gabia,
baserritako aitonen batzuek
flakogo egongo dia.
- 10/ Mundu (b) ontako banidadia
indar asko eta sona,
asi liteke ofiziyo ortan
abilidade asko daukana;
asiyagatik ez da edozein irtengo
Uzkudun bezelako ona,
bi urte barru mutur joka orra
gizona aberastu dana.
- 11/ Eman biar det egun ortako
Barzelona'ko aditzera:
ogei ta amazpi milla persona
juan omen ziran ikustera;
Itali aldeko jendia ez omen zan
oso kontentu atera,
bialdu dute billete ederrik
españolaren tartera.

- 12/ Baietz ustegatik ezta ibilli
oso paraje segurun,
deña dedilla bildurrik gabe
ori beti jokatzera jun;
askotan alkar konprenditu eziñik
kiñuka ta al dan modun,
alare geinak ausi ditu orrek,
biba Paulino Uzkundun!
- 13/ Napar, Bizkaia eta Alaba,
Gipuzkoa dala parte,
orrek joku (b) oi irabaztia
sekulako poza dute;
len sonik etzuten lau probintziyak
orain altxa dira dezente,
orrek eztauka ezeren faltik
lur ontan dabillen arte.
- 14/ Firpo ta Harry-Wills eta Dempsey
orain emen daude onenak,
Spalla berriz oikin batian
golpe bizkorrak emana;
seguru irabazteko asmuan
etorri omen zan onena,
uste zun baño umiltxiago
or da bueltan juana.

15/ Estranjerua au baño abiltxego
beti da lenago ikusi,
bada korrika bada beste askotan
jokatuta irabazi;
baño Paulino Uzkudun oraindik
ez dute askotan ausi,
oain orregatik dago Europa'ko
bozeadoren nagusi.

16/ Mutill ori da Errezill'en jaio eta
or bertan bizitzen zana,
frantzesak gero gustatu eta
bozeora eramana;
nagusik ere iya orren kontura
aberastuta omen dira dana,
Donostiya'ko partian dago orain
Europa'ko kanpeona.

Bertso-papera, *Navarro y del Teso. Tolo-*
sa moldiztegian argitaratua. Ez nuan apun-
tatu noren eskutik jaso nuan. Bertso auek
nork jarriak diran ez da ageri. Urterik ere
ez; bañan errez soma diteke. Erminio Spa-
lla italianoa Barzelona'n Maiatzaren 18'an
menderatuta, Europa'ko txapela beregana-
tua du Uzkudun'ek. 1926 urtean gertatu
zan ori. Zer moduko burruka egin zuten ja-
kin nai duanak, irakur dezala *Auspoa*'ren
131'gna, 98 orri-aldean.

GORA UZKUDUN!

*Paulino, Paulino,
Errezil'ko Uzkudun,
Paulino, zu zera
Europa'n txapeldun.*

BERTSO BERRIAK UZKUDUNTARRAK JARRIAK

- 1/ Bertso berriak bigarren aldin jartzen dizkizut, Uzkudun, onenbestexe egin biar det nola baigeran ezagun; alkarganako kariño on au betiko gorde dezagun, pake santuban alkar maitatuz bizitu gaitian mundun.

2/ Aitak eta amak egin zinduben
mutilla oso liraña,
denboraz berriz atera zera
ukabilkari bikaña;
makiña bati dotore asko
artu diozu tamaña,
Barzelona ortan Spalla orri,
etzuan usteko baña.

3/ Spalla onek igo orduko
asi-aldiya azpitikan,
bañan Paulinok makar aundirik
etzuan bi begietan;
alaz guztiz e zartako txar bat
artu zuan orratikan,
ordun esan ziyon dotore onei:
«Juan ari emendikan».

4/ Ekin-aldiyan etzan izango,
adiskidiak, gozua,
esate'utenez ematen zuan
mendigañeko otsua;
bi saltoetan jarri ziyola
ark merezi zun mazua,
modu onian etxeratu zun
Europa'n zegon usua.

- 5/ Usu onekin etorri zanen
Uzkudun euskal lurretâ,
jendiak bazun egun aietan
onenganako arreta.
«Gora Uzkudun!» oju egiñaz
kale guztiak beteta,
euri-bildurrez etzan egondu
jendia etxen gordeta.
- 6/ Uzkuduntarrak ikurriñakin
atera giñan bidera,
baita musika gizon aundiyaz
berriz kale barrenera;
guzi-guziyok pozez beterik
ondoren plaza aldera,
an jarritako jolas ederrak
beraz danok ikustera.
- 7/ Jolas oriyek bukatu eta
Uzkuduntarren etxera,
Amerika'ra juan biartzula
ematera aditzera:
«Aspalditxotik an omen dago
ukabilkarin bandera,
iñola al badet ekarriko det
bera Gipuzkoa aldera».

- 8/ Galdetu giñon ote zijuan
lur oietatik lenbailen,
erantzun zigun: «Uste dedanez,
neguba sartu baño len;
nere denbora orain da eta
nago saiatu bearren,
orain agur bat, aixkire danak,
ondo bizitu ba emen».
- 9/ Amerika'ra juan da ondoren
azpitik galtzeko griña,
estranjeruaz dabillentzat
ori da gauza jakiña;
abildaria eskaxa eta
luzia berriz mingaña,
oien fedea ez da zuzena,
baietz uste dute baña.
- 10/ Uzkudun'eri oiek diote
bildur ikaragarriya,
gauza oneri aspalditxotik
nago ondo igarriya;
nolabait lorez apaindu duan
lenago Euskalerriya,
miñ oi besterik ez daukate,
esan dezagun egiya.

11/ Amerika'ra joan da ondoren
burruka-aldiya Habana'n,
lendabiziko ekin-aldiyan
lurpera zuan eraman;
ez da erreza ezagututzen
onen modukua zein dan,
egiñalak eingo'ituzte baña
menderatutzen naiko lan.

12/ Denbora gutxin Guipuzkoa'tik
orra burrukari ona,
naiago nuke beira balego
antziñetako aitona.
Emengo modun Amerika'n e
onek artu duan fama!
Modu orretan naiko diruaz
laixter dator amagana.

13/ Naiago nuke itz eder onek
izango balu indarra,
al dan lenena onuntz biltzeko
Paulino errezildarra;
ermita aldian beso zabalik
utzi zuan ama zarra,
arren begitan ez da faltako
ikusi arte negarra.

- 14/ «Ez bildurtu, ba, ama gaixua,
lasari egon etxian,
or bezalaxe Amerika ontan
semia dabil aixian;
naigabe oiek aztuko dira
ni zugana etortzian,
nere besotik ibilliko da
pasiatuaz kotxian.
- 15/ Nere izena danak dakite
detala Paulino Uzkudun,
amaika bider aditutzen det
obek badirala mundun;
gure Jainkuak ematen badit
sustantziya nere eskun,
ni izango naiz dudarik gabe
mundu guztiko txapeldun».
- 16/ Gora Uzkudun! Uzkuduntarrak,
orain nua bukatzera,
uste dedanez gizon au zein dan
eman det naiko aitzera;
euskaldunetan aiaztearren
nator bertsuak saltzera,
zar eta gazte, etor zaitetze
papertxo bana artzera.

Bertso-papera, *Imp. J. Mendiburu* mo-
diztegian argitaratua eta Oiartzun'go Altzi-
bar'en Olalde'ko Jose Anjel Sarasola za-
naren eskutik jaso. Bertsoen ondotik
onela dio: *José de Mendizabal (Prohibida la
reproducción).*

BERTSO BERRIAK
PAULINO UZKUDUN'EI JARRIAK

- 1/ Bertso berriak jartzera nua
Paulino Uzkudun'entzat,
ondo komeni diraden gauzak
dirala iduritzen zat;
Europa ontan «bozeadore»
iya jarri da obentzat,
bolara ontan koraje asko
iñork ez dauka orrentzat,
zer ondra eder zabaldu digun
gipuzkoatar danentzat!
- 2/ «Estranjeriko jendia –esaten
zuten– indartsu ta yayo,
gipuzkoatarrak oientzako
batere ez dute baliyo».
Paulino Uzkudun itz orren kontra
bertara joan zan propiyo,
makiña bati mutur-ezurra
ederki berotu diyo,
len bezelako erronka aundirik
ez daukate eiteik geyo.

- 3/ Kristo zerutik jetxi zanetik
oneraño bitartian,
olako mutill bat ez da izan
Gipuzkoa'ko partian;
ori plazetan jokatutzen da
oso extremo puertian,
bertan izan balitz ere utsa,
emendikan apartian,
aldena ere Prantzi'ra junda
Paris'ko siglo-kortian.
- 4/ Oi asi balitz zenbait bezela
errezten edo plojatzen.
gure pamikan ankapetikan
sekula etzan ateratzen;
indar aundiko mutilla izanda
plazan benetan jokatzen,
esanagatik beste aldetara
iñork etzuan mudatzen,
tamaña ontako gizonik ez da
dirubarekin pagatzen.
- 5/ Aizkoran ere mutilla ori ez da
pulamenturik gabia,
or xalapartaraka dabiltzan
beste asko baño obia;
iru illebeta pasa prestatzen
orrena juango balia,
ez det uste orrek eingo lukenik
bale usteko kalia,
ondo portatzen diran gizonak
orrela ezagutzen dia.

- 6/ Oi Errezil'ko semia berez,
basarrin jaiotakua,
buruko miñik asko izan gabe
gaztetan azitakua;
tarte unetan basora joanda
aizkoran ikasitakua,
emezortzi urte zitubeneko
zeiñ zan orren modukua?
Indar aundiko kasta bizkorra
eta zaiñ dobletakua.
- 7/ Emezortzi urtekin asi zan oi
plazetara agertutzen,
Azpeitiya'ko bi gizonekin
premiyuak ateratzen;
andik bi urteko obenak etziran ¹
orrena allegatutzen,
eta txapela an daguala
kantetan digute jartzen,
bada-ez-bada badabiltz oiek
bartzarrak toriatutzen.
- 8/ Azpeitiarren ta errezildarren
kontuk daduzkat goguan,
oik biyak len e premiyotara
Gernika'ra zian juan;
kolpe bizkorrak tira zituzten
biyak alkarren onduan,
makiñat jende albuetatik
erreparuan zeuan,
orduban ere ango txapela
Uzkudun'ek ekarri zuan.

¹ Bertso-paperak: *obena*.

- 9/ Jabier Otxoa, Paulino Uzkudun
eta Aritzaga bestia,
oik irurak añeko gizonak
munduban asko ez dia;
Arteondo'kiñ pensatzen zuten
orri irabazitza,
amabost arroba eroziñentzat
eiten diranak ez dia,
ezta txoakeiya minutuban beiñ
oik bizkarrea jasotzia.
- 10/ Napar, Bizkaia ta Araba,
campeón de España or dute,
prantzes ta ingeles eta Irlanda,
Austria dutela parte;
beren gustoko negoziyotan
apiziyo aundiya dute,
juan dan aspaldiñ amaika apustu
oriyek jokatu dute,
baña *bozeuan* eta aizkoran
Errezil nagusi dute.
- 11/ Prantzes ta ingeles eta Irlanda,
campeón de España bestia,
Uzkudun suertatu zan oiekin
bozeuan jokatzia,
iru kolpetan ortan obena
jota lurrera sartzia;
ainbeste aziyo egingo lukenak
millatatik bat ez dia,
merezi luke diamantezko
destatua bat jartzia.

12/ «Demesei» ori obena omen da
norteamerikanua,
korderik gabe gizonik pranko
plazetan botatakua.
Errezildarren kontra daduka
laxter urrengo jokua,
intxor koskorrak txikitutzeko,
ai zer pareja majua,
oi jotzen badu, Paulino Uzkudun
aberastuko da naikua.

13/ Paulino Uzkudun estranjeriyan
esposatzia nai dute,
ango siñorita gazte askok
oso maite omen dute;
emakumiak dezaken antza
aguro salatzen dute,
oiñ kostunbria traje i gorbeta,
relo, zapata i bibote,
poco trabajar ta comer bien
komententzi ona badute.

14/ Bera jaio zan erriyan ere
badu nobiya bestia,
oik adituta arren begiyak
lotan egongo ezitia;
automoil txiki primera orrek
eta albuan dama gaztia,
naiko diruba ta osasun ona
alderdi txarrak ez dia,
ai zer lastima orlako portuna
prantzesak arrapatzia!

15/ Amalau bertso kantatu ditud,
au det amabostgarrena,
orrenbestexe esan biar nun
deskansatzeko barrena;
Uzkudun mutill jatorra dala
askoren iduripena,
eun urte ontan Euskalerridan
agertu danik onena,
emengo obenak iya jo'itu ta
Amerika'ra urrena.

Bertso-papera, *Imp. R. Altuna*.— *San Sebastián* moldiztegian argitara emana eta
Getari'ko Garro baserrian eskuratua.

BERTSO BERRIAK

- 1/ Alegrantzia onakin
asten naiz kantatzen,
jarri zaitezte orain
guztiok aditzen;
esplikatuko dizuet
zer zaigun pasatzen,
gure erriko seme bat
or zaigu azaltzen,
Españi'ko onena
muturrak apurtzen.

- 2/ Au da gure erriko
Osa'tar Mateo,
aitze aundia daukagu
au izan ezkerro;
muturrak apurtzalle
asia da bero,
oñ artian bezela
portatzen bâ gero,
danak apurtuko ditu
orrek onezkero.¹

¹ Bertso-paperak: *oiec onesquero*.

- 3/ Amak egin du ori
orlako semia,
indar aundikua ta
entero puertia;
itxurako gizona,
altua ta gaztia,
ondo egiñak dauzka
detalle guztiak,
diruz ez da pagatzen
orlako kastia.
- 4/ Oraindikan denboraz
entzungo'itu bozak:
irabazi duala
Mutrikuar Osa'k;
orren esku-muturrak
dira aproposak,
ez nuke nai nik artu
aren zartain otsak,
laister kenduko lizkit
len dauzkaten ortzak.
- 5/ Orain artian ori
ez dator itxusi,
kanpeonatua du
laister irabazi;
ori abonatzia
ez al du merezi?
Naiz-ta gizon batzuek
ezpadute ikusi,
arek bezela jotzen
guk eziñ ikasi.

- 6/ Jokua izentatu zan
illen irurako,
Atxurak luzatu zun
berriz amarrako;
Mateo pamatuak
ez du ukatuko,
nola arreglatu ziran
Bilbo'n jokatzeko,
orren aurrera lasai
etzan etorriko.
- 7/ Eguna allegatu zan
illen amarrian,
jendia bazan pranko
Bilbo'ko errian;
Mateo alimoso
plazaren erdian,
etzaukan bildurrik bate
bere barrenian,
Atxurra saludatzen
jokatu aurrian.
- 8/ Gero Atxurrarekin
asi zan jokatzan,
Mateo geio zanik
etzuten pentsatzen;
berialaxen Osa'k
zioten igartzen,
asi zan bestiari
ederrak ematen,
eskua gora altxa ta
oberi zioten.

- 9/ Jokua abandonau ta
orla gelditzeko,
etzaukan esperantzia
irabazitzeko;
ortaxe juaten dira
plazâ jokatzeko,
esku edo muturrak
alkar apurtzeko,
gogorra ta puertia
zein dan probatzeko.
- 10/ Atxurrak esaten du
eskua sendauta
berriz jokatutzeko
esperantza dauka;
Mateo konporme da,
beldurrik ez dauka.
berak nai duanian
eguna izendauta,
urrengo lako den berriz (*sic*)
muturra soltauta.
- 11/ Orra gure erriko
Mateo puertia,
orrek beti izan du
ortan suertia;
ortakoxe egiña,
berez balientia,
orlakuak merezi deu
abonatutzia,
ori dala merio
Mutriku'k aitzia.

12/ Orra amabi bertso
Mateoi jarriak,
azañak egin ditu
ikaragarriak;
ondo gogorak dira
orren aragiak,
merezi du ta «Biba
kanpeon jarria!»
Orrek onratu digu ²
Mutriku'ko erria.

Bertso-papera, *Imprenta Deva* moldizte-
gian argitara emana eta Donostia'n esku-
ratua. Ez nuan idatzi nork eman zidan.

² Bertso-paperak: *oiec onratu digu*.

BERTSO BERRIAK

- 1/ Esplikatzera nua
egiak euskeran,
burruka egin zuaren (*sic*)
Santa Kruz bezperan;
orduak ikusiak
nituan nik Deba'n,
Otxoa'k bota zuan
aidian bai egan.

- 2/ Plaza orren kontra
egin zan ba jarri,
baña gogor eldutzen.
ziuen elkarri;
biak ibili ziran
estu eta larri,
Otxoa'k egin zuan
lekura ekarri.

3/ Orduan artu zuan
askok bai damua,
oien pasadizua
esatera nua;
Otxoa'i kantatuko
diot abonua,
sujetatu zuan bai
italianua.

4/ Gaiztua da egiten
gogorranai eutsi,
nai zuanik egiten
etzion ba utzi;
euskaldunak burruka
munduan nagusi,
Otxoa'k eiten die
guztiak bai ausi.

5/ Italianuak nai zion
besuak biurtu,
motibo augatik ziran
biak asarratu;
nai bezela ezin zuan
azpira ba sartu,
Otxoa etzan orduan
batere bildurtu.

- 6/ Italianuak eldutzen
zion edozela,
sujetatzeko asmua
zedukan bestela;
aginka egin zion
txakurrak bezela,
baña Otxoa ez da
ez gizon ustela.
- 7/ Bi ensaio ein zituen
ogei minutuan,
oien pasadizuak
esango'itud nik kantuan;
ustez ibili arren
entero kontuan,
laster ipini zuan
plazatik kanpuan.
- 8/ Irugarrenen saiua eiten
ziran bada asi,
romeria polita
genduan ikusi;
aidian bota zuan
bai ill edo bizi,
Otxoa etzan juan
batere igesi.

9/ Olako azañak egitatu (*sic*)
aspaldian sarri,
kontraio asko zaion
aurrian bai jarri;
iñork etzion ari
eskurik ezarri,
bestela izango ziran
guztiz errukarri.

10/ Len ere iru ensaio egiñak ei dira
Tolosa'n da Donostia'n,
saiatutzen dirade
alegin guztian;
biak gizon abillak
bai nere ustian,
gaiztua da eukitzen
Otxoa azpian.

11/ Azpian ezin due
luzaro eduki,
laister eiten da ura
gora beti jaiki;
burruka jokatzen du
entero ederki,
orrekin dabillena
beti det erruki.

12/ Bere ustez da italianua
gutziz agurua,
orren kontrarioa
gutziz onrurua,
txatxarkeririk gabe
burrukari klarua;
odoletan jarri zan
entero berua.

13/ Odolak berotutzen
dirade sasoian,
zergatikan zebillen
bere arrazoian;
guziak largatze'itu
orrek bai atziyan,
gorrotorik ez dago
orren biotziyan.

14/ Otxoa'k dauka edarra
burruka-jokera,
orlakorik munduan
besterik ote da?
Italianuari eman zion
naikua aukera,
atzenian bota zuan
plazatik kanpora.

15/ Lege txarrian ibilli zaion
aurretikan sarri,
argatik zan bestia
berotuta jarri;
atzenian laga zuan
guztiz barregarri,
geiago etzizaion
aurrera etorri.


16/ Orra amasei bertso berri
euskeraz jarriak,
gauz orretan badaukaaz
beintzat igarriak;
bere burua ez deu izentatzen
bertsolariak,
asko konsolatzen nau
burrukalariak.

Bertso-papera, *Imprenta de Orúe – Eibar*
moldiztegian argitara emana eta Sebero
Altube zanaren eskutik jaso.

ORAINDAÑOKO LIBURUAK (101'garrenetik aurrera)

- 101-102. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. I. (*Aitua*).
- 103-104. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. II. (*Aitua*).
105. *Jose Inazio Etxeberria*: Mendi gañetik. (*Aitua*).
106. *A. Zavala*: Pastor Izuela.- Ezkioko ta Segurako itxuak. (*Aitua*).
107. *A. Zavala*: Zepai bertsolaria. (*Aitua*).
108. *Mattin*: Ahal dena. (*Aitua*).
- 109-110. *P. Lafitte*: Mañex Etchamendy bertsularia.
111. *Bertsolariak*: Xenpelar-saria, 1972. (*Aitua*).
112. *Basarri*: Sortu zaizkidanak. (*Aitua*).
113. *P. M. Urruzuno*: Sasiletrau baten ziria. (*Aitua*).
114. *A. Zavala*: Kaskazuri bertsolaria.
115. *A. Zavala*: Larraburu, Lexoti ta Balentin bertsolariak. (*Aitua*).
116. *A. Zavala*: Oiartzungo bost bertsolari. (*Aitua*).
- 117-118. *Balendin Enbeita*: Nere apurra.
119. *A. Zavala*: Oiartzungo beste lau bertsolari. (*Aitua*).
- 120-121-122. *A. Zavala*: Mendaro Txirristaka.
- 123-124-125. *A. Zavala*: Zapirain anaiak.
126. *A. Zavala*: Ustu ezin zan ganbara.
127. *M. Arozamena*: Nere aldia.
128. *A. Zavala*: Amodiozko penak bertso berrietan.
129. *A. Zavala*: Afrika'ko gerra (1859-1860).
130. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (I).
131. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (II).
132. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (III).
133. *A. Zavala*: Arrantzaleen bizitza.
134. *J.M. Arrizabalo* - *A. Zavala*: Baso-mutillak.
135. *A. Zavala*: Jaioak bizi nai.
136. *A. Zavala*: Noe'ren ontzia.
- 137-138. *Ataño*: Txantxangorri kantaria.
139. *A. Zavala*: Soldaduzkako bertsoak.
140. *A. Zavala*: Nekazariak bai miseriak.
141. *Bertsolariak*: Bertsolari-Txapelketa Nagusia (Donostia, 1980 - I - 6). (*Aitua*).

142. *A. Zavala*: Txabolategi, Elkoro eta Leunda bertsolariak.
143. *J.J. Irazusta*: Nork bere bidea (I). (*Aitua*)
144. *J.J. Irazusta*: Nork bere bidea (II). (*Aitua*).
145. *J.J. Irazusta*: Nork bere bidea (III). (*Aitua*).
146. *A. Zavala*: Berridi eta Kuxkullu bertsolariak.
147. *Ataño*: Txori. (*Aitua*)
148. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (I). (*Aitua*).
149. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (II). (*Aitua*).
150. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (III). (*Aitua*).
151. *Martin Treku*: Etxe xokotik kantari.
152. *Xalbador*: Herria gogoan. (*Aitua*).
153. *J.K. Zapirain, Ataño*: Zure Pasio Santua. Asis'ko San Frantziskoren bizitza.
154. *A. Zavala*: Jan-edanaren bertsoak (I).
155. *A. Zavala*: Jan-edanaren bertsoak (II).
156. *F. Artola, Bordari, R. Artola*: Aritz beraren adarrak.
157. *Elkar lanean*: Lexoti bertsolaria.
158. *Mari Treku*: Mattin, nere gizona.
159. *Txomin Garmendia*: Denbora pasa.
160. *Txomin Garmendia*: Bizitzaren arian.
161. *A. Zavala*: Kuba'ko gerra.
162. *J.M. Arrieta*: Nere ondar alea. (*Aitua*).
163. *J.C. Arrosagaray*: California-tik kantuz.
164. *A. Zavala*: Mixioetako bertsoak (I).
165. *A. Zavala*: Mixioetako bertsoak (II).
166. *M. Manterola*: Lore apal bat.
167. *J.M. Lertxundi*: Baso tarteko oiua.
168. *P. Lazkano, A. Zavala*: Tiro tartean bertsoan.
169. *Basarri*: Kezka-giroan.
170. *Txomin Garmendia*: Bordaberri'ko gozo-mikatzak.
171. *Txomin Garmendia*: Bertsolari Kurpilla.
172. *Sebastian Salaberria*: Nere soroko emaitzak.
173. *I. Olea*: Otemotxeko arnasa.
174. *A. Zavala*: Kristaubidea bertsoan (I).
175. *A. Zavala*: Kristaubidea bertsoan (II).
176. *A. Zavala*: Ameriketako bertsoak.
177. *Txomin Garmendia*: Erririk-erri.
178. *Basarri*: Bertsokaritzari buruz.
179. *Ataño*: Espetxeko negarrak.
180. *A. Zavala*: Euskal jokoak bertsoan (I).
181. *Ataño*: Zigorpean.
182. *M. Ostolaiz*: Oroipen-kutxa.
183. *A. Zavala*: Euskal jokoak bertsoan (II).



AUSPOA
LIBURUTEGIA